



TEOLOGILÄRIEN YÄRDUNÄK





ESPAÑI'AN : 10 Laurleko

ONGILLEAK : 20 ''

ATZERRIAN : 15 ''

YAKIN

(PRO MANUSCRIPTO)

5^{gn} zenbakia - Gabonetakoa - 1.957


ORIXE'RI

"ORIXE", luma geldo batek artu zaitu,
Zu, euskal-lurretako kantari kementsu.
Zure "Barne-muñetan" muña arkitu dogu,
Ta, "Meza-Bezperatan" Jainkoa gozartu.

"Tormes'ko Itsu-mutilla" "Santa Krux Apaiza",
"Kito'n arrebarekin" ta Agustin'en itza...
Ondo sartu joan da ta beti aratza
Zure burutapena, euskera ta arnasa.

Zure nortasun biran zeure balioa:
Jakintsu, sakon, urten, edonorakoa.
Euskaldunen poeta bein da betikoa (!),
Gizaldiak ikusi nai eben lakoa.
Euskaldunaok or gara zure Euskaldunetan.
Or dabil gure ama Pestaburuetan,
Arta-zuriketan da gaztañadietan.
Or dago gure aita zeure gizonotan.
Betiko egin dozuz ziran legezkoak:
Euskaldun ta beargin, jator ta iaioak.
Zeuri eskerrak, Maixu, orain, gerokoak,
Ta, Euskalerrri k eziña bemoizu Jainkoak.

Y A K I N



TEOLOGi -
FILOSOFi -
SAILLA



AITA SANTUAREN ITZA

KATOLIKO-LANGILLE GAZTEDIA ERROMA'N

KARDIJN jauna eta Langille gastedia.

Erromatarrak gogoan dituzte oraindik larogeita biren bat aberrietatik eldurik, ogeitamar milla neska-mutil langille gazteak Erroman igaro zituzten bi egun aiek. Erriarteko J.O.C edo Katoliko Langille Gazteen Batzarrari burus ari naizala agirian da. 1957'ko 24 eta 25'ean bildu ziran lenengo aldiz Erriarteko Katoliko Langille Gazteen ordezkariak. Kardijn jaun agurgarriak, 1912'an Bruselas inguruan, ainbeste eta ainbeste neska-mutil gastei, ikastolak utzita lanean asten diran garai ontan, zer gertatsen zitzaien ikus-tean, ordurarte jarrai zuten bide ona utzirik okerrera erortzen zirala nabaiturik, gaztedi langille ori jasotzeko asmoz, Jaunagana ekarrerazteko gogoak eraginda.

Apaizgai zalarik, il zorian zegoen bere aitaren oesurrean deitu zuten. Bere aita zun ura ain bear gorrian ikusirik, bera apaizerako bidean aurrera ateratzeko ainbeste neke eta lan jasan bear izan zitula gogoraturik, eta bear bada ere orregatixe iltzen zitzaiola eta gafiñera, ain beartsu eta txiro, negar malkoz busti zitzaizkion begiak, biotza berriz illundu. Eta, orduantze, iltzera zijoskion aitaren aurrean "bere bizi osoan langille taldea, batez ere gazteak, bide onera ekarrerazten saiatuko zala zin egin zun".

Bere ziña aundikiro bete du eta betetzen ere ari zaigu. Sei mutil eta sei neska gaste-langillek, jakina, berekin arturik asi zan. Ori, lendabiziko gudatea (1914-1918) bano urte bat edo bi lenago zan. Guda bukatzean, bere lanari jarrai zion, eta milla bederatzireun eta ogeitabostgarren urterarte Eleizak bere lana ezagutu eta ontzat artzeko zorionik etzun izan. Katoliko Langille-Gaztedia (K.L.G.) Bel-

gica'n asi zan beraz 1925'ean. Bi urte geroxego Frantzi'ra eta Canada'ra zabaldu zan. Bigarren gudate garaian, (1939-1945) berrogei ta bost aberrietan ontzat artua zan. Gaur, berriz, larogei ta geiago errietan lanean ari dira.

Ez da beraz arritzeko, mundu guziko irureun milloi langille gazteen ordezeko bezela, ogeitamar milla gazte Erroman Batzar Nagusian biltzeak Kardijn jauna biotz biotzean poztea. Batzar ori bere "azken ametsa" zula aitortu zun. "Bomba atomikak" bezelakoxe indarra bear lukela Batzar orrek ere bai ez, ordea, mundua auts biurtzeko, mundu galdu oni bere azkatzaillea, bere itzaropena, bere neke eta bear guzietatik onik atera dezaken "norbait" badala adieraztera emateko, baizik.

Eta egia esateko asko eta askorentzat "bomba atomika" izan dugu Batzar ari. Eleizaren etsaiak batez ere, izaturik itz gabe utzi ditu; etzuten, noski, uste, Eleizak orrelako indarririk zuanik, eta batez ere orrelako gazte sail ederra bere gudari.

Errromatarrak, berriz, arriturik, lilluraturik gelditu ziran, ogeitamarren bat neska-mutil gazte, erri eta kolore guzietakoak, nor berak bere iskuntza mintzo zualarik, ain paketsu, ain sinimentsu, anaitasun aundienean Erroma'ko kale eta Eleizetan elkarrekin otoitzean ikustean. Orduan, bai, ikusi eta ikusi zutela, anai dirala gizonak, Jainkoaren seme izanik.

AITA SANTUA ETA LANGILLE GAZTEAK.

Bere itzaldia, 25-VIII-57.

Bañan, beste iñor baño geiago poztu, beste iñor baño geiago Batzar onen zai-zai zegona Aita Santu berbera dugu. Irakurri besterik ez dugu sail aundi oni zuzendu zizkion itz sutsu eta mamitsuak.

"Ikuskizun lilluragarri, K.L. Gaztedi'ko seme-alaba kutunok!!! Zuek emen nere begien aurrean bildurik ikustean, Apostoluak il ziran eta illobiraturik dauden toki santu auek zuen txaloz eta abestiaz betetzean, nere biotzeko poz aundi onen berri bear bezela ematerik izango al dut? Onera etorri oi dira mundu guzitik giza talde aundiak egunero indar eta atsedeen billa. Aspalditik Katoliko Langille Gazte-

di'ko ordezkariekin artu-eman au izateko zai nengon". Ara emen Aita Santuaren sarrerako itzak. Samurragorik bai ote? Ukigarriagorik? "Aspalditik zai nengon..." dasaie. Milla bederatzireun eta ogei ta emeretzigarren urtean, agindu bezela, zorioneko gudateagatik, etzuten biltzerik izan. "Orre-gatik, jarraitzen du, sua eta garra dariozutela emen bildurik zeratenok ikusirik, eta Langille Katoliko izate orrek eskatzen dizutena emendik aurrera zeatzago betetzeko zuen erabaki aukerentzatean, beste langille asko zuen elburuetara ekartzeko, nere atsegin au oraindik aundiagoa duzute". Erroma'ra joan ziran aiek etziran ez, Katoliko Langille Gazte bakarrak eta guztiak. Beste irureun milloien ordezkari edo bezela etorriak dituzute. Aiek guziak, Erroma'ra joan ez diranak ere gogoan ditu Aita Santuak. Bai ta ere, gogoan ditu berebat, gazte auker bide onera ekarrerazteko asmo duten aiek, "Jaunaganatuz". "zuegi emen ikusteak, guztion Aita naizen onen biotza posten eta ukitzen du..."

Ainbeste aberrietako neska-mutil langille auker, ez dira Erroma'ra ibilli-aldi eder bat egitera joan, "... zuen sinismen sendoa, Kristo'ri diozuten zuen neurrigabeko maitasuna, bere ordezeko eta Eleizaren gain jartzen dezuten uste osoa, eta zuzentasuna eta pakea nai dituzutela aitortzera baizik; langille guziak eleizaratzeko egiñik dezuten zuen itz ura nere aurrean berritzeko".

"Amets aundia, bai; bañan bai ta ere berezkoa Kristo'ri batuak dirala dakiten biotz maitetsuentzat, batasun orren indarra beren lanetan ikusi bai dute". "Zuen sinismenari eutsi eta zaitu, eta ez duteneri bera eskeintzeko dabilzkizuten bi lan auetan, zuen adimena argitu eta zuen biotzak berotuko ditun argi eta suaren billa etorri zerate zuek Erroma'ra. Zuen kristau-bizitza sakonki eta egiazki bizi nai dezute zuek, ez bakarrik zuen barne-barnean, bañan bai ta ere agiri-agirian; zuen sendietan, auzon naiz lantokietan... guztiei adieraztera emanek Kristo eta Eleizaren benetako seme zeratela".

Gaurko gizartean Jaunaren Jaurerria zabaltzeko, Eleizaren erakutsien berri emanek, aukeratuena berak direla azaldu ondoren, iru gogaketa jartzen dizkie buruan artteko, dute. izenetik artuak; Katoliko Langilleen Gastedia. Itz

bakoitza beraz, aztertzen du eta itz auek zer erakutsi ematen dizkien azaldu. Ara emen itz gutxitan itz bakoitzari buruz zer dion:

a) Zuek "gazteak" zerate: "Askotan uste oi da, bañan gezur aundi bat da, Kritau gaztediak munduaren gerokoa bildur pirka batekin begiratzen dula, jakintza eta teknika gaietako aurrerapen auen artean illun eta lur jota gelditzen dirala, bere sinismenari oztopo egingo diotelakoan, itz batean, aul eta indarge ezagutzen dala txirotasunaren aurrean, gizarteko bidegabekeriaren aurrean, gaur gizonen artean ikusten ditugun era guztietako makurkerien aurrean, eta gañera etsirik dagola gertakizun aztun auek, datoztenez artzea. Katoliko Langille Gaztedia'k argi eta garaille ikusiarazi dizute, seme-alaba maiteok, zein gezur aundia dan ori.

Katoliko zeratelako, besteak baño azkoz ere geiago dezakerute, ziur-ziur bai zerate azkenean garaille izango zeratela. Egia da bai, gizonen eskubideak zaindu ordez, gutxitzen eta gañera apurtzen dituzten indarra, gezurra eta orrelako biderik ez dezutela zuek ibilliko. Bañan, goitik datorkizute indar ori, Jainkoa'gandik; zuen arnas dezuten Gogo Deunak emana dezute eta onetxegatik zuen eginkizun apalena, zuen biotzen onerako, usten ez dezuten saria izango dute... "Zuentzat eta beste zuen lagunentzat biarko egun zoriontsu eta iraunkor bat gertuko dezute lan ontan bat egini, Berri Ona'ri jarraiki eta zuen kristau-maitasun berceari esker".

b) "Langille" zerate zuek: Kristau langille Gazteak, neska-mutil gazteak lanera joaten diren garaian begiratzen dituala batez ere esan ondoren "...auek lanari ekiteko ikastolak uztean, gizartean zerbeit izango diralako arrosko dira, berenaalen gain itzaropen osoa dutelarik. Bañan laster izango dute buru gañean zaparrada aztun bat; geiengentan oso bizi zalla eraman bearrean arkitzen dira; ajolagabekeria, zigorrra eta ikasbide txarra besterik ez dute arkitzen; erakutsi zatarrak bereganatzen dijoaz poliki-poliki, gizon arteko burruka eta gorrotoa ikusten eta laster galtzen dituzte, batzutan bizirako, beren alaitasun atsegin eta amets ederrenak, eta berealaxe sumintzen eta biurritzen dira. Ori da K.L. Gaztedia'k erabat zuzendu nai duna... Jainko-seme

eta Jesukristoren anai batenak balira bezelaxe begiratu nai izaten dituzute langilleen eginkizunak. Jainkoaren eta gizon guzien onerako gogoz egindako alegin bat"... "Lana besterik ez degula, ola, beste lantoki eta eskoletan ulerrarazterik baleukate zuen artekoak! eginkizun ori lan jatorra eta nai ta naiezkoa bai dezute".

Europa'ko aspaldiko erri auetan, aurrerapen auek gizonen sortu dizkien arazoak erabakitze oso urruti baldin ba dira, zer izango ote da aurrerapen arrigarriak ikusten ari diran errietan, gizatalde izugarriak uri aundieta- ra eldurik al duten eran biltzen baiz dira? Afrika, Asia eta Ego-ameriketako gaztediak batez ere lanbide berri auek jartzen dizkien eragozpen aueri erantsun al izan bearko die..."

Au iristeko, langille gazte auen artean artu-eman geiago bear dituztela, dasaie Aita Santuak. Naiz eskutitzen bidez, naiz aldiskarien bidez, bañan batez ere elkarrekin itzegiñez. "... Erriarteko Batzarra ezin sukeragoan datorkizue... Katoliko Langille Gazte izateak eskatzen dizuen guztia bear bezela beteaz, besteeri aueri emana izan zaizuten sakatasun-deiaren berri ematean, langille "bidali" zerate- nez, orduan zerate Eleizaren egiazko seme".

d) "Katolikoak" zerate auek: "... Eleiza langille gazte- en bearrean dugu, iñoiz baño geiago gaur, Jaungoikoak nai dan bezelakoze mundu batean; guztiak, kaxkarrenaren miñak "bere" bezela artu eta arintzen saiatu liraken anaidia sortu-arazteko, naiz alai edo illum egunean, naiz bikain e- do lur-jota arkitzean, guztien onari begiratuaz lan egin be- arrean zerate, Eliz agintariei seme zintzo bezela auspeztuz.

Gero, guda bukatzean lan ugari egin dala, dio, gaiz- ki diran errien bearrak arintzeko. Eleizak ere lan ontan toki bereria izan dula, noski, Katoliko Langille Gazteak ere asko eta asko dakitela lan ontaz, batez ere langille gazte- en lantze-lan ortan. Gazte auek zein lan ona egin dezaketen azaltzen die, bere bete bearrak bear bezela betetzekotan. Bañan ortarako jakiña, lan egin bearrean izango dirala eta asko. "Garaipenik ez, burrukarik gabe, ongi dakizute". Kris- to oraindik ezagutzen ez duten edo zintzo jarraitzen ez diotenen biotzetan... zuen lana dezute askatzaillea ezagun-

araztea, bere maitasun agindua ixillean eta agirian betearaztea..."

Azkenik beste anaien bearra ikusirik errukitzea ez dala naiko agertzen die, baizik laguntzea, egoera ortatik ateratzea beartuak gaudela, ortarako Jesus'ek egun batez zer egin zun, esanez: "Jon Deun bidaliak bere Berri Oneko entzute aundiko orri batean, bere lagun Lazaro'ren illobira eldurik Jesus'ek negarrari eman ziola dasaigu; Judutarrak, Jesus'en malko auk ikusirik, bere arteko esan zuten: "Begira, zein maitea zun" (Jon, 11-36) Bañan Jesus errukitu bakarrik etzan egin; bere Aitari otoitz egin ondoren, illobiruntz urbildurik, ots sundiz dei egin zun, esanez: "Lazaro, atera adi kampora!". Orduan, illotzik zegona jeiki zan eta Lazaro bizirik atera zan illobitik".

"Milloika gazte dira oraindik, seme-alaba maiteok, eriotza baño lokarri astunagoz loturik: txirotasunari, gezur-rari, eta bizi txarrari lotuak. Auek ikusi, eta negar bakarrik ez egin. Kristo, bere indar eta guzti zurekin dezute; indar onek etsaiei atsera-araziko ditu. Zoazte, beraz, sus beterik biotz oiengana eta Berri Ona zabaldu zaitezute ots aundiz; bai ta ere Jaungoikoak zueri, aientzat ordea, zabaldu dizkitzuten berpizte eta bizi diran itz oiek: "Ene anai, zator egi bidera, zator argira, zator maitasunera", eta sulki Apokalipsis'ko agerraldi artan bezela -itzaldiaren asieran esan detanex- langille guziak gizatalde ezin zenbatuan, saekin bat eginik, beren barne bizitzaren berpizteko goratzarrea abestuko dute: "Katoliko Langille Gazte maiteok, zueri esker egiazko bizia iritxi dugu eta Aita Jaungoikoari eta opalmai gañean eskeiñitako Arkumeari aintza damaigü".

Bai ote da xamurrago itz egiterik? Ederki ikustan da emen Aita Santuaren biotzak beti darabilkin gogoa: Munda-a antzaldatu, illunpean diranak argitaratu, gezurpean daude-egibadera ekarri, toki guztietara, biotz guztietara Kristo zabaldu, guztiei ezagutzera emanaz Kristo eta Kristo bakarra degula gure askatasun, gure bide. Eta ikusirik lan ontan katoliko langille gazteak zenbat dezaketen, batez ere langille artean, ez ditu etxera bialdu aolku eder, mamitsu batzuk eman gabe. "...Seme-alaba maiteok, zuen etxetara itzultzerakoan, bakoitzari izendatu zaion arloan, orain arte baño bero eta bizkorrago ekin lanari, zuek eskuetan darabil-

kizutenaren garrantzia obeki ezagutu bait dezute. Gaur, eta len ere bai, zuetan uste osoa det eta eginkizun aundiak itxaron ditut zuetatik".

Bukatzeko, berriz, oitura duanez, bere onespentak zabaltzen dizkie; bañan, ez aurrean dituaneri bakarrik; mundu guziko Katoliko Langille Gazte guziera, auek aien ordezkari besterik ez bait dira. "Jainkoak bere eskerrez bete zaitzaten, nere onspena zabalduko det: zuengain lenik, eta munduko katoliko langille gazte guztien gain; urruti entzuten daudeneri; zuek onera etortzeko otoitzaren bidez, eskeintzaz edo ukaldiz lagundu zaituzteneri. Batez ere, miñez direlarik, beren miña maitasunez, bear bada oso zaila izanik ere alaiki eramanaz, beren min-saria Katoliko Langille Gaztedia'ren onerako eskeintzen duteneri; bai ta ere langilleeri, zuen lan aundi ori begi onaz ikusten duteneri; zuen arteko apaizeri; zuen sendietakoeri; eta azkenik, zuen gogo edo biotzetan dituzuteneri; bañan, batez ere, zuek irabazi nai dituzuten anai-arreba langilleeri".

.....
ERRI-GIZONAK ELEIZ-LANETARAKO

Beste itzaldi oso eder asko ditugu oraindik Aita Santuak egun berezietan, talde berexieri egiñak. Oraingo lantxo ontan "Erri-gizonen Eleiz-lanerako" (Apostolado de los seglares) II'gn. Erriarteko Batzar Nagusiari egiñaren berri eman nai izango nun, beste aurrekoaren ondoan. Bañan... luzetxo izango zalakoan utzi bearrean izan naiz, ez nere gogoz. Garrantzi aundienetakoa dugula itzaldi au, bertan XII'garren Pio'k ematen diskigun erakutsi ederreri esker, illun ramar zeuden gauz batzutan argi egiten digulako, ikusi besterik ez dugu. Aita Santuak eskatzen digun mundi berri ori iristearren, erritarrak, au da, apaiz ez diran guxtiak, egiteko, bete-bear berexi bat ba-dutela - apaizarekin bat-agerrazrazten digu. Itzaldiak egiteko oratara "zerk" beartzen ditun eta "zer" duten ere argi ikusiko dute.

Ba-dugu gañera beste askoten artean, "Zine, Radio, eta Telebisioari" buruz idazki jator bat, garrantzi aundikoa au ere. Iraillaren bederatzian azaldua. Idazki au, berak dion ez "eleiz-artzai zintzo eta erritar jakintsu batzuek erakutsi eta zuzenbide bearrezkoak eskatu dizkiotelako iru gai

austaz"egiñik du.

Irailaren bostean, Prantzi'ko Seminario trikieta-ko lau milla ikasleei egindako itzaldiak, apaiz edo apaizgai geran guztioi on asko egingo digu, noski.

Irailaren amabostean Jesus'en Lagundi'ko Bilgura Nagusiari egindako itzaldian zer ikasia izango dugu danok, berriz.

Gai guzietaz erakutsi bikaiñak ba ditula noiznai Aita Santuak ikusi nai lukeenak, irakurri beza, Jazkerari buruz Azaroaren zortzian Itali'ko Jantzi Etxeen erriarteko lenengo Batzarrari egindako itzaldia.

Itzaldi irakurtzeko egarriz izan bear genduke: auetan arkituko bait ditugu beti "NI EGIA, BIZI, ETA BIDE NAIZ" esan zuanaren lurrean ordezko onen erakutsi argi, bisigarri eta zuzendariak.

Balardi'tar Ion

Lazkao'ko Beditarra.

(14'gn. orrialdetik dator)

riontsu! Jaunaren delaren erantzutekoan ikasbide jator; apaiz zintzoak! zeruan Jainko-Bildotsaren talde berexia: apaizgai ugari ta onak iritxi bezaizkiguzute, Jaunaren artaldea, artzai ernaiak zaindu ta zuzendurik betiko atseginaiko larre goxoetara iritxi dedilla. Ala bedi.

Euskeratzalle: Muxika'tar Errupin

Lazkao'ko beneditarra.

APAIZGAIEN ALDEKO OTOITZA

XII Pio Aita Santuak egiña (1957 - 10 - 31)

Apaiz eta guztien Artzai zera Jesus Jauna, "egiozute otoitz uztaren Jabeari, langilleak bere uztara bidali ditzan" esanez, otoitz egiten erakutsi bait ziguzun, gure eskariak errukiz entzun; eta zure bizi-bidez bizkorturik eta zure laguntzaz indarturik, zure apaizgo egiazko eta bakarraren morroi ta jarraitzalle izan naiko duten biotz onak pistu itzazu.

Egizu, etsai gaziztoaren maltzurkeri eta iraiñak, gaurko ajolagabekeri eta gorputzekokeriarekin batera, mundutar ez izanik, munduan Jaunaren grazi banatzalle izateko bizi diran orien egitekoari kristauak zor dizkioten begirune eta maitasun sakona ez ditzatela illundu. Egizu apaizgai zintzoak ateratzeko, gazteak kristau-gaietan ikasiak, otoitzeko rako gogatsu, biziera garbiko eta beste orrelako elburu aundietan maitakor izateko egin bear dan lan ori areago ekin dezalogula. Ori iristearren egizu, kristau sendiak bere seme ugaritakoren bat edo beste Jaunari eskeintzea zein gauz aundia jakingo duten biotz garbi eta beroen txokoa izan ditezela. Egizu, zure Eleiz Ama Santuak apaizgai oriek bildu, lagundu, landu eta aurrera ateratzeko lur oscoan bearko dan guzia izan dezala. Eta au dana egi gerta dedin, guztion onaren eta zeruratzearen maitale Jesus! zure grazi eutsieziñaren indar ori betor beti goitik, askoren biotzetan "dei iril" dedin lenik, benetako "baiezko" bat gero, eta azkenik "iraupen" zure morrointzan.

Etzaitu illuntzen, Jauna, ainbat eta ainbat gizon artzairik gabeko artaldsaren antzera, janaritzat zure itza, edaritzat zure grazia zabalduko dienik gabe, zai dituten otso lapurren atzaparretan erortzeko arriskuan Ikusteak? Goldeak oraindik irauli ez ditun eta kardubera eta arantzak nagusi bakar diran ainbat soro ikusteak ez dizu miñ ematen? Etzaitu naigabetzen atzo mardul eta eze, gaur orixka eta landugabe diran baratzak ikusteak? Eldua dugun orrelako uzta, jalkitzen eta lurrera eroriaz galtzen utziko al zenuke, biltzeko besorik ez dalako? Apaiz guztiok aundienik duguna zure esku errukitsuen bidez artu bait dugu; Jose deun aita zo-

KRISTOSTOMO D^{NA}.

APAIZ

Bigarren zatia: Constatinopla^{ko} alkiari Gotzai; bere bizitza.

A.- Constatinopla^{ko} alkiari Gotzai.

Lenengo zatian ikusten genduan Juan izlaririk trebe ta bikaiñena dugula. Bere trebetasunaren berri Sor-talde guziak ba zuan; baña batez ere Antioquiⁿ bere izena aoz ao zebillen, an bait zegoan apaiz.

Constatinopla^{ko} Gotzai Nactario Jauna il zane-an Gotzai-gai asko sortu ziran tema gogorren. Baña aize surrumbillo baten oiartzunak bi izen zabaldu zituan erri guztian: Antioqui^{ko} Juan eta Alejandri^{ko} Isidoro^{rena}. Bi-ak apaiz soilak ziran baña entzute aundikoak.

Alejandri^{ko} Erkaba^k (Patriarka) iñundik iñua Isidoro aulki artan jartzea nai zuan, baña Kaiser edo "Esperadore^{aren}" lagun Eutropio^k auzia Juan^{en} alde eba-ki zuan.

Ortarako ordea bi eragozpen gairu bear zitun Eutropio^k: Juan^{ek} naiko al zuan Gotzai izatea? Antioqui^{arrak} utziko al zioten bere apaiz kutun ura eramaren? Zuzur jokatu bearren zegoan.

Lenen Antioquiⁿ guda-mutilen buru egiten zua-narekin itzezin zuan. Gero, Juanⁱ berarekin alkar-izketa bat izannai sula ta... ,erritik kampora dagon eleiz batera deitu zion. Aurkeztu zitzaionean jendearen ikusmira ta zuz-murrei kasorik egin gabe lasaiago itzegitearren bere zal-gurdira igoarazten du. Ibilladi triki bat egingo dutela ta... berarekin eramaten du.

Lenengo geltokira iritxi diranean bi guda-muti-

llak, jakiñen gañean zeuden auek, artu eta ezertxo ere esan gabe Constatinopla'ra eramten dute.

Garbi ikusten dugu Juan'ek etzekiala ezertxo ere. Inork etzazakean esan arrokeri eta aundi-naiak eragin zio-
la aulki artara. Eta Juan, Jáungoikoaren naia ala ikusita,
Gotzai izatera prest zegoen. Au 339'gn urtean zan.

Hus ditzagun, azaletik bada ere, garai ontako Cons-
tantinopla'ko biztanleen bizitz eta oiturak.

Une artan Sortalde'aren nagusi Teodosio "Aundia"
ren seme Arcadio zan. Pipiak azpitik zugirindutako abe berri-
aren gain zegoen kaisalderia. Pipak zizkatua zeukan bere ai-
tarengandik zetorkion guda-lanetarako trebetasuna eta kris-
tautasunaren muña. Aitaren sema ez zirudin.

Batzu batzuek Jaungoikoa'ren aurka lanean saiatzen
ziran. Beste batzuek kristau izena izena besterik etzuten;
erriaren oitura lizun da errexetara jarriak zeuden-ta. Bañan
ba ziran kristau orak ere; bere bizitzan bear bezela jokatu
ta Jaungoikoaren alde beren odola, ala bear izan ezkerro, e-
mango zutekenak berem sinismenaren ezaugarritzat.

Zusenbiderik etzegoan. Gaur txaloka eta algaraka
goresten zutena biar iltzeko prest zeuden ta egun batean
nagusitzat aukeratu zutena urrengoan ostikopetu ta iraindu.
Itz batean esatekobasa-piztiak ziruditen. Espa zuten biotza-
ren asegarri.

Aundi-nai eta diru-irrikak edozertara jartzen zi-
tuan. Ni aberasteko suzokoa il bear al dut? Il ta pakea. Ni
anpatua izateko lagunak galeraxten al dit? Gezur batzuk as-
matu ta kitto. Nai zuten gustia egiten zuten Kaiser'k eta,
Kaiser'en laguntzalleak batez ere.

Toki onean sartu zan gure apaiz santua! Mingain
azkarra zuala, baña... zerbaiten bearra bazuan enda ajolaga-
be ura zuzendu eta bere animetan kristau sinismena esnara-
zi ta sendo azi zedin.

B.- Bere bizitza

Krisostoma Deuna "Guda-oiak"

Idazti deunak Jesukrisorengatik esaten digu: "Bere giza;asko Israel'en galduta eta asko piztu ditezten, guda oialtzat jarrita dago au" (Luk. II, 34) Apaizak ere, Kristo bera izanik, auxe izan bear du, "Guda-oial" (signum contradictionis).

1) Bere beartasun eta lagurkoarekiko maitasunean.

Len esan dugunez diru-irrikak edozertara jartzan zituan gizon aien biotzak. Baña Juan'ek bere ondasun guziak txiroen artean banatu zituan. Gero Gotzai-etxea amaitzeko ekarrita zauden gaiak saldu ta diru guztia beartsuei eman. Baita Gotzai-etxeke apaingarriak ere (Nectario jaunak aundi-naiez puzturik erabat apaindua bait zeukan) saldu eta txiroei laguntzen saiatu zan.

Bitartean apaiz asko andre aberatsen bat gelditu zala jakiten zutenean, diruz zaleturik, berari laguntzeko aitxakiarekin alargunaren etxera joaten ziran. Euren etxetan bizi ta artu-eman aundiak izaten zituzten. Au zala-ta errian zuzmarru txarrak zabaltzen ziran, naiz askotan arrazoirik ez izan.

Jaun'i bere anai apaizen joka-bide onek naigabe aundia eman zion. Aita ta anai zan lez, gaitz au zañetik ateratsen saiatu zan, baño alperrik. Biotz gogor aietan beraganako gorroto bizi erne besterik etzuan egin.

Jan kontuan ere ezberdin bera billatzen dugu. Mota guzitako janariak izaten zituzten asegarri. Juan'ek berrix, egumeroko janari aspergarriak. Ur geza edaritzat, ardo tanto batzuekin bero errea zanean. Ta jai aunditan basa-angaitzen igali bakar batzuk. Benetan otordu labur ta merkeak. Eta berauak...?

2) Beti zuzen jokatus bere eginbeartetan.

Garai artan gaikille beten atzetik zebiltzanean au Eleizan sartzen ba zan, etzeukaten gaitzik egiterik.

Bein batean Eutropio Jauna alargun baten diruas jabetu nairik arrapatzeko agindu zuan, baña emakumea eleiz batera sartu zan da etzuan ezex egiterik izan. Txoritoak eskutik aldegiten ziola ikusirik, legearen aurka arrapatzeko agindu zien guda-mutillei. Juan zai zegen ordea ta, oraingotan otsoak arkume irentsitzerik etzuan izan. Ordu eskero Juan'enganako gorroto bizi bat sortu zan aren biotz espatsuan.

Baña iritxi zitzaion Eutropio'ri ere zoritxar ordua. Ta egun batean Kaixara Eudoxiak (zergatik ez dakigu) Arcadiofen aurrean salatu zuan. Onek eriotza begira aurrean ikusirik al zuan bezela "anka" egin zuan, eta eleiz baten sartu zan. Berealaxe bere lagunik aundienak ere salatzalle biurtu zitzaizkion. Erri guztiak ura iltzea nai zuan. Otso amorratus arkune otzan bat bezela zegon aldare azpian kuzkurturik. Arrika emandako txakur bat zirudin.

Baña berriz ere Juan'en irudi agurgarria altza zan bere etsaiaren alde. Esan zezakean: "Atzo orixe bera egin nai uken, konpondu adi orain nai dekan bezela". Baña ez, Arcadio jaunarena aurkeztu zan, eta Eutropio'ren alde itzegin zion.

Triki edo aundi, saar edo gaste, denakin zuzen eta kementsu jokatu zan.

Bere egin-bearrak argi ta garbi ikusirik mingain ura ezin zitekean ixilik, lotuta egon. Eta "egie" esate onek etsai asko sortu ziskion. Askotan agintarien aurka altza zan, beren oitura txar eta lizunak aurpegira botaz. "Egi" zale zan. Garrantza edo gozoa, egia ba zan, beraren alde jartzen zan.

Azkenengo aldiz Constantinopla'tik Arcadio'k jaurtitseko agindu zuanean, erantsun au bialti zion: "Jaungoikoa-gandik artu ditudan eskubide auek ezin nezaske alde batera utsi. Ni aulki ontatik jaurti edo ez zure eskutan dago, baña gogorrean bialti bearko nazu. Ta zure errua Jaungoikoaren aurrean nere zusenbidearen esaugarri isango da".

Iritri zan ordua ta Juan'ek, errian odolik ixuri etzedin, ixilka aldegin zuan. Basamortura zijoalarik eriotza zetorkiola ikustean geldi-aldi bat egin zuan. Zemazkin gauzak guda-mutillai banatu eta eriotzaren zai jarri zan.

Begiak zerurantz jasorik "Goratua izan bedi Jaungoikoa" esan zuan. Gero "Gurutze santuaren..." eginda bere anima zerura egatu zan. Onela il zan Juan 407'ko Irailaren 13'an.

Labaka'tar Iñaki

Donosti'ko teologilaria

LITURJI- OTOITZA

Sarrera gisa. Atsegin aundiz irakurtzen ditut Guardini'ren idastiak. Pentsalari sakona dugu benetan Guardini! "Barne-aztertze" deituko nioke nik. Ba-daki bai, gure gizaldi onek ere ale mardulak ematen!...

Idazle ospetsu onen liburu bat azaldu nai nireka lan ontan: "Der Geist des Liturgie" (Liturjia'ren gogoa) idazpurutzen da. Izango dira bost urte lenengo aldiz lenengo aldiz irakurri nuala. Txirla-arri bezela gorde dut nik liburu au irakurri emanetik. Bai liburu sakona!

Liburu osoa laburpen bakarrean ematea geiegi litzakla-ta aski izango dugu gaurko lenengo atala.

Guardini azter-lanean Gaur egun mota askotako otoitzak asmatzen dira. Asmatzale auek oso gogoan artu bear dituzte liturji-otoitzaren arauak, otoitzkera guzien eredu bait da liturji-otoitza antsiñako esaera batek diguneez. Nola jarraitu ordea liturji-arauak aurretik esagun espazaiskie? Ona emen gaurko liturji-otoitzkera antolatsalleen lenengo eginbearra: liturji-arauak ezagutu. Auxe egin nai digu Guardini'k "Liturji-gogoa"ren lenengo atalean. Ezu axalean gelditu nai. Barnera jotzen da. Eta begi zorrotzez liturji-otoitzaren barnea aztertzean puntu buruntxo auek arkitsen ditu:

1º.-! Adimen-pean naimena: Buruauste gogor baten aurrean arkitsen da liturji-otoitza: Ezta MI'a liturjiaren baita; GU'a baizik. Eta jakiña, gu sabal ontan era askotako gizasemeak sartzen: jakintsu-erjakin, sentikor-adimenkor, aberats-beartsu, baikor-ekkor, an-or-emengo... Nola ase ja-

nari bakar oen bides jende ezberdin auek? Osa nola eskatzen dun liturgia'k korapillo au.

Naimenak -sentimentuak- eztezake Litujia'k bear dun orokortasuna eman. Bear du ordea Liturji-otoitzak naimenaren berotasuna, liturgia otoi danes "biotza Jainkoagana altxatzea" besterik ez bait da. Baña adimenak eman de-nake bakarrik Litujia'k eskatzen dun orokortasuna. Adimena-rekin eta naimenarekin bear du Litujia'k jokatu. Ta bai e-derki jokatzan zaigula!

2º.- Egia Liturjia'ren oñarri: Sentimentuak ea-baña egia bakarrik eman dezaioke Liturjia'ri orokortasun au. Osoak eta bete beteak egia! Egiz ifuntzen da Liturji-otoi-tza. Egia esaten dio Liturjia'ri bere kemena, bere indarra. Liturjia'n katoliko dogma osoa arkitzen dala esan liteke. Katoliko dogma otoi-jantziz apainduta: auxe dugu Liturjia!

3º.- Liturjia, neurriko otoizkera: Sentimentuen ager-tzean oso neurriko arkitzen dugu Liturjia; sentimentuak bai, baña izatekotan neurrian. Gutxitas gainex egingo ditu Li-turjia'k barnean daukan labe gorriak. Salmoak adibidez, go-tzitan galtzen dute beren giro paketsu ori. Baratasuna! Oera Liturji-otoitzaren giraa. Liturji-otoitzak legorra dirudi eskotan. Estiela gure hizitasaren ardurari erantzunik esaten esango genuke. Baña gutxian uste dugunean, gure bio-tza searo sututa gelditzen da. Kendu zaio estalkia laheari, ta Liturjiak barnean zeukan sugarra azaldu zaigu. Orduan sentitzen dugu Liturji-otoitzaren aunditasuna.

Liturjia esta sentimentu sailletan sartzen. Baku-nak dira Liturjia'n agertzen diran sentimentuak.

Berdin gertatzen da Liturji-mintzoerarekin ere. Liturjia'k estu mintzoera jasarik erabiltzen. Egia sako-nak isanda ere, gusiek ulertu dezaketan eran mintzatzan da beti.

Neurri berbera sifastunoi eskeintzen diakigu e-rabakfetan ere. Eain dezakegu Liturjia'ri etika-jomuga ken-da. Baña Liturjia fintasun-eredu dugu alde ontatik begira-tuta ere. Estigu era bateko erabakirik eskatzen, bear bearrez-koak espedira beintsat. Zuzur eta urgoi dugu Liturjia. Eskatzen diskigunak gorengoegiak diranean, otoita-eran i-

pintzen diskugu, ez erabaki-eran.

Zergatik kontu au? Bai arrigarriro agertzen dala eman ere Liturgia'ren zugurtasuna! Onako arrisku ontan arkituko litzake notia, liturji-bide ontan sartuko ba' litz: lenengotan egi-egiz artuko litzake notiak sentimentu ta erabaki oiek bere bizitzako giltzegi oiekin konpontzako alegiañk egiñaz. Gero ordea bere bizitza ta erabakiak bide ezberdinetik dijoaztela ikustean, bere barne-zintzotasuna galdu egingo luke; gezurrezkoak izango lirake bere sentimentuak; eta atzenean elieke Liturji-itzeri jaramonik egingo; eluke ezer benetan artuko.

Liturjia'k ondo garbitzen du arazo au, erdi-bide bat artuaz. Sentimentu gallurreretaraño eramanez, ezio notiañari leialtasuna kentzen. Ta bearreskoa du izan ere Liturjia'k neurri au. Mota askotako notiak arkitsen dira Liturji-batzarrean. Notiañ oiek berdin egunero-egunero egin bear date otoitz ori.

4^a.- Aurrerakia: Liturji-otoitzak oñarri au dauka: "ne bis in idem". Beti aldatzen, beti aurrera dijoa liturjibizitza. Eztu bir-esatea maitea. Ujol indartasun halits aurrera eraman nai ditu gure biotsak. Adimen, sentimen eta naimenaren aurrerapenera jotzen du. "Ne bis in idem", beti berri-tzen, gogapen berriak, nai ezberdiñak, irudi berriak. Eta e-rriaren otoitzetan onela gertatzen. Erriak geldi-otoitzak maiteago izaten ditu. Maiago du adimena idea bakarrean jarri, askotan baño. Idea berdiñak, sentimendu berdiñak... estu naasketarik nai. Errosarioa, letanik ditugu otoitzera onen eredu. Joanga ezberdiñak daukate otoitzera biak. Ezin ditazkagu alseer esetsi. Biak ditugu bearreskoak. Nik liturjia'ren aunditasuna goratu nai nuke esen. Gizonak, egites, igitasuna bear du. Kragiñezko parte-artesa! Garrantzi aundia ematen zaio gaur egun egi emi liturjilarien artean. Gaurko liturji-bolarak egi au artu dula oñarri besela esan ditke.

5^a.- Isadia eta kultura Liturjia'ren oñarri: Barne-bizitzak isadia ta kultura eusgarri ditu. Isadia bastergabutzen badugu, estaukagu barne-bizitzari. Tacliji-esaera zaar batek diguen "grasiak isadia darama" (supona). Bear bearreskoa bakarria dala erakutsi digu Elizak: Unus necesse-

rium". Alere estu izadia ezetsi. Obeto esan gisaldietan zear izadiaren iagontzalle izan dala, baieztuko genuke. Liturji'aartu dezakegu egi onen agergarritzat. Gizon osoa agertzen da Liturjia'n, ez ideakisteen gizona. Liturjia'k eztu gizonaren izatea puskatzen; dan bezelaxe agertzen da gizonaren izaera, ezer iskutatu gabe. Onelaxe bear gañera. Bestela izadigabeko otoitza berealaxe igartuko litzake. Gure otoitzak egitasuna ta berezkotasuna galduko lituzke.

Beste egi bat ere azaltzen digu Liturjia'k: kulturaren bearra. Kulturak eztu barne-bizitsa ematen. Baña bearrezkos dugu kultura barne-bizitza askortzeko. Kultura gabeko goi-bizitzak berealaxe iur-joko du. Goi-bizitzan bati iraunarasteko kulturaren laguntza bear dugu. Emen ere Liturjia saigu ikasbide. Liturjia'n utzi dituzte gizaldiak bere arnaririk onenak. Ontan ari da Liturjia gisaldietan zear: iztegia garbitsen, idea-sailla zabaltzen, mintzoera "estilizatsen". Liturjia'n arkitzen dira gizonen kultura-aberastasun guztiak. Kulturaren onñafi igi-ezinean eraiki da liturjia.

Bukatuz... Liturji-otoitzaren alde berezienak aztertu nai izan ditut Guardini'ren liburu zoragarriari narraikiola. Alde batzuk, garrantzi aundikoak izanda ere, ez ditut gelegi azaldu. Guardini'ren liburua bera ere ez-tugu osotzat artu bear gai ontan. Guardini berberak saiaketa (ensayo) deitzen dio bere liburuari. Izan ere, liturji-otoitzak alde asko dauka, eta ezta erreza guztiak batera azaltzen. Baña bai, garrantzi aundiko lana auxel!

Aperribay'tar Joxe Luis

Arantzazu'ko teologilaria.

LEGEARI BURUZ

Ascaaldi luzetik, euskeraren aurka amaika esamesai ekin dioete etengabe ainbat eta ainbatek. Benetan milla maxio-goraberaen mendeagalanki astindua ikusi oi dugu euskera azken gizaldi ontan batez ere. Ba-dira noski, an-or utzumutuka zalapart triskanbil gorrian, euskerari edozein gaietara eratze edo moldatze ori uka oi dioetenak. Au egi ote? Biots-muinetan min dut, baña... jo dezagun egira, lotsa astindu dezagun. "Yakin" aldizkari ontako batek ziona, nik ere aitortu bear; alegia, euskera ez dugula berez ain moldatu edo erabilli-eziña, euskaldunok gure alperkeriz erabilli-gaitza birtu dugula baizik. Ta au bai egi biribilla. Arraio alenak! Urte askotan beintzat, ia antzu eduki dugu; euskera-soroan gu tri jardunak gera, gaiak berak exkar astarrikatuak, pilosopi eta teknika saillean ere, nekez ikusren ditugulan bi, ta... jakiña, ta gero euskera egokitasun edo era-moldatze gutxiz urinitua dagola... Iskuntz erabiltzeak damaioke euskerari its-joskeraren ugaritasuna.

Egun-egunko ditugun gai-soroak oro lan ta jorratu bear ditugu. Bestela zer? Euskeraren galera eta euskaldunon parragarrikeri itxusia! Ongi dakigu zein ioria dan euskera, bañan... baita ere erdoitua egon dala edo pittin bat. Euskal arnasez bisitu bear dugu gaur egungo bizi guatia; mixtu gure euskera xamurra, oraindiño apur bat erderatuak gaude, egi-a esan. Baña suma dut euskera-min gaudela, euskeraz mintza, arnas gura dugula. Au olan dalarik, txalogarri benetan "Yakin" en lana. Ar bitza ba ene zorion beroenak!

Asmo auek jarraiki, ni ere atea idekitzera nator.

Filosofi-sorcan euskera landu ta jorra-miñez nuzue. Ez da lan erreza gai ain sakonak xamur-xamurkiro azaltzea; orre-gatik, ba-litxke galdi-ardatz erdoideiak lez, aldiz-aldi musikala latz egitea; baña tia... alegiñak alegin, goruntz be-ti ekin! Gaurko nere saica legeari dagokio; gai au garran-tzi biatikoa ere, ta gaur-gaurkoa. Ar ba, irakurle, ene pilo-sopi-gogai apur abek.

Itzaurrean luzatu ba-naiz, barkatu.

o o o

I.- LEGEA ZER?

Lege, itz au, ansika bider erabili oi dugu bor-bor gure aspaiñetan. Lege xarrak, lege berriak di-rala-ta, kuxi-maxio pranke egin oi dugu. Benaz, gure bisia legepean dijoa, bere jo-muga eskuratzearren. Zentzunak ar-giro dasaigu zerbaiterako jarriak izan gerala bizi-toki onetan. Gaus gustiak lez, gure biziak ba-dauka izate-arra-zoi bat; benaz, Jaungoikoak elburu edo ja-muga batera zuzen-du ta makurtu bait zituan bere izaki denak. Eta gizonak jo-muganako joera ori izaki, ser-nolako bidez zuzentzen da bere jo-muga oneruntz? Lege ta bidezko zentzunaren bidez, alegia. Legea ez izaki, ezin jo guk gure jo-mugaruntz. Or-duan, gure bisia saltsa-maltsa parragarri bat litzakelako baizik. Au eduki bear noski, gure biziaren zear aldi oro nola jokatu jakitearren. Lege onen esaupidara iritxias, Jainko-nai santuaren jakitun giñake. Geroan esango dugun lez, gizonak, esagueraren mende dan orñako, bersala biotz-bar-nean soma oi da izamenak edo naturak beregan ezarritako legea. Onezkeroz, on litzaguke, nere aburuz, legeari dagokion zeipen edo definiziño bat ematea. Ona ba emen al eran nere-nerek labur-labur tajutua: "Altasun egokiak, guzian onerako, dixurkigun bidezko agindua". Au da, aal au dun agintariak, betearazten dan zentzunesko agindua, baña jakifña, gusion o-nerako dan agindua.

II.- Zentzun edo BIDEZKO AGINDUA.

Zer dala-ta deitu zentzunesko agindua? Alajañe!, au ere ba egi argi-argia nos-ki. Legea, benaz, ainbat eta ainbat anker, auzdikputz, arro-xka, edo odol-ixurtzallisen griñ-tzar ez, zuzenbidezko egin-tarien agindua da baño. Alegia, legea edozein karkarin e-do otso amorratuen agindua izaki, nola zentzun edo griñe

gabekoa esan? Nola, obenari onbide deitu? Nola mendiko iturriak esti gozatsu baten jario al izatea gura izan? Au al perrrikako, ta burukeri parragarri litzake. Arraioa! Ortara ez al goaz ba? Gizonak, griñ txar eta aspikerien menpe dagonen, griñ oien joera da. Bere adimen eta naimena griñ txarrez itxumustuta dagoz, ta jakiña, bere egipen eta aginte guztiak griñ-kutsu ori darite. Ona ba emen tamalaren tamala ta okerraren kalte gorria! Bearrezko saigu, legeari dagokion lez, zentsun bidez jokatzea. Areago oraindik, au da, zuzenbidez edo justizi-premiak daskaigun lez jokatzea. Zentsunak ba-du emen, nun osatu bere elburua. Gizonak, zentsudun edo adimendun dan eskeroz, gaus orotan kutsu goitar ori erabili eta adierazi bear noski. Legeak, bere izatez, daskaigu zuzen-jokatze au, bestela zuzenbidea bereala oinperatu ta amildua ikus litzake.

III.- GUZTIEN ONERA ZUZENDUA

Agintaritzan daudenak, menpekoen onera zuzendu bear alegia beaien alegiñ guztiak. Agintari menpean dagon gizon-saillak ba-ditu bere bearrak, agintariak zapustu eta saztu ez ditzazkenak. Agintariak, ez gizon bereiziari, saillari dagokionez baizik, eman bear ditu legeak ere. Arrazoa eman: batzutan bati on litzaiokena, saillari kalte litzaiokelako; gañera, lenen-lenen gizarteari begira bear saio, bereiziari ez ordea. Au olan dalarik, ongi dasaiegegu legea gusien onera zuzendu bear dala. Au ta olako legeak sarritan nekagarri eta itxura gaixtoko zaizkigula, zer egingo! Gizon bereiziaren nai-bearrak latsak, baño, gizartearenak areago. Legearen izate-arrazoi bat au da: gusien onera zuzendua egotea. Bestela, Jaungoikoak legeari jarri dion elburuari uka dagioke, ta jakiña, au okerbidez.

Aita Santu Leon XIII'garrenak "Sapientiae Christianae" deritzan idaxtiam onela mintzatsen da: "Legea, bidezko agintariak zuzenbidez gusien onerako ematen dan agindua baizik ez da".

IV.- LEHENGO ETA LEGE GALLEK.

Guk, gizonok, jatorriz edo naturas, laster dakusgu zer gauz on edo zillegi zaigun, eta zer oker. Ongi dasaigu ezaguera onak, berenako edo sortzesko lege bat ba-dugula, eta orratio! ez erruz jarria, Jaungoiko berak gudan ezarria baño. Au, nola testatu edo agitzan onartu?

Etikak sortzekolegeari dagokion zatian, ba-dakarzki bere arrazoi sakon-sendoak. Ona emen aietako bat: Gizonarengan Jaungoikoaren naira ezagun izatea Berari dagokio; gizona, sortzeko lege bidez, Jainko-naiaren jakitun bait da; ortaz, gizonak sortzeko edo natura-legearen (1) berri du. Bestea: benetan, berezko zaio gizonari, zer gauz on, zer gauz oker dan igartzea. Areago oraindik, bera jakitun da alajaña!, Jainko, guraso eta aberriari zor zaion maitasun orretzaz. Baña, au mundik-nora, zer dala-ta alegia? Natura-legearen bidez, joera arrigarri onen bidez. Natura-lege au ez izaki, inñolaz ere guk ez igarri okerraren gaitza, ta onaren ezta. Ta natura-lege oni buruz, geiago oraindik. Jaungoikoak, ainbestean ornitu eta sendotu zuan lege au, beraren agindu-austeari zigor beltz bat ipintzeraño, alegia. Berak zion gizonari: Oker bidez jokutzen baduk zigor; ostean, sari ukek eriotz ondorean. Ill ondoren alegia, bizi onetan zorion ta zoritzarrak nahas-mahas gaizto ta onen artean banatuak baidaude. Arrazoi auek aurrez-aurre ditutalarik, ongi dager natura-legearen garrantzi-lenentasuna. Lenengo lege alegia, Jaungoikoarengandik zuzen-zuzenik ixuri ta, biziaren kear, onen bidez gauz denetan bear dan lez joka oi dugulako.

Lendanik esana dugu, lege onen bidez, biotz-barne-tan argi-argiro suma oi dugula onari ekin eta okerrari zaputz dagokiola. - Arrazoa azaltzera nator. - Lege au naturak emana dugun ezkeroz, inñorengandik ezin etorri, Jaungoikoarengandik ezik. Berak egin guzia, ta Beragana makurtu bear ere. Zortzeko legea ba, Jaungoikoaren abots baizik ez da. Izan ere nolabait azaldu bear bere naira Jaungoikoak. Gauz batzuk, geure onerako, bestetzuk gaitzerako diran ezkeroz, aldi bakoitzean natura-legeak zentzun zuzen orren bidez dasaigu xeri ekin, xeri zaputz. Bestela, lege onek indar bultzadarik ez luke, ta aundi-lenengoa ez litzake.

Baña orain, gizon-aginduak mundik dakarzkigute bete-bearrasteko indar edo almen ori? Egi esan, sarritan beintzat, gizon-agindupean egon oi gera. Baña, au zer demontres!, zer dala-ta? Ona emen korrika, baña bai ongi ariña. Jaungoikoak natura-lege oni almen asko eman dizkio, ta aien artean agintaritzako au; gizonak, emaitz onen bidez, agindu dezake au ta ura, bete-bearrak sortu, eragozpenak jarri, ta abar... Au ezik, gizartean gauzak nola zuzendu? Ainbat itxillu ta itxura gabeko nasketetan zer egin, nora jo? Gizartean naitanaiez-

ko ba, agintari, agindu, ta beste onelako ixtori-bear guzik. Gañera natura-lege onek geure bidezko nagusiei menperatze-arren agindu dagigu. Austin doneak dotriñ oni buruz onela zion: "Nere aburuz, zuk dakizu, gizon-lege onetan ez dagola natura-legegandik artu ez dan ezer zuzenik, ezer bideskorik". (De lib. arb. l. l, c. 6)

Aurrera jarraituaz, oraindik esan dezakegu, gizonak kidekoen bidezko aginduak betetzean, ez duala osatzen Jaungoikoaren naia baizik. Bañan, lotsagarri ez ote, kideko zai-gun agintari zuzen au Jaungoikoaren ordeaz dagoala. Ekin eta aztarrika dezaiokegu berriro arrazoiari. Lendanik azaldua dago gizon-legeak bere indar-kemenaren iturburu oso-osea natura-legean dutela erabat, eta natura-lege au guk izamene-an itsasita daukagula ere. Ortaz edozein gizon-agindu bete-tzean Jaungoikoari menpeko gatzaiskio ta ospe damiogu. Ba-ña agintariari indar orregatik bate-bear estu bat datorkio benetan. Onek, Jaungoikoaren izenean ekin oi duan ezkeros, Jaungoikoari dagokion eraz jokatu bear du. Alegia, zuzenbide-ari jarraiaz, ta legeak zintzoki erabilliaz. Orregatik zioe-ten apostoluak: "Obe da Jainko-mendean egotea, gizonarenean baño".

V.- BIDEGABE DAN LEGEARI ZER?

Au ikusiarren, oraindi-ño legeari ainbat t'ainbat gauz gertutik dijoaskio. Adi bi-dez, zintzo edo bidegabe dan legepean ba-gaude, menpetasunik guk legeari zor ote? Erantzun gogor ta zorrotz bat egoki eman. Lendanik jakitun gera legea bidezko izan bear dula, bestela ez litzakela lege; ortaz, bidegabe dan legeari menpe-tasun etzaio zor. Benaz, legearen esan-naia ematean, zeatz-meatz azaldu gemun, legea zintzo izatekozuzenbideari dagokio-nez jokatu bear dula. Orregatik, okerbidez dagon legeak, aalik ez, indarrrik ez noski bere aginduetara, bete-bearrazteko. Barne-muñetan geldi-geldiro murkatu ba Leo XIII garrenaren itz baliötsu auek: (Diuturnum I 142) "Aldi batean bakarrik gizo-nak legeari menpetasunik ez dio zor, au da, goi ta giza-esku-bideari uka dagon zertzobait agintzen zaionean; jakiña, na-tura-lege ta Jainko-naia urratzen duten gauz guzti oiek, ez dira ez agindugarri, ez merpegarri".

Ta... Eliz Amaren aurka dijoan legeari? Orain gau-zak Kristau lez ikusi, lege okerrak gutri lesake. Fede bizian

da gon kristauak, irakin-diraki onezkeroz. Soro onetan bere fedeak asko daskaio gero. Ez gabiltz ia txantxetan, ta gauzak ere erabaki bear biziro batera edo bestera. Benetan, Jaungoiko, Jesukristoren irakaspen ta Eleiz Amaren aurkakoa dan legeari, eutsi, bultzada gogorrak egin bear kristauak noski. Oraindik geiago; kristauaren lege onenganako menpetasuna, bere fedearen oker aztun litzake. Aita Santuak onela dio berriro: "Baña estaduen aginduak Jainko-eskubideari aurkakoa ba-lirake, ta beaiekin Eleiz Ama, erlijio bete-bear, ta Jesukristo ta Aita Santuaren agintaritzari min balitzaioke, orduan aurka egites naitaniezko, ta lege-menpetasuna pekatu litzake; gañera, gizarte berari au kalte litzaioko, Erlijio aurka jokatzea Estaduaarentsat lege-austea dalako noski".

Estadua Jainkoari aurkatzeko almenik es noski. Egi da bai Jesukristok diona: "Eman zesar'i Zesar'ena, ta Jaungoikoari Jaungoikoarena", au da, Eleiz Amari berea; baña, arretaz oartu, bi jauntxo auek erkatuta Eleiz Ama ez aundi, aunitz bider aundiago dala baño; eta jakiña, bere aginduak indar-bultzada bisia goa gizonaren gogoan.

Onera ezkeroz, ez erio-dardaras, esta ittun-negar-muxiokas, poz ixurika baizik, kristau sendoari dagokion gisan alegia, oju ozen egitera nator. Zer dala-ta ba poz arnas-al-di osasuntsu auek? A-, kristau gerala-ta, Estaduaren amurru-petik igesi desakegulako. Zorionez, Eliz Amaren magalean ba-besturik geudela, zenbat bider ajolik es eman dezakegu xillegi ta itxurasko ez diran aibat lege parregarriei.

Amaitu naiaz eta gaia arrotzen jarraituaz, arrisku auetan sintzoki jokatu nai duan kristauak, zer egingo? Guzia jasan, eta erietzaren garratza bera miaztu bear bada ere. Lenen-lenen, Jainko ta Eliz Amaren ikurriña etsaien oinpetik askatu, ta gure odolaren tanto beroekin bera busti ere. Kristauak gera lenen, gizonak gero. Etsaiaren ekaitzaldiburrumbadak zenbat gogorrago, gure burruka aibat latzago. Leiazen-leiaz salba dezagun ba, gure fede marcul-santua.

Muxika'tar Joxe Luis Anaia
Villaro'ko Sakramentinoa.

(1) Sortzesko lege ta natura-legea berdin dira.

MARIAREN

BIRJINTASUN- ZIÑA?

Teologilariak geienetan Maria'ren aberastasan-koroia osatzean pitxirik ederrenetakoetan ezartzen dute Kristo'ren Amak Jaunari aurtzarotik egindako bere birjintasunaren eskeintza. Izan ere itxuraz ala bear lukeala dirudi, gizasemearen bi-tartekotasunik gabe Jainko-Gizona argitara eman be- arko bazuen. Jaunak bere gauzak alik bidezkoen eta egokien egiten baiditu. Ebanjelioak-berak ere la- gun zuten orain arte onela pentsatzen zutenak.

Orain ordea gauzak sakonki aztertuaz, or- duko oitura, idazti, lege eta abar erabilli ondoren, Ama Birjiñaren birjintasun-ziñ ori ez omen da iñun- dik ere azaltzen ezta ebanjelioetan ere. Nunbaitetik artuta exegesilari berri oien arrazoiak banaka es- keintzen ditut. Irakurleak jakingo du nora jo, o- raingo berriekin edo leenagokoak siñistuarazi ziz- kiguten dotriña errexekin.

... "Virgini desponsatae viro"(Luc., 1,27)

Errenkada batzuk aurrerago ebanjelio- zati onetxek Maria'ren kezkek aingeruaren berriari, azaltzen dizkigu: "Quomodo fiet istud..." (Luc., 1,34) Itz oiek eta "Virgini" onek eusten dute geienik Ma- riaren birjintasun-ziña teologilarien iritzian. Versikulo biak aztertuko ditugu aldi artako oitura legeen argitan.

San Lukas'ek bere ebanjelioa gerkeraz idatzi zigun. Latiñez "Virgini" dion itza gerkeraz Lukas'ek "Parthenos" ipiñi zuan. Beraz "Parthenos" orren esan-naia jakin nai badezagu, antziñetako li- buruetan dago oso argi itz orrek bi adigai dituala

eberkerara aldatzean: "alma" ta "betula"; bi eber-
-itz auek gerkeran itz bakar ontan esaten dira:
"Parthenos".

Eberkeraz ordea "alma" ta "betula",
"Parthenos"-en batzen diran itz oien adigaiak ezti-
ra ain berdiñak. "Alma"-k esan nai du: "ezkondu au-
rretiko neskatxa gaztea". "Betula" esatean ordea,
"birjintasuna", gorputzaren garbitasun ori adieraz-
ten dugu.

Esanarekin argi dago, San Lukas'en "Par-
thenos" arek sentido bi gorde litzazkela.- Ebanjeli-
o-egilleak zer esan nai zuen? "Alma" edo "betula"?
Orain arte exegesilariak "betula" artu dute beren
teoriak jasotzean; zer dala-ta ordea?- Guk guretzat
San Lukas'ek "alma" ziola nai badegu esan bearrik
eztago antziña-zaleen oiñarria lurrera datorrela.

...eta artu al dezakegu "Parthenos" itza
"alma" adieraziz?- Aldi artako oituren jakiteak
galdera oni baiezkoa erantzutera eragiten nau ni
beintzat.

Oiturak.- Maria bizi zaneko garaian bir-
jintasuna etzan gaur guk kristau-begiz ikusten de-
gun birtute zoragarria. Ez da iñundik ere agiri a-
ro artako neskatxak Jaunari eskeintza ori egin oi
ziotenik. Gurasoak neskatxa bein amaika-amabi urte
ezkontzerako prest euki bear zuten, guraso lotsaga-
rritzat artuko baitzituzteken bestela ezagunak; au-
xe izan ere zan erriaren kontrako pekaturik astune-
netakoa.

Garai artako rabinoen erakusaldieri begi-
radatxo bat ematen badiezu, bereala ipintzen dizki-
zute nun nai agirian oitura-lege auek.

Eztai-oiturak ere zerbait argituko dizki-
gute ebanjelioren itzak.- Eztaiak bi aldiz zituz-
ten, ondo bereziak bata besteagandik.

Amaika urtez neskatxa mutil gazteari es-
keintzen zitzaion; "eskeintz"-garaia urte betekoa
zan. Garai ontan neskatxa mutillarena zan senar-e-
mazte bezela; etzuten ordea senar-emazteen aragi-
baimenik urte ori igaro ondoren neskatxa mutillaren
etxera etorriko zan egunera arte. Ontan bakarrik oi
ziran senar-emaztegai "eskeintz"-aroan. Beste guzi-
tan senar-emazteen eginbearrak zituzten; onela, bi-
etakon bat ilko balitz bestea alargun litzake; bes-
teren batekin balijoa bata edo bestea, ezkondu on-

dorengoak egiña beziñ astuna izango litzake pekatua.

Arau ontan biak bata eta bestea eztaiegunetarako gertu bear ziran, "birjintasuna" batez ere ardurarik aundienaz gordeaz; eztaigauan lenen goz urratuko zan birjintasuna.

Ondo bereziak daude juduen ezkontz-oiturretan bi aldi ok: eskeintza-eztaiak. Eskeintzak oraingo senar-emaztegai izateak baiño askoz ere indar gelago zuen, ez ordea senar-emazte izateak beste.

Ebanjelioak dionagatik Maria oitura kontuan artu ezkeru "eskeintz"-aroen arkitzen zan artean Jose'kin. Ona emen Mateo'ren itzak:

"Cum esset desponsata Maria Joseph, antequam convenirent, inventa est in utero habens de Spiritu Sancto" (Mat., 1,18).

Euskerara nik orduko oiturak aitatu ondoren, onela itzuliko nituzke itz oiek:

"Maria Jose'ri eskeiñita zegoala eztaiaurretik aurdun azaldu zan...".

Mateo'k nunbait Lukas'ek baiño zeatzago ezagutu zitun orduko juduen oiturak. Itz oietan dauzkagu ondo bereiztuak ango eskeintz-eztaiak.

Lukas'en ebanjelioak dakarzkigu zerbait naasiagoak gauzak, baiño argi egingo degu.

"Missus est angelus ad Virginem desponsatam viro" (Luk., 1,27).

Ez ditu bereizten eztaia ta eskeintza. Itxuraz grezitarrak etzekian ondo Israel'go berri.-- Nola liteke ordea Jose ta Maria ezkonduak izatea garai artan, eta egun aietan Lukas'ek aurreratxoago dionez Maria bakarrik bere lengusu Isabel'eri ikustaldia egitera joatea...?

Ebanjelio ontan aurrera jarraituaz aingeruak ekarri dion berri ona entzun ondoren Maria'k kezka au ipintzen dio: "Quomodo fiet istud quoniam virum non cognosco?" (Luk., 1,34) "Nola liteke ordea au, gizonezkorik ezpaidut ezagutzen?"-

Aingeruaren itzak, egun aietan gertatu bearke zan misterio zoragarri baten berri zekarten. Alako misterioaren aunditasunak, eta bera "eskeintz" aroan gertatzeak ikaratu zuten nunbait zearo Maria. "Quomodo fiet istud"...

Itz auek ikusiko dituzute beti Maria ren birjintasun-ziña erakusten dutenen argumentu, Maria gan birjintasun-z'ñ orrek Jaunaren Ama izan naiak baiño indar geiago balu bezela.

Oiturak ikusi ondoren ordea ba-litekeena-tzat artu dezakegu, Maria aingerua etorri zitzationean "eskeintz"-arogan, laister Jose ren etxera etortzekotan arkitzen zala.

Imanol Unzurrunzaga
prantziskotarra.

ELIZA, JAINKO- INDAR GURE ALTASUNEAN

Dr. Hugo Rahner, S.J. 'ren "Die Kirche, Gottes Kraft in unserer Schwachheit"etik euskeratua. Köln, "Das Zeichen Gottes", 1956-9-11.

Poz aundia izaten du Elizak jaiegun auetan. Eta oso bidez. Izan ere aintzas betetako Etxe bat baida, Iurralde guztietara banaturik. Kontradizio-señale bezela ere, Berak menderatzen du Kondaira gustia. Eta ementxe daude biots aundi danak.

Baña dana "aragitan pozartzea" izango litzake (1 Kor, 1, 29; Ef, 2, 9) eta ez "Kristo'ren gurutzetan pozartzea" (Gal, 6, 14); gezurra izango litzake dana, eta sarritan elizkizunen ondoren gerez somatu oi dugun ustutasun batek-edo beteko luke gustia, orain, kristau-izatearen izkutuki mamitsuaz ezer esango ez bagendu. Auxe erakusten da S. Paulo'k itz aiekin: "Pozik artu bea badut, nere elbarrietan postuko naiz" (2 Kor, 11, 30). Bere argaltasunaz itz egiten du eman Paulo'k. Gizonaren argaltasunean erakusten du Jaungoikoak bere altasuna. San Paulo'k berak esana da au, eta itunberriaren goiagerpeneko egi nagusien artean dago. Aitareen salbasio-lana mundua sortu baño lenago maitasunean erabaki zan. Gero, Gizon dutako Itz'aren bidez agertu zaie gizonel; eta bere jomuga zoriontsuan, argaltasunaren bitartez izkutuko graziaren indarrarekin burutzen da, Elizari eskerrak. Idatsirik baidago: "Argaltasunean osatzen da Jainkoaren altasuna" (Kor, 12, 9). Gorde dezagun Its au: bai, gorde dezagun gerkerazko esera-

ren indar betean: "Jainkoaren dinamia astenian osatzen da". Gaurko teknikak dinamikari buruz, eta sendagintzak asteniari buruz esaten digutenetik ulertu genezake esanai oien betetasuna. Olaxe esan genezake: Jainko-dinamikaren indarrak astenian iristen du bere jomuga, astenisko igar-erian (raquitismo), aulerian, ots, itzuraz aundi, osasuntsu, gizabidezko, burudun danaren kontrakoan.

Bestela ez baña olaxe azaldu nai du Aita Betikoaren salbatzalle-maitasunaren indarrak; eta garaipenara bultzatzen du onek, oñazearen bidez, Kristo'ren Gorputz Mistikoa. "Izan ere Jainkoaren zorotasuna gizonak baño jakintsuago da, eta Jainkoaren argaltasuna gizonen indarrak baño altsuago. Bai, kaxkar-jendearena, munduaren eskubidea, eta ezer ez dana, orixe aukeratu du Jainkoak ezer ba-dana desegiteko, Jainkoaren aurrean iñork arrotzeko biderik izan ez dezan, eta idatzitako ura bete dedin: "Porartzen duanak, Jaunagan artu dezala poz" (1 Kor, 1, 25-31)".

Orregatik saiatzen gera ordu santu ontan idasteun eta teologikiro Eliz beartsuaren misterioan sakontzen; eta Kondaira-egokeran berori ertsitzen. Onela, ordu gozagarri bihurtuko da eliakizun au; eta puskatu bear dugun ogi elkorrak ase aal izango gaitu, aundien eztaiak amaituta egon ditezeean. Iru pentsamentuk giatu bear gaituzte: Argaltasuneko Eliza fedezko gertaera da guretzat, fedezko prueba, eta fedezko alaitasuna.

I

Jainkoaren Eliza Santuak Jaunaren Gorputzaren ordaskari da bee ontan. Bi gauzak osatu dute beti: indar-argaltasunak, ospe-isekak, bera da Jaun eta morroi, errege agintari eta bazterrik bazter dabillen eskale. Baña Elizako gizonak beti izango dira griñatuak, beren oraingo sunditasunaren itxura jauntasuna, garaipena, Kristo'gan seguratuta bezela bururatzera; bai, guzti ori beren burua bailitsan bururatzera griñatuak. Eta aultasuna eta zorotasuna, gaeienik ere, kondainazko beren erromeri-lege igestuasiñari zor zaien serge baten antzera ikusten eta artzen dute. Bai, egia da: lur ontan ere euki bear du Elizak aintza; Elizaren auleria eramán egin bear da, sendatu eta garaitu. Baña era ontako elkar-

bitze bat, ezin diteke izan azkeneko erabaki Eliz argalak jartzen dizkigan galdeentzako. Auxe ere esaten du Paulo'k: "Izan ere, argal itxura daukadanean, orduantxe naizindartsu". (2 Kor, 12-10). Argaltasuna bera du arek indar. Elizari buruz balio du, batez ere, onek. Ain zuzen ere aul dalako; ain zuzen, bere astenian erakutsi bear du, lurreko igoaldia ontan, Jainkoaren Dinamian bakarrik pozartu bear dugula guk. Au Elizan ulertzen ez duanak, orrek ez du konprnitzen sinismenaren muña, orrek ez du ulertzen gurutzeko misterioa, mundik jaio dan Eliza. Salbatzalle-gertaeran zear bakarrik ulertzen dugu Eliza. Eta onek gändm egiten du lurreko, bidezko, buruzko neurri oro: onexek alegia, Jainko-itzak esan bezela, Gurutzeko isekatan iltzen dan gizon baten eriotzak, onela esan sezakean eraildako batenak: olaxe gaititu dut nik mundua. Eta Beronezek utzi zigun esaera bat, aultasunaren eta indarraren artean, desegipenaren eta aintzaren artean bere bisitzaren etengabeko aurreratzea laburtzen digun esaera bat: "Iurretik jaso nazatenean, neregana ekarriko ditut gauza guztiak" (Jn, 12, 32). Iurretik jasoa: ez du onek esa nai, bere Aitarekin agintearen dizdiratan goratua izan dedinean, es, beste au baizik: Gurutzeko egurrean jasoa, basamortuko Moises'en sugea bezela zintzilika. Olaxe dio Jaunak berak (Jn, 3, 14) Eta bere esanaiaren indarra makaldu ez genezan, Apostoluak erantsiko dio: "Zer nolako eriotzaren bidez il bear suak adierazteko esaten zuan au" (Jn, 12, 33). Olaxe dago zintzilik gizonaren Semea, mozorroa, bere erriak tristukatu, zeru-lurren erdian iltzen. Orixe da munduko Kondairaren basamortuan zintzilikatua, gauza guztiak bereganatzen dituana. Inegia eta jasoa. Biok batera. Eriotza jauntasun da, aultasuna indar.

Zori ontantxe jarraitu bear dio Elizak. Bere Gorputza da-ta. Berauxe da errien artean jasotako esangarria, ez garaipenaren eta geroko aintzaren señaile bakarrik, baita-re berbarau da bere lurtar kondairako egurrean zintzilikatua. Eta sinismenez orri begiratzera eta bere aultasuna aitortzera ausartzen dan gizonak, orretzek bakarrik arkituko du salbazio eta aberri, basamortuko suge artan bezela. Kristo'k atera du Eliza, Jainkoaren erri bezela, giza-lapikoen Efito'tik. Promestutako lurra eskier da — baña arksaitzesko bidea kondaira-ondamendietako lurralde mortuetan zear doa, porrokatutako azken erromatar inperioan zear, Erdimendean a-

gintenaiea egindako burrukatan zear, oraiñaldiko mixio-kondairaren porrotalditan zear, Errusi ta China'ko trageditan zear, gure kulturaren eta nora eramango gaituan ez dakigun atomotar etorkisunaren zear. Bere bidean munai arkitzen dira bere izkillo erdoituen arrastoak, munai bere aunditasunen ondar txirtxillatuak, eriotzaren bidez orren uskeri kaxkarretan bihurturik. Beti izan du Elizak Moises bat eta Aaron bat, baña beti erri marmarrari bat ere, beti eroriak eta ukatze negargarriak. Sarritan azkarregi burutu ditu oraiñaldiarekin paktoak, sarritotan beranduegi ulertu ditu aldian aldiko ezaggarriak. Beti euki izan ditu bere serbitzoan gizon kaxkarrak, buruestuak, pekatariak, — gidatzen baña oztopoak jartzan, plantatzen baña burugabe. Erromes nekatua da Eliza, basamortuan zear autsez batetakoa.

Au ordea, bere aultasun-izkutukiaren alde bat besterik ez da. Fedez beragan sinisten dugula aitortzen dugunean, pentsatzen dugu bere beste eztasun misterioan ere. Onegan aundien, batiko, anima-kondairaren menderatzalle onen zorionez sartua dan ori argaltasunaren azpian gordetzen da batez ere; txikien biots biotsean izkutaturik dago. Eta auztezi bakarrik erakatsi die Aitak jaurerriaren barneko eder ederra. Elis au eskola gakoetan bizi da, mojatxoetan, izkutuko gaxoetan, guk santu deitzen eta munduak asteniatitzat dauzkan burugabe sardi oietan bizi da. Aure da bertan zintzilikaturik dagon Aren Eliza eta Eliz ontantxe ekarri nai ditu gausa gustiak beragana. Eterri nigana nekatu ta zamatuok, esaten du Berak. Au da Fedre arrantsalaren Eliza, parragarrero buruzbera gurutziltzatua izan zan arena. Au da gure fede susartaren Eliza. Baronegatik abesten zan leenkristautasuneko S. Pedro ta S. Paulo'ren festako prefasio batean: "Orregatik agertu bear litzake, ez balzela giza-endarrez bizi, Jainkosko doaziez bizi. Agerian jarri bear litzake, mundu ontan itxuraz aundi dan gastia, Zu gabe, Jauna, zorokeri besterik ez dala. Ikasi egin bear gendake, nola goratsen dan zorokeri oro Zure bidez. Olaxe esarri da Zure indar altsuak". (Sacramentarium Leonianum, PL 55, 51).

(Jarraituko du)

Fernando Mendizabal'ek euskeratua.

prantziskotarra.

SINISTUNAREN LINGURUA

(Donosti'ko Apaiztegiko
"Nekazari-Apostolutza"-ko
batzarkideen aurrean epai-
llaren 11' an irakurritako
idaz-lana).

S A R R E R A.-

Emazteki aberatsenaren lepoa ornitzen duten lepoko apaingarriak baiño ugaria-
goak dira gizakiaren inguruko ustaiak. Arriak i-
bai geldian mugiarazten ditun ustai borobillak
ainbat, gutxienez. Ala ere ez da gizakia inguru-
koen mugiarazle. Batakoz beste, baizik. Gizakia-
ri eragiten diote, bai, inguru-mariko zer guziak.
Bere naimena ta, batez ere, bere aukeramenak be-
artu gabe, ordea.

Sendia dugu gizakiok ustairik estuena
ta lenbizikoa. Ta, batez ere, sendiak erantsi oi
digu kutsurik sakonena. Erria da bigarren. Uriko-
entzat, berriz, uri-alderdia, erriaren kideko.
Ustaiak azituz, probintzi, errialde, nazio ta Es-
tadua dira aundien. Zabalagoa nai izan ezkerro,
Estadu-arteak ere aipa genezake ta atomu-aldi on-
tan aipatu-bearreko zaigu.

Giza-elkarte oeik beren kutsua, beren
ukitua nola bidali sendiaganaño, gizaki bakanaga-
naño? Agindu ta legeak dirala, naiz-ta guda ala
beste gertaera geienak dardarazten dute erri txi-
kietako biztanlea bera ere. Utzi dakiogun nolaz-

koari. Ta kutsu-barreiatze oni elduz, aipa ditza-
gun uri, erri ta sendiak gizakieri beren zera eras-
teko duten indarra. Jokabiderik geienetara bere
sarrera baldin badu ere indar orrek, erlijio-gaie-
tarakoa aztertu nai nuke. Uritar ala erritar izan,
zenbat alde? Orixe adierazi nai nuke. Ontarako,
al ditudan adibide ta argibide bilduko ditut eta,
urren, ondoren batzuk berenik izendatu. Ondoren
oiek lege antzeko ditezke. Au da, geienik-bat one-
la gertatu oi dala adieraztea. Onak berak erakutsi-
ko digu era batera ala bestera errieri jokatuarazi
nai diegunean nundik nora ta nola jo.

Oar bat: Argibideak ematekoan ez dezaket
oien iturriaren berri bakoitzean. Beraz, orain e-
sanak balio beza gerorako. Oinbestez: 1'goa.-
"Paris et l'agglomeration parisienne". Lenenge alea,
"L'espace social dans une grande cité" gai dun li-
burua, Chombart de Lauwe, S. Antoine, J. Bertin,
L. Couvreur ta J. Gauthier ditularik egille.

2'goa.-"GRENOBLE, Essai de Sociologie religieuse",
"Madame Jeanne Perrot"ek egiña. Aski bedi, ba,
gerokoan orrialde ta irudien berri ematea uri ba-
koitzaz mintzatuz.

o o o

I.- U R I A

Beste edozer ezetzik, uriak ere neuñi
askotakoak dira. Probintzi-buruetatik asi ta Esta-
du-buru diranetara, zenbatu ezin-ala mailla daude.
Eun milla biztanle dituztenetatik zortzi-amar mi-
lloikoetara ba-dago alde ederra. Zer neurritakoaz
mintzatuko naizen? Nekazari-erri koxkorak ez ga-
ñontzeko guziak uztartu nai ditugu zati ontan,
naiz-ta oso ez-berdiñak izan amabost-berregei ta
amar eta eun millakoak. Adibiderik geienak Donos-
ti, Grenoble ta Paris'si buruzkoak izango dira.
Beraz, gutxi gorabera, eun da ogei milla bizilagun
dituztenak bi lenbizikoak eta amar bat milloikoa
bestea, tartekoen argibiderik ez dut arkitu-ta.

a.- Urien lengo azikera.

1) Eraiki-lekua: Garaiaren bearrari begira-
tuz eraiki oi zituzten uriak: mendixka tontorretan
edota mendien babesean, etsaiak errezago mendera-
tzeko ta nekezago etsaien menperatzeko. Gero arresi

ikaragarritz inguratu bear. Arresiz barru bizi ziran. Bertan zeukaten bizibide guzia. Eliza ere berekin zutela.

2) Azikera: Zelai-uneak etxez bete, aldapak berriz, beren soillean utzi. Gerora ordea, alda-paetan ere etxeak eraiki bear, uri-barruan kabitzekotan. Izan ere, nora jo arresiz atari? Orregatik ageri dira karrika okerrak eta aldapa bizi-etan. Gerotxo arte ez dira uriak arresiz atariratu. Oraintsu da asi zirala. Jakiña, bonbaetatik ez baidu babesten arresirik lodienak ere. Are indartsuago zabalduarazi ditu langintza berriaren etorrerak; industriaz ari naiz.

3) Argibide: Grenoble uriaren aziera 3'gn. irudian dager. Lenen Ikastetxe Nagusiaren eragiñez eta, batez ere, "mekanika" berriaren bultzadara zabaldu dala 1339'urtean bat eta 1832'tik 1836'ra bigarrena. Zabalkunde aundiagoa, berriz, arrezkerokoa.

4) ONDORENAK:

1) Borobillean zabaltzen ziran. Bira guzian zabalduaz, alegia. Geroxeago izar-tan-keran: ibai ala bide berrieri jarraiki.

2) Eliza ere an barruan. Gei-ago bear izan ezkerok ere, bertan eraiki. Adibidez, Donosti zarrean bi gertu askorik: Sta. Mari ta San Bizente... Ta kailan beste eliza gaiñera.

3) Elizarako egokiera ta erretasun guziak, eragozpenik batere ez.

b.- Urien gaurko ezikera.

1) Urien muiña. Lengoak irauten du geienik bat. Ikus Donosti zaarra. Len-lengo dago etxe-egiteraz. Muiñ au gañezkatzean beste norabait jo bear. Orain baiño lenagotik etxe berririk egiteko tokirik gabe egon baidira. Begira ostera Donosti'ko alderdi zaarrera ta ea nun eraiki leiken beste-rik.

2) Nun eraiki? Orain urrutira xamar jotzen dute ta an etxeak eraiki. Geienean lantegi berri-
ren baten inguruan lenengoa. Gero, auzoa osatzera-
ño ugarituz joan. Auzo ta uriaren tartea berriz,
betaz-betaz osatuz dijoala, laister estaltzen da
ta biztanleen ugaritasunez berdindu. Gutxienaz e-
re bataz-beste kidekotu. Ikusi Grenoble'ren zabal-
kundera: 3'gn. irudiaren aldean oso zabaldua ageri

da; lantegiak lau ertzetaraño barreiaturik 10'garrenean eta 5'garrenean, berriz, guzia bizilagunez estalirik.

Ditekena da "etxe merke" deritzaienak egiñaz asi ta tartea gerora bete izatea ethez. Gurre edozein uritxotan gerta oi danez.

3) Urien oraingo azikerak: Ba-dute oiek beste zer bereizirik. Ona bat. Eta uri-muiñari dagona da. Ethez beterik dagon arren, Paris ere ala: (67-III) 1936'gño., biztanlez gutxituz dijoala. Begira. Au da gaurko jokabidea. Erdi-erdian eta alderdirik egokienean, diru-etxe, ikastola, aldundegi, erri-etxe, salgaitegi eta onelatsukoak jartzen dituzte.

Begira, adibidez, Donosti'ra: Erri-etxea, Aldundegia, Gipuzkoa'ko naiz Donosti'ko Diru-etxeak, Espaini, Gipuzkoa, Bizkai, Donosti ta Bilbao'ko Bankuak; Idaztetxe ta Korreos eta abar. Oeik denak erdi-erdian jartzeko, askotan ere bizilagunak bidali egin bear. Donosti'n, bear bada, ontarakoxe egiñak ditezke etxe oiek. Grenoble'n, aitzitik, lengo-lengo uriaren muiñean daude, ta oietakoak beste norabait jo bearko zuten bizitzera.

4) Argibidea: Grenoble uri au irutan zati-tzen da. Onelatsu:

a.- Agintariekikoak: Erri-etxe, Gudari-gobernu, Auzitegi. Ikastetxe Nagusia ere antxe dago.

b.- Ikus-mirazalantzakoak(turismo): Antzoki, Museu, Ziñe-etxe, Hotel garaienak, eta bearez gañekoan salgaitegiak (centros de lujo). Ikus 17'gn. irudia.

c.- Diruarekikoak: Diru-etxe ta Banku Nagusienak (12'gn. irudia). Salgaitegi ospatsuenak eta Lantegi nagusien Elkarteak. (13'gn. irudia).

Aberats-txoko dugu au esan bearrik ere gabe. Gañera, buru-langintza edo ogibide ariñak dira geienik-bat: Lautetik iru baino geiago. Euneko 75'tik gora beintzat.

Ikus orain Paris'en biotza. Serges Antoine'k dionez len-aipatu liburuan, "industri-langille ez diran guzien lantoki da Paris'en muiñ au. Bai, langilletzaren Paris'eko biltoki da".(69 orrialdea). Diogunaren indargarri da (70 or. VI irudia) irudi au.

Bankurik geien eta nagusienak muin berean ageri dirala. Begira dezaiegun bertan bizi diranei ta, zer ageri da? Erdi erdi ontan dagola iñungorik bi-zi-lagun gutxiena. Beraz, oso batz-beste datoz II'gn eta III'gn irudiak erakusten digutena: Langille-rik geiena ageri dan toki berean bizilagun gutxiena. (66'gn orrialdean).

5) Aberats eta ikasien lantoki: Len ustuan esan badegu ere, noiz ta nola jakin bear. Jakiña, bi-zi-lagunez gutxi ta ez langillez, goizero betetzen baidira jendez aipatu ditugun etxeak. Langille oiek:

a) Ez ditezke oso beartsu izan, aberatsenetakoak ez balin badira ere, naiz ondo irabazten dutelako, naiz-ta lendik beartsu etziralako. Oso landerrik ez, beraz, lantegi oietan.

b) Ikasiak, añera. Geienak "ofizina"-langintzarako bear duten ikasketa-jabe izango dira. Beste asko "karreratzoren" bat ikasiak. Beste ez gutxi sendakin eta lege-gizon. Azkenengo oietatik geienak, beren bizitzaz gainera jendea artzeko gela bereziak dauzkate, geroago adieraziko dugunez.

6) ONDORENAK:

a) Garai batean eraikitako elizak erdi ontan egon oi dira geienetan.

b) Jendea, bear bada, millaka etorriko da uri-bizitzera ta egun osoa bertan iraungo du.

d) Jenderik, ordea, ia-ia iñor ez da bertan bizi. (Etxe-bizitzaz mintzatzean adieraziko).

e) Ontatik erlijioarekiko artueman estuak:

1- Uria, "city" deritzaion uri-muiñ au giza-erantzun bearren toki dala, naiz ikaskizun, lan, salerosketa dirala, naiz-ta "zibil" edo gizarteko erantzunkizun.

2- Erlijio-kaletako bearrak betetzera "city" ortara joaterik etzaie buruan sartzan.

3- Elizara iñor ez dijoala: Igande zertara joan alderdi artara? Aste-egunez ba al daukate be-tarik?

4- Erlijio-gaiak nola erakutsi? Protestante-ak eta bai politika-zaleak kale-ertzetan sailatu bear beren asmoen zabalkundea egiten: Batzuk eskalle-tara igoaz, maitxo toleskorren atzean besteak. Kato-likuok ere onelatsu egin bear zabalkunde.

5- Beraz, aurrerakoan uriak ezin ditezke edo-zeñetara ta ajola gabeen azi ta zabaldu. Aurretik ondo erabaki ta jakiñaren gañean, baizik.

6- Ontarako eliz-gizonak ere tarteko izan bear dute lan ontan, bertako diran tokietan Elizak

eraikitzeko.

7- Jendeari ibilli-bear arko dakarkio: Jendetzak batetik bestera...

8- Jendetza sailka elkaturik ibiltzeak ditun kalteak: "gregarismu"...

II.- URI-ALDERDIAK:

Uriak ez ditu zati eta alderdi guztiak berdiñak. Muñaren berri eman dugu lentreago. Orain gañontzekoetaz mintzatuko gera. Gañera, ez da uri guztia biztanleari kutsu ori erasten diona. Bere zertxo bat bai, noski. Baña askoz sakonago itsatsi erazten dio auzo edo alderdiak bere kutsu bereizia.

Alderdi oietan bereizkuntza egiteko dirua dugu geienetan, labanarik zorrotzena. Naiz dirua bere soilki, naiz-ta diruaren bidez lortutako jakitea. Bereiz ditzagun, bada, guk ere aberats-alderdiak, batetik; eta beartsuen uri-alderdiak bestetik.

A.- Aberats-alderdiak:

1) Diruaren kidekotasuna.

Esan-bearrik ere ez, aberats eta beartsu-alderdian ez-berdintasuna aundia dala. Nunaikoa, da. Begira Donosti'n bertan: Gros, Egia, Amara ta olakoeri. Ea oien antzik ere bate duten Igeldo, Ondarreta ta Donosti-barruak.

Paris'koa garbiago ageri zaigu. Begira dezaiozun uri-buru berari, Paris berari. Jakiña, inguru guziko milloika bizi-lagunak alde batera utziag. Urian bertan dago naiko garbi bereizkuntza au. Erdiz ezkerre, mapaetanalegia, aberatsen alderdira. Bestea gero ta beartsuago. Au adierazteko, len aipatu-liburuak damaigu argibiderik aski 72'gn orri-aldean IX'gn irudian. Etxe-bizitza bat az beste zenbatsu ordaintzen dan adierazten du. Uriaren erdiz sarkaldean (oeste) daude garestien ordaintzen dutenak. Etxe-bizitzaren maiztarta 700 eta 500 frankoz ordaintzen duten geienak bertan baidaude. Jakiña, 1.300 frankoz ordaintzen dutenak berriz, areago. Pa-urriaren ogei zatitatik (6, 7, 8, 16 ta 17) bost oiek dira sartaldekoak.

2) Jakitearen kidekotasuna.

Uririk aundiene-takoetan ba-du leku bereizkuntza xeagoak. Aberatsak berak izan oi dute elkartasun estuagorik, jakinduria edo beste zerbait dala-ta. Onela, uri-alderdi berean

nabari oi dira bizi-lagun kidekoagoak dituzten auzoak.

Garai bateko arotz-karrika, sutegi-karrika ta kidekoen antzeratsu elkartzan dira orain jakitun edo, gutxienaz ere, karreran duten asko. Ez noski karrika osoa beroiek soilik betetzen dute-lako, ta are gutxiago auzo osoa. Alderdi bateko geienak ikas-malla edo bizibide-malla bereko diralako baizik. Are zuzenago esanda: bizi-malla bereko geienak inguruan bizi diralako. Onela Iribarren Jaunaren esanera gertatu oi dira nabari askorik "sendakin ala irakasle-auzoak, karrera dutenen eta erri-gizon edo estadu-gizonen (funzionario) alderdiak eta abar." (Introducción... 65'orri.).

Begira adibidez Paris'ko irudiei.

a. Lege-gizonak: 1) bizilekuak zati bakarrean geienak (XII'gn irudia); 2) jende-gela edo "buffeteak" bitan ugarian (V'gn irudia).

b. "inspector de finanzas", diru-artzallean ere beste bitan (X'gn irudia)

d. "Politekniku" diranak ere beste bitan (XI'gn irudia).

e. Sendakiñak era berean: 1900 urtean zati bakarra ageri da bereiziki sendakiñ-kabi: 8'gn zatia, eun millarentzat (100.000) batzbeste lareun (400) ditularik. 1.946 urtean, berriz, lau zati neurri berean. Areago orandik: ikusi gaitz bereizieki-ko sendakin edo espezialistak, euneko larogei (80%) beintzat lau zatitan sartzen baidira. (96 or. ta III-IV irudiak. 97'en V'gn irudia).

Garbi ageri da ikas-malla bakoitzak elkartzurik daudela. Ala ere ezin esan "sendaki-alderdi" edo onelakorik deitu genitzalekenik. Geienak elkarren inguruan ageri dirala, soil-soilik.

Zerk alkartzan ditun? Ikaskide izateak, malla ala bizibide bereko izateak, diruak eta egokitasunak? Ondorenak aipatzekoan zenbatuko edo aztertuko ditugu.

3) Luzera ta pixuan ere kideko:

Aberats-alderdi ontan luzeago ta gorputzez astunagoak ageri dira.

a. Astunean: 61'90 kiloz gorako guztiak alderdi ontan. (93 or. I'go irudia).

b. Luzeran: metro ta 70 edo 71 diran geienak. 1'72 diran guztiak (II'gn irudia).

4) Biltokiak:

Era askotako lekuetan bildu oi dira aberatsak. Zenbatu ditzagun nagusienetakoak.

a. Lantegiak: diru-etxe, auzi-etxe, gobernu-etxe ta abar.

b. Atsedentokiak:

1- Lorategi ta ibiltokiak jendetza aundiak artzen dituzte. Igandez malla guzitakoak bildu ditezken arren, geienik-bat aberatsak izaten dira. Aste-egunez guzi-guziak aberatsak. Gogoratu ditzagun Donosti'ko: "Paseu-Berri", Ondarreta, ta Kontxa. Itz batean itsas-ertz guzia.

2- Ondartzak ere geienetan aberatsen atsedentoki.

3- Ziñeak eta oietan apaiñenak. Ikus Paris'koen jokabidean (166, XV).

4- Kabaret eta onelakoak soil soilik aberatsentzat.

5- Salgaitegi nagusiak. Garbigo esanda, geigizkoen salgaitegi edo lujo-gauzen erostegiak. Paris'ko salgaitegi oietako bat adibidez: erosleak zer alderdietatik dijoazkion garbi-garbi erakusten digu. (170, XVII'gn irudia).

6- Dantza ta jolastokiak:

Biltoki oiek ez dituzte jende-sail berdiñak bildu araziko, noski. Guziak dira ala ere jakingarriak eta ezagutu-bearrekoak, zenbategañoko kutsua erasten duten jakiteko.

5) Ibilliak:

a. Leku askotara ibilli oi dira. Beren ingurutik maiz erteten dira ta bazter asko ikusi. Aberatsalderdikorik geienak batera ta bestera ibiltzez bizi dira. Ez lukete beti beren txokoan etsiko ere. Ikusi, adibidez, -argibidez, zuzenago- Paris'ko bost sendi aberatsen ibilliak (107 or. II'gn irudia). Garbi ageri da geienik beren alderdian dabiltzan arren, gañontzekoetara ere asko zabaltzen dirala.

b. Nola ibilli? Geienetan eta geienak beren beribilletan, noski. Ez baida berdin jandetza-artean ala norberean ibilli.

6) Alderdi-barruko auzoak:

Aberats-alderdiak ere ba-ditu bere goraberak. Biztanleak aberatsak izan arren ere, ez dira guztiak era berekoak izango. Alderdi beraren barruan, beraz, sumatu genitzake zati bereiziagoak. Zergatik dan onela? Auzo-lagunen kidekotasuna estuagoa dalako gañontzekoekin dutena baño. Baita iñora joan bearrik gabe bizibidea ber-

tan daukatelako. Onela ageri da "Muette" Paris'ko aberats-alderdiko zati au. Guzitik bertan dauka:

- a. Garajeak (155 or., IV'gn irudian)
- b. Salgaitegi nagusienak (157 or., VI' irudian)
- d. Noiz-neingoen erostoki (Liburu, sendagai, zine, tintoreri... (159, VIII).
- e. Eguneroko jaki ta irakurgaien erostoki (158 or, VII'gn irudia).
- f. Gañontzekoak (arotz-lan, irrati, argazki, ...) (160 or, IX'gn irudia).

7) ONDORENAK:

a- Azikera ta ezikera onekoak dirala giza-malla barruan bertan.

b- Jakitez erdiko mallaz gorakoak dira.

d- Naikoa ta geiegi beta daukate erlijioarekiko.

e- Ezin bizi ta nekeak ez die eragozten erlijioarekikoak betetzea.

f- Urruti edo gertu aixa dijoazke elizara.

g- Diruz malla berekoak elkarren inguruan bizi izatea ere mesede zaie.

i- Norbere beribillez ibiltzeak ez die jendetzan ibiltzearen kalterik erasten. "Gregarismu"rik eza alegia.

j- Leku ezberdin askotarako ibilliak ere, zenbat eta geiago izan ez-berdiñagoak, ordun-da "gregarismu" gutxiago. Bide batez, nor bere burujabeta-sun geiago.

k- Nor bere ingurutik zenbat eta irteera geiago egin, ordun eta inguruaren kutsu gutxiago.

l- Itsasten zaien kutsua era askotakoa bezain ariña eta axalekoa.

ll- Biltokiak ere ugarigoak eta kutsu-indar gutxigo.

m- Edozein mallatako jokabide zintzora eragin nai zaienean, biltokiok eta oietatik nagusienak, geienik billarazten dituztenak gogoan euki bear.

m- Eragozpenak:

1. Ondasuneri itsatsirik bizi edo lureko gaizale purrukatu bihurturik arkitzea.

2. Ondoegi bizi diralarik, Jainkoaren bearrik ez sumatzen.

3. Inguruko jendetzak elkartzen ez ditulako, erlijio-bearrak bete ezta ere, iñoren aurrean lotsakizunik ez dakuste, iñori esankizunik eman-bilkean jokatu ditezkelako.

4. Lagun-arte esturik ez, "solidaridad" palta dute. Lagun-arte, bai baña salerosketa ta olako-

en mallakoa. Adiskidetasunik ez jendetzarekin.

B) Beartsu-alderdiak:

1) Diru ta jakitez kideko:

Kidekoak kidekoekin biltzen dirala da esaera. Beartsu ta ez-jakiñ-en artean orrela gertatzen da: dirurik eta jakiterik ezak inguru berean bildu arazten ditu.

Beartsu-alderdi oni, gaurkoz berdintsu denez, langille-alderdi deitu genezaioke. Zoritzarrez oso batera datoz, gaiñera, bi deitzera oiek. Onetxegatik katoliku-egintzaren saiaketak, Elizaren erakutsietara zuzendu dezaten langilletza.

Paris'tik artu genezake argibiderik aski: Erdiz eskubi edo sortaldea erabat ez balin bada ere, geienik-bat lander dira. Begira irudiari (72 or, IX'gn irudia). Itzez baño argiago jabetzen gera irudi-bidez norañoko alde dagon. Gai bakarra dabilki neurri: maiztargo zenbat ordaintzen duten batzuk eta besteak. Len ere aipatu dugu au aberatsetaz mintzatzekoan.

2) Luzera ta astunean ere kideko:

Bear ainbat jaten ez dutelako edo-ta lanean geiago nekatuta aittutzen diralako; dana dala, askoz meego ta ttikiago ageri dira. Batz-besten jo-ta, irurogeitik irurogei ta batera pixatzen dute kilotan alderdiko geienak. Jakiña, irurogeita batetik gorako geientsuenak, ere berriz, alde ontan daude. Beste ainbeste luzerari buruz: metro ta 69'tik edo 70'z beerakoekin. (93 or, ta I-II irudia).

3) Biltokiak:

Maizenik nun biltzen diran jakitea oso bearrezko da. Batetik, jokaera askoren iturburu oi diralako; ta jokaera obeagotara eragiteko ere iturri bera bezelakorik ez dagolako, bestetik; naiz-ta urez aldatu bear izan. Aipa ditzagun batzuk.

a. Iantegiak: egunaren ordurik geienak, aste, illabete ta urtearen egunik geienak eman egin oi dituzte. Asko ta askok aurtzarotik asita, gañera. Iñun eta iñola ingurukoak elkarri nola-naiko kutsurik erastekotan emen izan bear.

b. Atsedentokiak: atsedentoki artzeko edo jolas-teko tokiak adierazi nai genituzke. Beren gogokoenak oiek ditezke:

1- Ziñeak: aberats-alderdira baño gutxiago zabalduak. Grenoble 26 irudia.

2- Salgaitegiak: eguneroko gaiak saltzen dituztenak geientzunak.

3- Dantza ta jolas-lekuak.

4) Ibilliak:

Nola ta nora ibilli oi diran jakiteak ajola aundia du.

a. Asko ibiltzen dira. Egunero lantegira, beren txokora, ta azkenik, etxera. Ziur egon egunik ere ez dutela utsegingo au guzia egin gabe.

b. Beti leku berera. Lantegi ta etxearen tartean ardangela ta zine-etxeren bat nai ta nai ezkoak dituzte. Etxera ta lantegira bezain gutxi utsegingo dute beste oietakoren batera joatea. Jakiña, ta oiek beti berdiñak izango (107 or, III' irudia).

d. Denak elkaturik eta jendetzak osatuz. Tren, metro, edo belbil, guziak saillean ibilli bear.

5) Alderdi-barruko auzoak:

Landerrak ere badeute alderdi berean estuago elkartu oi diran tokia. Eguneroko gorabera guzietarako bearrekoak berekin dituzte auzoak oiek. Egunerokoz gaiñerakoetarako, berri z, beren alderdietara zabaltzen dira. Badeute beste txokorik ere bere berri guztiak jakin, beren itzketa-alditxoak egin, gorabera guztiak irauli ta biotzä lasatzeko. Oietantxe biltzen dira mundu guztiak. Nork ukatu onelakoen indarra langilleri bat edo beste pentsatuazteko, eginarazteko?

Auzo estuagoz gaiñera, bade dituzte gauza bereiztiak. Geienik-bat, bide jakiñak daukate. Bereietatik ezik, ez dabilta, ta ia-ia jakin ere ez besterik. Urteak, bear bada, karrika batzuetara sartu ez dirala, naiz-ta oso gertu euki. Batez ere gudara-etxe, zumardi, ibai ala arresiren bat balego, ez dira inguru ortatik igaroko. Zergatik? Gogo-giroak eragiten die nunbait, jokabide ortara. Aitzitik, bide berririk ideki baledi, len debekaturiko zirudien bazterretan barna, andik dijoazke.

Ontan ere saillean jokatu dira, guzti-bate-ra. Ba-du ala ere, jokabide onek erlijio ta eliz-gaietarako ondoren gogoan artu bearrekorik. "Ondoren"nen artean aipatuko ditugu.

Bideari dagokionez, ezetzik, auzo-gintzari, auzoeratzeari dagokionez ere badeute ikuskizun aipatutako zerak. Aski baidira zumardia batetik eta ibaia bestetik, auzoari bere "nortasuna" erasteko. Berdin, illerri, tren-bide ala lorategi baleduzka

ere batetik eta bestetik. Oinbestez, barne-bizitzari ekiten diote, auzo-barruko bizitzari.

Auzo oiek guzitara osaturik egon oi dira. Eguneroko bearren salgaitegiak auzo-barruan daukate. Batez ere, jan-edaneri dagozkienetan. Askotan beren lantegi ta guzti eratu oi dira. Jazkiñak erostekoan eta etxe-bizitza-pressak aukeratzerakoan, bai, ordun auzoz atari joan bear (199-VII+ 203-VIII+ Lantegiak 195-VI).

Auzo berri-gintzan ari diranen asmoa auxe da: auzo bakoitza al dan geienik osatzea. Guzitatik jarri, edozertarako gai ditezela berenez, jakiña, gauzarik bearrenekoetan, egunerokoetan. Beren-ez baliatu ditezzen eran antolatu.

6) ONDORENAK :

1- Zenbat eta alderdi beartsuagoak, ordun eta ikastun gutxiago, jakite gutxiago.

2- Bear aingat jan eta egokierarik ez daukate-lako, beti kezkatan eta erretxindurik, alderdi osoa.

3- Lantegian kutsua: Beti besteren agindura, beti menpean, beti lan bera... Jakiña, nortasun gutxi.

4- Ziñeak eguneroko bizieratik igesbidetzat eta, beraz, ames egiteko.

5- Ibilli ugariak, atsedan eta lan-toki... Etxe-barne bizitzarik ez edo gutxi eta otza.

6- Beti bide beretako ibilliak. zenbat eta ge-lago, ordun eta kutsu sakonagoa.

7- Denak elkarturik, denak saillean, pillaka ibiltzearen kalteak:

a. Abere-grinak piztu eta nortasun haito.

b. Elkarganako begirapena itzali.

d. Edozeiñetara ere, lasaitasuna azi.

8- Elizara bai ala ez joatea, auzoen egoerari zor zaio askotan. Eguneroko bidean ez dagolako eliza, naiz-ta oso gertu egon, edo-ta zerbaitek eragortzen dielako alde artarako bidea.

9- Guzia beurekin duten auzoak, eliza ere bear dute. Aurrerakoan ala dezaten, apaizik ez diteke palta gerorako zabalkundeen erabakitzalleen artean.

(Ba-du jarraipen).

Gaztañaga'r Jexux apaiz.

KULTURĀ
JAKINTZA
ANTZE

ALBERT CAMUS

EDo

GIZATASUN ETSIA

" Il y a dans l'homme plus de choses à admirer que de choses à mépriser ".

Kristau-ats gardena darioten itz oen idazle ospetsua, elerti-gallurrean tinko dakusgu Nobel-Saria dala bide. Arjeliarra jatorriz, Albert Camus izan da 1957 urtean Suezia'ko Akademiak sariztatua. Ots aundia atera du Suezia'ko Izkuntzaindiaren aukerapen onek. Otsa soilik ez, naiko auts arrotu ere bai. Askotara mintzo dira autapen onen epaileak. Haedeus'eri iaran ba'damaiokegu "A. Camus'en autapena ba-diteke ausaz Sully Prudhomme'na baiño okerragoa ere. aldi guzietako prantziar-poetik nardagarriena", onen gardiz. Ez dute noski, guziek aintzakotzat artu Nobel-Saria emalleen irizpidea. Etzaio ajolik. Guzien aitorra ez baida beti ere arrazoirik baliotsuena.

Ezaguna zan lendik ere bere izena ta entzute aundikoak oso bere eleberri ta bestelako elerti-lanak; baiño iazoera onek maila gorenegara

altzarazi du bere elerti-nortasuna. Nobel-Sariak bide erdian arrapa dula genesaioke. Elerti-alorra jorratzen ari dan gizona dugu oraindik Camus. Poeta ta buru argi guziek erdi-miñez darabilten "zerbait" orren aztarrika, burutapenka diardu leia bizienaz. Umotu gabeko elergille dugu oraindio, baiño bere jomuga-bideari zuzen ta menez darraikion gizona. 1957'ko Azaroan betetzen zitun ain zuzen berrogei ta lau urte. Nobel-Sariaren kondairan barrena bat bakarra izan da sariztatua Camus baiño ere gazteago, Rudyard Kipling, berrogei ta bi urtekoa. Onegatik, Prantzi'ko gaztedia goraiptua uste izan da, urte oetan bere elburu ta bere "larrimiñen" oiar-tzunik argi ta iaioena Camus izan dulako. Zantzu nabarmena utzi du, beraz, A. Camus'ek Prantzi'ko belaunaldietan.

"Suezia'ko Izkuntzaindiak 1957'ko Nobel-Saria Albert Camus, prantziar elebergilleari eskeiñi dio, bere elerti-lan marduletan gure egunetako gogo-giroaren goraberak argi ta menez darabilzki-lako". Era ontan gaztiatu zuan Nobel-Sariaren berria, eta autapenaren zioa Suezia'ko Akademi berak. Irizpide zuzenez jokatu dirala aitor genezake; bere jardupen guzia Guda-osteko giro artegatsuan blaitua baldager. Azkeneko luditar-guda ikaragarriak sortu-tako zurrunbillo naastuan erabat murgildu zan Camus, bere inguruko egoera lazgarri aren lekuko ta aitorle egifik.

Garai ontantxe antzaldatu zan zeare gure Camus. Len ez bezelako barne-benaztasuna somatzen zaio. Lirainkeriak eta liriko-intziriak betike bazterrera ditu bere elergintzan, egi garratz-biribillei leku egiteko. Len baiño gizaberago biurtu zitzaizun. Ordurarte ondartzetako eguzkiaren galdatan zerabilzkin gizaseme iaioak, orain "izurrite"aren atzaparretan dakuski. Gizonaren goraberaz diardu atergabe bere jardupenetan. Gizonaren eskubideen alde ateratzeagatik ausi bearra izan zun bai Sartre ta baita Komunismua'kin ere. Idealoji ta erlijio guziak gorrotatzen ditu zio onegatixe, bere ustez guzi cek gizona amaraun-sareak elbia bezela atzi ta itozten dutelako

Suezia'ko Izkuntzaindiakin Camus'ek egungo problematika argi ta menez dakusanik aitor ezin ba'genezake ere, ezin uka Prantzia'n den irakurrietakoa danik. Guziek bere elerti-jardunetan somatzen duten seriotasuna, egi-griña, iatortasuna ta "gizatasun" berezi ori baitipat, nabariegidala derizkiot nolana ukatzeko. "La Peste" eleberriaren argitaraldi guziak azaldu orduko suntsitu zirala ikusi besterik eztago, bere elergintzak izan duan artu beroa balesteko, ta duan garrantzi aundia onartzeko.

- - -

"Albert Camus ou l'honnêteté désespérée", onatx labor eman A. Camus'en barrugiro osoa. Moeller ospetsuarena dituzu itz oek, "Littérature du XX siècle et Christianisme" liburu aipagarrian egille oni idazpurutzat ezarriak. Kidetu-edo nai lituzke A. Camus eta gizatasun edo iatortasun etsi oek.

Sustrai-sustraian jo dula uste dut Charles Moeller delako onek. Eta ez bakarrik gizon baten izaera-sustraian, gizaldi bateko gogo-erdian ere baizik. "A. Camus'en mezua iatorra dugu. Xeeke aztertu dut bere elerti-alor osoa, gizaldi baten barne-tankeraren aitor lerdena dalako: gurearena, alegia." Onela dio aipatu egilleak.

Iatorra benetan Camus'en elertiera. Naizta surreneko jardupenak erromantiku-kutsua eramane, egi-istaren lillurapean jarduna dugu arrezkero. "La Peste" delakoatik baitipat. Etzuten inola guda-osteko esistenzialistek bere sare biguinetan atzi al izan gure egillea, beste ainbat bezela. Bolara batean bestera uste izan zan, eta ontara epaitu zuten, baiño ondo egiztatu da bere gogojoerak oekin zerikusirik etzutela. Izan ere aski zan garai aietan "itomiñ", "nazka", "estipen" edo iastu ontako sentipen bat aipatzea ere, esistenzialista eritzi izateko. Ots aundiko gerta ziran Sartre'kin eutsi izandako eztabaidak, eta batez ere berarekin erabat ausi zuneko ura. Sartre berak aitortu du arrezkero bere pentsaerak artuemanik ez tula Camus'enarekin.

Dana dala, ba-ditu zenbait idazti esistenzialista-kutsu ontakoak. "L'Etranger" eta "Le Mythe de Sisyphe" kutsutuenak, bata bestearen osagarri. "Caligula" delakoa ere garai ontakoa dugu.

Alpatu idazti oek eman zuten oiñarri A. Camus esis-
tenzialisten saileko jotzeko. Baiño bidegabekeri
litzake liburu oek Camus'en elertieraren biotz e-
riztea. Ezta, beraz, Camus oetan azaltzen dana.
Jakin-dakigunez 1938'tik 1942'era biriketako gai-
tzak jo ta oeratu bearrean arkitu zan. Kinkaldi
ontan iñtuak dituzu eleberri oek. Ezpide (absurde)
itza ia orrialdeka darabil. Gorputz-gaitzak gogoa
ere jo nunbait. Baiño bein suspertu ta benazko
lanari ekin zionetik erabat erautzi zun ezpidezko
bide illun ura.

Eraikitzalle, baikor, gizabera dagerki-
gu beti baitipat gure Camus. Ezta bere elertiera-
sustraiian Sartre'ren "néant" edo "nausée" senti-
pen deusezgarria finkatzen, "bonheur" edo "Sysiphe
hereux" baikorra baiño. Camus Sartrek bezela e-
tsizkoa derizkiote giza-jomuga, baiño "gizona
alperrikako griña besterik ez da" aitor bearrean
"Sisifo zoriontsu dela pentsatu bear", dio Camus'
ek. Naiz-ta ta zoriontasun au ain iturri berezie-
tatik sortarazi bear. "Noces" (eztaiak) eleberri
batein asi ta bere beste idazti nabarmenenari
"nardagarria baiño zer-miretsi geiago dago gizo-
nagan" azken lerro oek ezarritako egillea, argi
dager artu-eman gaitzak ditula esistenzialistekin.

Ez da ere bere barrupean "esitutako"
gizona. Gogo idekia du, elkar-izketarako beti
prest. Urteak dira prantziar dominiko-etxe batek
elkarrekin jardutera deitu ziola. Elkar-arteko
jardunaldi aiek gauz konsolagarri bat jarri zuten
agerian: elkar-izketarako gogoa, guziek bat etor-
tzeko bearrezko bide. Camus'ek argi ta zabalki
azaldu zituan bere itzalak, ardurapenak eta ito-
miña bera ere. Bildur gabe aitortu zan etxe oso-
aren aurrean, onek bere siñeste-eza ulertu ta
begirunez ikusiko zula ziur. Eta, desberdintasun
guzien gaiñetik, siñesgabea ta siñestunak elka-
rrekiko maitasun-lokarriak estutu zituzten.

Tamalik, baiño gizonaren jomuga ludi
ontara ertsitzen du. Gizonaren jomuga, jomuga-eza
da ain zuzen. Sisyphe dalakoaren antzeko da gizo-
naren bizi-jomuga: arritzar bat bizkarreratu ta
gallurra gaindu-ala arria eskuetatik irristatu
ta berriro beetik jaso bearra; eran ontan amai-
gabe. Batere sentidurik edo burupiderik gabeko
jokabidea, alegia. Ala ta guztiz ere "Il faut i-
maginer Sisyphe hereux". Zoriontasun onen itur-

burua? Ez erlijio, ez geroaren itxaropenen bat, ez politika, ez inolako ideoloji-elbururik. Oek guziak itzuri-bideak, ameskeriak, mito utsak dira. Gizonari bere jomugaren egia ezkuta nai lioketena. Eliza bera ere mito utsa da. Izaki ere, geroari begira egon bear orrek gizonaren ahal guziak melartzen ta elbarritzen ditu. Bizitzaren aurka pekaturik bada, ez da ausaz bizitzaz etsitzea, beste batean itxarotea baiño".

Naiz ta iritzi ontakoa izan, ez dario beste aunitzei bezela ozpin garratzirik. Gizonari, gizon danekero, begirunerik aundiena dio. Eliza Katolikoari bein baiño geiagotan eraso ba' dio ere, beste askotan miretsi ta goraiatu ere egin du. Egi-zaletasunak griñatzen dio jokaera iator ontan.

Ezin egokiago adiera eman Charles Moeller'k Camus'en barne-tankera: "Albert Camus ou l'honnêteté désespérée". Artetxen iritzi (Portar bien!) euskaldunon tasunik sustraitsuena dan "gizatasuna" itz onez euskeratu dut "honnêteté" au. Nori legokioke Camus'i ez da gizatasun tasun eder au? Iatortasuna, egiaren gose-egarria, gizabertasuna, begirunea. "Etsia" onen zioa? Nola etsi ez, naiz-ta zoriontsu gerta nai, giza-jomuga ain muga estutan ertsitzen duan pentsalari bat?

Bere eleberriak, bere antzerki ta bestelako idazkizunik ederrenak baiño areago miresten dut nik Camus'egan "gizatasun" doal au. Gizonaren aldeko burrukalari maratza dugu beti. Ta, burruka-griña benazko onegatik sariztatu du agian Suezia'ko Izkuntzaindiak 1957'ko Nobel-Sariaz.

Bearrezko otu zait Camus'en zogo-iduria aurkeztea, bere pentsaera eta bere arazotasuna osotara ulertzeko. Ondoren, bere problematika-muñean barnerako gera, egille ospetsu onen iduri oso bat ardietsi dezagun.

- - -

"Nik ez dut ukatzen kristautasuna egi ez ditekeanik. Ez nau beiñere arduratu. Etzait ajolik; dana esan."

Albert Camus'ek katolikoei iaulkitako itzak. Lerro oetantxe dugu bere erlijio-pentsaeraren giltza. Argi dager Camus'i erlijio-goraberak ajolarik sortzen ez diona. Jainkoa erabat ukatzen du. Ukatzeko gai ere ez da, obo esan. Ba-ditekeanik ere ez baidu pentsa. Ajolagabetasun ontan dago bere egoera berezia. Albert Camus'ek jomuga-itxaropenak gizonari soilik dagozkion gauzak derizkio. Ez du inolatan siñesten gizonagandiko ez dan nunaitiko laguntzan. Filosofi aldetik Camus'en bururapena, bakunagoa ezin.

Bere ateismu-sustraiian Jainko-ukatzeko bat baiño, Jainko-erazteko bat somatzen da. Antiteismu deritzana, alegia. Ona Gabriel Marcel'ek nola bereizten ditun bi oek: "Ateismuak onela dio: eztago arrazoirik Jainkorik ba-denik uste izateko. Antiteismuak, berriz: ezin pentsa genezake Jainkorik ba-denik". Biak maiz naasian dabilta, Camus eta Sartre'gan bezela. Sartre'k onela arrazoitzen du: bearrezko da Jainkorik ez izatea (antiteismu); zorionez, Jainkorik ez denik eskier egon gindezke (ateismu).

Zein da lenen Camus'egan bi oetan? Biak naastuan darabilzki atergabe: giza-gaiñetik altxe eziña (ateismu) eta Jainkoagan itxaroteari uko egitea (antiteismu), biak dute indar beragan.

A. Camus'en siñesgabetasuna ez da otza edo epela, beroa da. Ez du iturburu siñesmen eta iakintza arteko artu-emanetan, ideoloji-mota guzietan amorru bizi batean baizik. Gizona, zorientasunaren bearrean arkitzen dan gizona soilik, du elburu: "Gaur-egungo siñesgabetasunaren oztopabidea ez da iakintza, joandako gizaldiaren azkenean bezela. Iakintza ta erlijioa ukatzen diti egun bapatean. Ezta mirari baten aurrean lenagoko adimenaren ozkeria; siñesgabetasun griñatsua da (Note de Camus, en 1943, dans Vie intellectuelle, 1949, p.349)".

Bere siñesgabetasunaren sustraia auxen da, bada: "egi objetibu guzien ukaera borobilla", arkituko ez ote dituan etsipenak eraginda, edota arkitu ere ez ditulako nai. Luditar Gudaren ondoren izugarriak sortu zioten elburu guzietan gorroto sutsu ura. Bildur ta naska die "enda", "partidu", "estadu" ta era ontako idea biribil oei. Erresumiñ biziegia piztu baizioten Guda artan elburu aundiaren

aitzakiz giza-ondamenik bildurgarriena burutu dutenen jokabide maltzurak. Auxen du ta izanen ere erlijoari edo giza-gaiñetiko Zerbaiteri itsasteko iarkiko zaion oztoporik gaitzena.

"Itxaron al genezake A. Camus Katoliko-Erlijiora biurtzea edo abiatzea? Ezetz derizkiogu, bere arrazoi-esia ausi ez dezan bitartean". Galdera-erantzun auek dagizki Charles Moeller'k len aipatu liburuan. Elburu biribil guziak gaitzesten dituan ariora baliesten ditu gizona ta gizonarekikoak. Batez ere bere "Noces" aurreneko eleberrian nabari da izadiak eta gizaseme osasuntsuak sortzen dioten zoriontasun ta pozkarioa. Arjeliorra dugu izatez, eta ondo barruari itsatsirik derama bere sorterriko izaera berezia. Sartre berak oar arazi izan du aski dela bera Camus'engandik bereizteko arjeliar-ats au kontutan artzea. Eztu erabat ulertuko "La Peste"aren egillea, mediterrane-lurralde oen kutsu ta eragipen bereziak gutxiesten dituanak. Bere bizitzaren jardunik buruena "zoriontasuna"rena da, baiño deusezaren sentipena ta gizonaren gaztetasun dirdaitsuak, biak loturik doazke zoriontasun ontan.

Mozkorreraño lilluraturik dakusgu Camus "Noces", "L'été à Alger" idaztietan izadiak eta gizonen ederrez. Gizona ta izadiaren eztaien abeskizun bat besterik ez dira:gorputz sasoiitsuak, gaztetasun-dirdaia, neskati lirain ta ezeak, ondartzta ta ugiñak, ur gardenak, dantza ta jolasak, eguzki ta izar... Guziak eder-jario, guziak erugabe, guziak atsegin. Animarik batere ez, sentipenik ere ez, kezkarik ere ez. Oro atsedan.

"L'Etranger" eleberrian berdin dagerki-gu. Auxen litzake Camus pentsaeraren gizona. Auxen da Sisifo zorionsua. Lan egin, ondartzta, neskati bat gorputz-lagun, etxera bildu ta onela egunero. Sentipenik ez, adiskidetasunik ez, maitasunik ez, berdin an edo emen, berdin ezkondu edo ez ezkondu, berdin bat il edo ez il, eta berdin auzitegian epaitua izan edo ez izan... "besten bat bailitz" jokutzen da guzietan. Bizitari atsegin-iturri guziak xurrupa, "zer balio du, ba, idea aundienak emakumezko ille baten ondoan?".

"Le Mythe de Sisyphe" delakoan, jokae-ra ezpide oni arrazoi-oiñarri bat edo ezarri nai izan zion. Liburutto bat da, filosofi tankerakoa. "Il n'y a qu'un problème philosophique vraiment sérieux: c'est le suicide". Izan ere bizitzak sentidurik ez badu, zertarako bizi? Suizidioa dirudi egokiena. Baiño ez da onela, dio berak, zenbat eta sentidu gutxiago izan ainbat osokiro-ago biziko dugu bizitza. Bestera esan, bizitzaren sentidu-eza nabari danean inoiz baiño estuago itsatsi bear zaio. Inñundiko laguntza erauzten du zearo.

Bi buru-erailtza bereizten ditu: gorputzekoa bat ta gogokoa bestea. Geron gorputz-bizitza erail genezake; baiño geron gogo ere bai, "erlijio-sinismen bati jauzi egiñez". Iatorrago da, bere iritzi, bizitzak sentidurik ez duala jakinda bizitzea, sentidu bat ematen saiatzea baiño. Sentidurik baluke okerrago, dio.

Emen "Noces" eleberrian bezela antite-ismuarekin topo dagigu. Camus zentzu-adimenetan erabat esiturik dager. Lurresi ori gaindu ez bi-tartean derrior eragotzi bear giza-gaiñetiko argibiderik. Dana dala, nazka baiño naiago du zoriontasuna giza-biziaren oiñarri bezela. Naiz-ta zoriontasun au irazitekoa, azalekoa, zentzuzkoa izan.

Auxen dugu garaibateko Camus. Bere pentsaera bakunagoa eziñ. Gizonak ludi ontan du bere jomuga. Beste inñora begiratzea ameskeri litzake. Moralik gabe joka dezake berekaxa. Buru-piderik gabeko biziera bat eraman bearrean dago; iator badedi sentidurik-eza ontan arkituren du zoriontasunik baliotsuena. Bizia ta zoriontasuna beste edozeren gaiñetik.

Emen amaitzen da bere kinkaldia. Gaitzak aldegiñik susperturik sentitu zanean, inguru-giroak beste bideetatik abiarazi zuan. Pauso nabarmenak emanak ditu arrezkero bere egi-billa ontan. Gizona bera du eskola-bide. Bere pentsa-era-oiñarrian datzan ukaera (agonsticisme) boro-bil ori gaindituko ez badu ere, gogokoiagoa biur-tuko zaigu beintzat, lenagoko zentzukoitasuna pixka bat garaituz. Ezpide (absurde) delako itza ere erabat erauziko du bere elertieratik.

"La Peste" dugu Albert Camus'ek bide berri eta sakonagoetatik dagion eleberri famatua. Camus'en famatuena eskierki. Eleberri baiño kronika antzeko bat dugu: 1939-1945'ko gudaldia iasan izandako gizartearen kronika, alegia. Beste Camus bat ari zaigu onako ontan. Ez da leengoa. Bere nortasunaz aaztu ete dan ere ba-dirudi. "Besteen" atsekabe larrietan murgildu zaigu, bere burua ta bere burutapenak alde bat utzirik, gizarte eritsu aren oiartzun-zirrara garbiago entzun dezagun. Epopeya baten tankera artzen du. Intziri ta garraxirik gabe Camus'ek "gizonari egin zaion bidegabekeria" salatzen du. Idazkerarik bakun ta apalena aukera du. Gizartearen oñaze gorria mintzatzen da bertan Camus egillea baiño areago.

Giza-elkartasunaren sentipena darabil idazti guzian barna. Auxe dugu bere pausorik ederrenetakoa dugu auxe. Ez dager orain lenagoko ajolagabetasun ura. "Ezin gindezke urko-lagunen zoriontasunaren ajolagabeen bizi" dio Tarrou'k Rieux dalakoari. Zer dala-ta jokabide au? Zerk deragio bere zoriontasuna besteenagatik gutxies-tera? Aski da gizatasuna. Ez bestelako arrazoi biribilik iker. "Rieux n'est pas un héros. Il est honnête". Ez da kristau-karidadea ere. Atsegiñago du "samurtasuna". Gizonak elkarri zor dioten samurtasunaz orri miresgarriak ditu. Tarrou oni etzaio ere atsegin "salbazioaz" mintzatzea, "itz aundiegia neretzat", diago. Aski zaio "osasunaz" mintzo.

Giza-elkartasuna, gizonen arteko artu-emanak erlijio-mailara jasotzen ditu. Ez ordea giza-gaiñetiko erlijio batera, laiko-erlijiora baizik. Auxek dituzu bere "zoriontasunezko erlijioaren" zimendu-arriak: osasuna, gizatasuna, samurtasuna.

"Les Justes" (1949) eleberrian beste maila bat gaintzen du laiko-erlijio ontan. "La Peste" idaztitan giza-elkartasunaren iduri eder bat damaigun bezela, beste ontan erlijio orren "martiriarena" damaigu. Kaliayef, "emakume baten samurtasunaren irriki bizietan dagoan gizona", umeak bezela abesti ta algararen leiaz beti egon arren, "bidegabekeri derizkio bere zoriontasuna irixtea" besteak illun eta goibelik daudela.

"L'Homme revolté" (1951) du azkenetako eleberria. Gutxitan idatzi izan da ain gogor sasi-ideoloji askoren aurka, ta ameskerizko Paradisu baten izenean gizadia ondamedira daramatenen aurka baitipat. Orrialde gogoangarriak ditu batzu. Gure aldi oetmoi ez bezelako iatortasum sendo ta gardena dagerki. Iñoiz baiño idazle zorrotz ta umotua azaltzen zaigu, bai bururapenetan, bai idazkeran, baita arrazoibidetan ere.

Auxen dugu, bada, beste bolara ontako A. Camus egillea. Len bezelaxe gizatsu, zindo ta iator. Ez ain abeslari ordea. Len gizonaren atsegiñetan igari zirudian bezela, orain gizon beraren oiñaze-miñetan murgil dagi. Len eta orain ludi oni itsatsais, beste iñundiko itxaropenei erabatateko ukaera egiñik. Gizonaren zoriaren atergabeko aztertze onek ez ote du eskolatuko gure Camus, gizonari osertz zabalagoak aurkeztearren?

Albert Camus Kristautasunera urbildu? Estu-estu. Zaila dirudi era ontako pentsalari bat balore absolutu batzuei zindo itsastea. Ezti-tu Camus'ek bere pentsaera-oiñarriak sakonetik ikertu. Pentsa-aurretik egiñik baidauka bere aukerapena.

Ez digu Albert Camus'ek oraindik bere azken itza eman. Umotzean igali elduagoak iaulkiren al ditu? Nobel-Sariak bide-erdian arkitu du. Itxaron dezagun siñeskor Jainkoaren grazi algustidunean... Itxaropen aundiagorik ezin piztu bere burutapen-oiñarri lelo au duan gizon batek baiño:

"Il y a plus de choses dans l'homme à admirer que de choses à mépriser".

Bastarrika'tar Iñaki(ofm)

Arantzazu

PAPINIRI BURUZ ITZ BI

Zure izenari zor diotan maitasan eta begirunez idatzitako lerro aukeratuak da gero eskeintzen dizkizut. Bizi zifala idatzi ba nizan, ziur nago opamen onen entzuterik ere etzenuela izanen.

Gaur ordea, izarrak baño argiagoko izar argi orrek, oztiña baño goragoko lore urdin orrek nere opari apal eta zamur oni begi onez so egiñen diozula ta, il da gero obeto ulertuko didazun biotzkada au biotz osoaz eskeintzen dizut.

.....

Gaur gazte geranok, guda baten seme gera. Guda zelai batean jaio giñan. Amen bularretan polbora miatuaz, seaskan, kantuen ordez kañoi duntadetan loak srtzen gintzan, odol usalez aurtzaroa iñutu genduen.

Gure guraso, ta osabek, ainbat loisiniñez mamitu ta zañetako odoles aldezkatako jarraibideak loiturik idoro ditugu.

Au dala-ta gaur gazte geranok, biotz-gogoak su ta garrez beterik dauzkagu, zerbait naiaz, zerbaiten billa, geldi eziñik, artaga ta atsege, amets baten gosez, zorionen baten egarriz, aunditasun baten antsiz, pake ta guda naiez, gozo ta gazi billa, ta norako bideari ekin ez jakiñik.

Askotan, sortu gintzan aitzak, erne ginduen amak ez digute biotz ondargabe onen gose ta utsunea ulertzen.

Aintzaren loi artean moskor-lotan dagozenak ez ditugu inbiri. Aulak izaki ez gera indartsuen beldur. Dirurik ez daukagu ta nairik ere ez. Bakar-bakarrik, gure biotz goseen antsiak nai ditugu bete.

Bizitza illuntzua zaigu, atsedanik gabe jo bear bideari, ta nai ta ere ezin gelditu.

Ez dakigu gauzetan denbora aldatzen dan ala gauzak

dabiltzan denboraren sabel barrenean dana dala ere, gaurko bizitza biarko eriotza da, gaurko lorea biarko kirats, gaurko sugarrak biarko auts mordo, gaurko eder margo biguñak biarko itsalak. Udarak udaskena dakar, udazkenak negua, egunak gabe, iturria errekan galtzen da, ta erreka itxasoan. Ta ostera, eriotza bizitz biurtzen da, kiratsa lore, auts mordoa su-gar, otzal uneak margo eder. Neguak udaberria dakar, gabak eguna. Itxasotik inñutzen da iturria.

Begien surrez dauzkagun gauzak aldatzen dijoas. Dana doa, guztia dator. Jakintzaren errailetan gabiltz, oro dakizkigu, ta ezerrez dakiela dakienak ainbat inñork ez daki.

Lur, itxaso ta eguratsen jabe gera ta bere buruaren jabe dana da bakarrik zerbaiten nagusi.

Gertutik ikusi dugu ta bera da. Begi zoli, paketsuak, begi zoli argitsuak gudarako prest. Pekatuaren etsaia eta pekatarien laguna. Jende-taldeak lilluraturik damazkiña. Bera da!

Tritzarrak antzo eguneroko lur zatia janez illunpean bizituok, iez ta belar txarrez zikindutako ixtinga ur wsteletan espaiñak busti ditugunok, ondo dakigu zer arki dugun. Berandu baña noizbait idoro dugu, zure laguntzaz, gure maitasun maitesa. "Berandu baña noizbait maitatu zaitugu ain sar eta ain berria ziñan edertasuna" (San Agustin)

Gaurgero zuri eskerrak. Egiaren gose nazu. Maitasunaren gose. Aldakuntza gabeko egia ta maitasuna. Ulermena garbi ta biziki argitzen dun egia. Biotzaren antsiak asetzen ditun maitasuna. Gudu-zelai batean jaio ta kañoi dunbadetan loak artzen gintzanentzat aita izan zera. Odol beroak zaiñak kiskali digunentzat irakasle. Argaitik, Arno-ren ertzetako legoi ezigaitz orri biotzeko oparirik zamarrena eskaintzen dizut. "Sabelak, eskuak eta buruak zebiltzen urrietan gizon bat arkitu dat" (Ibidem) Gizon au Zu zera.

Irakasle onena bezela maita zaitut, maitagarria zera-ta. Ainbat bider ikaskisun ederrak ugari zugandik ikasi ditualako nere maitasun eta eskerrak sor dizkitzut. Il ziñan, gaur zure gogo ondargabea gorputz batentzat benetan trikiegia, maitasun neurrigabeaz besarkan dago. Bañan zure atsa ta bizitza lurrean dabiltz. Geldi esiñei kerizpe atseginkorra erakusten. Maitasun egiazkoaren ixumesko loisiña.

Azurmendi tar Xabier. Donosti'ko Apaizgaia.

KATOLIKOĀ TA ZINEMA

"Aspaldiko urteotan sortu diran gauza geienetara legez, zinera berandu eldu gara katolikoak".

Egi biribilla Jose L. Aranguren'en auxe.

Lenengoan zinea uxo kontua zala uste izan genduan; baña urteen erakutsiak apurtxo bat itxartu ginduzan. Azkenik konturatu giñan garrantzi pittin bat edo ba-eukala. Baña ikusi genduantxo "begi-okerrrez" ikusi genduan: arrisku barri indartsua bakarrik iruditu iakun zinea. Oitura onen, moralaren, arimearen eta fede beraren galbide bat. Eta idaztietatik edo pulpitoetatik atzamarragaz agertu genduan arerio gorri ori, gauza aundia egingo ba-gendu legez...

Ointxura arte ez dogu bere on-indarra; zineak badiu izan bere pekatuak; europarrak aragikeria; errusitarak: gorrotoa; eta ameriketarrenak barrintz: txoriburukeria. Bere alderdi onak aundiak dira, ostera. Maitasunaren edertasuna argien bearrak dauku. Biotz-indarra, zintzotasuna, sakrifizio eta alkartasuna, beste ezerk baño garbiago goraldtu ditu. Lagunurkoaganko maitasuna bizi-bizi erakutsi dauku.

Katolikoak ez genduke, obeto esateko, ez dogu alde batera utzi bear indar berezi auxe.

"Katolikotasuna aurrera atara gura daben katolikoek, egun-eguneko mintzoera eskuratu bear dabe", diño Joseph Lorts doixtar ixtorilari ospetsuak. "Mintzoera au -itz-indarra, ritmoa, oarmena, bizitzari arpegi egiten oitutzee, eta gauzak diran mallan ikustee- zinearen berbaikune garbi ta liraiña dogu gaur, nonbaiten". Zinea deabruarena dala agertuz, katolikoak geure zinea egin bearrean, satanek zine egiten iarraitu daijala, bakar-bakarrik lortu dogu" (G. Escudero).

Deabruaren eskuetatik arrapatu egin bear dogu, eta Aita Santuak diñon bezela: argi izpi au, Jainkoaren argi biurtu.

ZINE KATOLIKOA

"Film katolikoa", santuen bizitzak, edo Ama Birjiñaren agertzeak edo antzekoak dirala entzuten oituta gagoz. Zine katolikoak, ostera ori baña landa zabala-goak dauko jostatzeko. Zine-zinta batek kristau kutsua gordetzeko, eztauka erlijiosoa izan bearrik. Geiago be bai. Victor Fleming'en "Juana de Arco" baño, "Hamlet" en kristau sustraia sakonagoa da. Fleming'enean, gai erlijiosoa izan arren, ezpaidogu goi-arnasarik asmatzen.

Askok uste dabe zine-zintea katolikoa isateko, morala be izan bear dala. Zine morala -itz au bere zabale-ra guztian artu-ta- kristarra da bai. "Moralak" garbitasunari bakarrik atzitzen ba-dautzagu, ordea, zine-zinta morala katolikoa ez izatea baleiteke. Areago. Noizbait moral alde, erlijioso alderdiaren menpeko izan leiteke, ots, moral -garbitasun- aldetik zori gaiztokoa izanarren, film oso katolikoa izatea baleiteke. Graham Greene'n "The end of the affair" nobelearen gaia daroan filma ezaugarri. Bine-zinta onetan emazteordeke-ietan sartunda dabillen emakume bat agertzen da. Azkenik maitasun lizun orrek lauskitu egiten dautso biotza, eta Jainkagana biurtuz maitasuna ta bakea aurkitzen ditu. Gordinkeria argitu arren, film au katoliko-katolikoa dozu, eta Aita Santuaren arauen barruan aurkitzen da. Zuzen edo zearka oitura txarrak zapaltzen ditun zine-zintea, katolikoa da, Aita Santuaren gogoan. Beste gauza bat izango da, film katoliko onek katoliko guztiak ikusi baleikeez. Jakiña da "Virvir un gran amor" (auxe dozu Graham Greenen nobelea zinean) ez tala danentzat aukeratu. Orretarako daukaguz klazifikaziñoak eta jaramon egin bear iake. Omelako zineak botatzean, nagusien edo gizon elduen aurrean izan da be, ondo litzake gauzak argi ikusten ditunen batek iru lau berba egitea.

Orain arte moral alderdia adi jokatu dogu. Zelan jokatu bear dogu, ostera, katolikook geure zinea egiteko?

Zine-zinta katolikoak era bitara egin geinkez: zuzen-zuzen katoliko mariña agertuz, bata. Bide zaila zine ona egiteko. Era onetako filmetan, santuen bizitzak, misiñoetako lanak, konbersiñoak eta abar erabili bearko litzakez.

Bigarren errea:apur bat zearka katoliko sustraia tinko jokatuz. Emen aitatu geinkez: "de evasión" deritxon zinea: gizon egimenaren oiartzuna bezela izango litzake; "de planteamiento" deitu daroena: geure eginbearrak begi-biotz aurrean garbi-garbi ipintzen ditu, eta erabakia geure eskuan itxi. "Ladrón de bicicletas" era onetakoa dozu; "de testimonio" esaten dabena: dokumentu bat bezelaxe da. Jazo diran gauzak jazo diran legetxe esan: "La ley del silencio", "Cielo sobre el pantano"; "de soluciones" deitua. Zaila laugarren auxe. Une baten, era baten, eta denbora baten barruan gertatua beste guztietara zebaltzea gatra da. "Mañana será tarde" umeen edukaziño kontukoa da. Zine-zinta onetan erantzun bat emotea oso zaila da. Eztira berdiñak ume guztiak...

Erreza izan ez arren zine-zinta onak egin leitezke, eta lan egin bear dogu izaki barri au, bere bidean gizonaren lagun izan dedin. Orretarako beiñenak zuzentzaile ta egille onak dituguz. Katolikotasunean tinko sustraítuta dagozan gizonak, olerkari kutsua barren-barrenean daroen gizonak.

O.C.I.C.

Katolikoak, besteen gauzak geureak baño obeto ezagutzen doguz, noski. O.C.I.C. (Officine catholique internationale cinematographique) zer dakitenak gutxi izango dirala uste dot. Ezagutzen estana, esta maitatzen. Eta orregegaitik guk katolikook estakigu geure gauzak maitatzen. Ocic. urtero iru edo lau bidar biltzen dankatoliko batzarra da. Batzar oneek zine jaiak ospatzen diran tokietan egiten ditu, katoliko aldetik onena dan filma saritzeko. Politika gauzak alderatu-ta esku aspikoen kate barik, zintzo jokatzen dau Batzar onek. Ezta zer esanaren bildurpean okildu. Artea bere maillan neurtu dau beti. Bere eritriak ez dira txakurraren auziak, ez. Katoliko baloreak aurretik jarri arren, eztitu inoiz aastu olerki eta arte alderdiak. Berak saritutako zineak ikustea baño eztaukagu.

1947'an Zampa'n "Vivir en paz" saritu eban. 1948'an "El fugitivo" Jhon Ford'ena. Mark Robsob'en "Home of the brave" 1949'an Venecia'n, eta urte beretan Gennina'n "Cielo sobre el pantano". 1950'an "Dieu a besoin des homes" Delannoy'ena, eta Venecia'n 1951'an "Journal d'un curé de cam-

pagne", Bresson'ena. Zine-zinta au ta beste Delannoy'etak burrundada galanta atara ehen. Amaikatzu eztabaida. OCIC'k bildur barik sarituak zitun, eta ez eban atzerantzarik egin esames guztien aurrean. 1951'ean bertan saritu eban Brown' en "Intrude in the dust".

Txapelketa onek garrantzi geiago lortu eian, 1952'an sari bakarra, orain artekoak baño aundiagoa asmatu eban. Orain artekoekin be jarraituko eban, eta urtean bi-iru-lau emongo ebezan, beste ainbeste zine-jaialditan.

Sari nagosi ori Ford' en "The sun shines brith" ek lortu eban lenengoz, 1953'an. Eta beste lau norlenketan: Cannes' en "Due soldi di speranza" Castellani, Venecia'n "El hombre tranquilo" Thon Ford, Cannes'n "Horizons sans fin" Breville, eta Venecia'n "La guerra de Dios" Rafel Gil' enak artu ebezan sari trikiagoak.

1954'ko norlenka nagosian Kautner' en "Die letzte Brücke" izan zan txapeldun. Beste sariak: Berlin' en, Coletti' n "La gran esperanza" k, eta Venecia'n "La ley del silencio" Elia Kazan' enak. Elia Kazan' en Film beronek 1955'ko sari nagosia; Punta de Este'ko saria "Sinha moça" k izan eban; eta Cannes'eko Mann' en "Marty" k.

Glenvillen "On the prisoner", 1956'ko sari nagosia. Trikiak: Cannes: V. de Sica'n "Il tetto" k; Venecia: "Calabuch" Berlanga' renak; Berlin: "Tuntematosa Sotilas" laine' nak. Zine au katoliko etziranak egiña da. Baña bere azken erabakia kristautasunez asea dago.

Venecia'ko azkenengo zine-jaietan Robert Bresson' ek barrero be OCIC-saria lortu dau, ta oraingoan nagosia izan ba. Bere filma "Un condenado a muerte se ha escapado". Prantsi'ko zine-zuzentzalle auzerak, katoliko zintzoa dogu, eta bere zine-zintzak bere sinisman berocaren inxarrak daukate. Beralako zine-zuzentzalleak ugari ba legozi.


Aurtengo Venecia'ko saria, Fred Zimeman' en "Sombrero lleno de lluvia" k lortu dau, eta Berlin' goa Sidney Lumet' en "Los doce hombres enfadados" zine-zintzak. Berlin' go au epai-mai bietan saritu eban.

Sariketa onek gogoan eukitekoak ditugu guk katolikoak. Baña sarritan ba dira be estakigu eta gure errebis-

ta ta egunerokoetan mutik be eztoqu egiten. Orregaitik bil-
durrez pentsatzen dot: konturatu ete gara, oraindik, katoli-
koak, zine geure eskuetan artzen dogun egunean indar barri
aundi baten jabe izango gareala?

J. K. Guarrotzena.

Arantzazu^{ko} prantzizkotarra.



LOURDES'KO

MARI-

BILTZARRA

Lourdes. Asi berri dugun urte ontan, ez da izango Lourdes baño gertaera nabarmenagorik. Aundiegia ere bada jazoera su urte bakarrean gelditzeko-ta. Jakingarri asko izango dira Lourdes'en urtearen zear. Emen Internazional Mariologi-Maritar Biltzarraren berri zertxobait esan nai nizuke. Gero, bukaera bezela esango dizut beste zerbait Lourdes dala-ta lakinlariok zer egitea asmatu dugun.

o

o o

1958'ko urtea Lourdes'ko urtea da. Azkar esaten da ori. Baña urte oso osoa gainezka jarriko du gertaera orrek. Eun urte dira Lourdes'en Andra Mari agertu zala; eta urte ontan trinkotuta bezela biziko dira Lourdes'en eun urte oiek. Gotzai ospetsu batek zionez, Erroma kendu ezkerro, Lourdes da Kristaudiaren tokirik biotzena. Iñun bai, eta Lourdes'en betetzen dira iñun baño osoago Elizaren batasun, katolikotasun, eta apostolikatasunak. Erroman ezik ez dira iñun biltzen Lourdes'en ainbat gotzai; iñun ez Lourdes'en ainbat enda, zibilizazio, kolore ta izkera desberdin. Baña desberdintza guzti oiek goimaitasun batek, siniste batek, Ama batek elkartzen eta batzen ditu. Lourdes Eliza bera da trikiagotan.

Arritzekorik ez dago batere. Gizadi gixajo onek Ama baten bearra dauka, bere zarpillak konpondu eta elbarriak sendatzeko. Eta orixe arkitzen du Lourdes'en. Ama bat:

biotza erabat ase dezaiokeen Ama ori. An arkitzen du gizonak gorputzeko osasuna, eta animak pakeratzen dituan fedea. Andra Mari Kristo'ren eta Elizaren Ama da. Mari-teologiak irakaspenetan ematen digun ori, bizi egiten da Lourdes'en.

Benetan jai aundiak izango dira aurten Lourdes'en. Ba-dira, ordea, batzuk parte artzera beartuago daudenak. Eta Marilariak dira auek. Andra Mari'ren bikaintasunak maitzen ibiltzen dira beti, eta ez litzake jator izango olako aukera bat galtzea. Ori dala-ta, mundu guztiko Mari-Baltzuak bildu eta Internazional Biltzar bat eratu dute Lourdes'en 1958'go agorraren 10-17.

Mari-baltzuak asko dira munduan barrena. Baña elkarren berri jakin eta guztien indarrak obeto biltzeko Baltzu nagusi bat dute Erroma'n. Nazio guztietakoak osatzen dute Baltzu nagusi ori: Internazional Maritar Akademia da. Beronen maiburu A. Karlos Balić, prantsizkotarra. Guztioak dakigu Internazional Maritar Akademi onen gaitasunaren berri. Batez ere 1950 eta 1954'gn urtean Erroma'n izandako Internazional Mari-Biltzarrak nola eratu zituan ikusita gero.

Baltza heronixe eman dio, ba, Sede Santuak Lourdes'ko Internazional Mari-Biltzarraren zuzendaritza. Zabalegiak dira langai suek zalapartaka egiteko, eta ori tajutzen oromen dabilta askeneko iru urte auetan. Egiteko orren kargu artu ezkerotik, Internazional Biltzar ori zernolako izatekoa dan aditzera emanaz, idazki koxxor batzuk argitaratzen asi zan "NUNTIA PERIODICA de Congressu Mariologico Mariano Internationali in Civitate Lourdes..." izenarekin. Lenengoa, 1957-2-11'an argitaratu zuan. Bigarrena, 1957-7-16'an. Oietan esaten danez bizkia izango omen da Internazional Biltzar ori: Mariologitarra eta Maritarra.

Ezbestelakoa aukeratu dute jardungai Lourdes'en eta olako oroigarritan jaulkitzeko: "Maria eta Eliza". Orixe da gai-buru biltzar bikoitz ortarako. Alegia, Maria'k eta Elizak elkarren artean daukaten zerikusi miatu, eta batez ere Kristo'ren Gorputz Mistikoan, Elizan, Maria'k betetzen duan tokia argi eta garbi jarri. Gaiburua, bai, berdiña; baña ez elburuak eta ez jokabideak ez dira berdin bi batzar oietan.

MARIOLOGITARRA.

Internazional Mariologi-Biltzarra agor-
raren 10-14 bitartean izango da. Onen elburua jakintza e-
gitea da, eta jokaerak ere jakintzazkoak. Agerian dagonez ez
dituzte astinduko leendik erabakita dauden gaiak. Aurreratu
egin nai dute, eta illunetan daudenak, eta asmatu ditezken be-
rriak aztertu nai dituzte. Orain arte bi izan dira Marizti-
Biltzar Internazionalak. Lourdes'koa izango da irugarrena.

Jardungai oso zabala da. Eta indarrak ez galtze-
ko amabi sailletan banatu du zuzendari-Baltzuak. Katoliko
Istituto bakoitzari (Mariologi-Baltzu, Akademi, Unibersidade-
ei eta...) puntu zeatz bat eman dio sail ortan ikertzeko.
Alabaña, tituluz auei bakarri eman izan bazaie ere, gaia ondo
ezagutzen duten beste guztiak ere ba-dute eskubide itz egin
sal izateko. 150 teologari baño geiago omen dira itz egite-
koak. Entzungarria benetan! Lan guztiak azaltzeko tarterik
ez da izango. Baña lanek erabat erabat erabilli bear dituz-
te gaiak. Gero izango dute toki Biltzarraren aktak egiten
diranean. Emen argitaratuko dira lan guztiak.

Berriematea besterik ez da au, eta labur labur ja-
rriko ditut emen amabi sail oietako gaiak:

1.- Maria'ren eta Elizaren arteko paralelotasuna. Idaz-
teun eta Eliz-Tradizioa miatu ondoren, zernolako agertzen
zaigu Elizarekiko Maria'ren iruditasuna?

2.- Kristo'ren Birrerospenean Maria'k eta Elizak dauka-
ten lankidetzeta edo kooperazioa.

3.- Elizan Maria'k daukan erregin-eskubidearen oinarria,
izaera, eta jardunera.

4.- Maria Elizaren Ama; eta Kristo'ren Gorputz Mistikoan,
Elizan, Maria'k daukan egitekoa.

5.- Jerarkizko ta espirituazko apaizgozarekin Maria'k dau-
kan arremana.

6.- Maria ta Elizaren Eukaristi-bizitza.

7.- Maria eta Elizaren zabaltze-sendotzeak.

8.- Maria eta Elizaren batasuna.

9.- Maria eta Elizaren apostolutza (mixioak, katoliko egintza, irugarren ordenak...).

10.- Mari-agerrerak; eta Elizan oiek euki duten ardura. Antziñako agerrerak eta oraiñaldietakoak. Lourdes eta Fatima batez ere.

11.- Mari-kultoa Eliz-liturgian: jaiak, santutegiak, erromeriak.

12.- Maria eta erlijio-ertia: batez ere Maria'ren eta Elizaren arteko paralelotasunari dagokionez: Elerti, Pintura, Eskultura, Musika.

Gure garai auetan idoroketa aundiak egin dira Idasteun-jakintzari dagokionez. Ori dala-ta, ikututxoren batzuk, ego geitxoago ere bear bada, egin bearrean arkituko dira marilariak beren dotriñeri. Dogma aldatuko ez badute ere, beren uste ta argumentatzeari beintzat begibatutxoren bat eman bai. Bat besterik ez aipatzeko: "Anunziazioko FIAT ura esan zuanean ba al zekian Maria'k bere seme izatekoa Jainko zanik? Eta FIAT berori esatekoan ba al zekian Kristo'ren erriotsako berririk?" Idazteunetan miatu bear da ori, eta ez datoz danak bat texto oien adierazten. Ori baietze edo ezetzeak, berriz, goikozbera aundia ematen dio Korredenzio-dotriñari. Egiari jarraitu, bai, etagsuzak zein bere tokitan jarri bearra dago. Beste orrenbeste esan "Maria'ren Amatasun orokarrari" eta "Maria'ren apaizgoari" buruz ere. Ertsi bear asko dago oraindik.

Tradizio kontutan ere neurtu egin bear da oraindik dotriña bakoitzetan Tradizioak daukan balioa. Oraindik ez da zeaztu Eliz-gurasoen ustea "Maria'ren eta Elizaren arteko zerikusiarri" buruz.

Eliz-irakasletza edo Magisterioak ere itz egin du. Baña oraindik ez da neurtu mende-barrutia edo zabaleroa. Ba-dute auekin zertan jardun merilariak.

Orain beste bat. Jakintza aldetik begiratuta au ere. Ba-da zerbait teologari, filosofari ta jakintzalariak burubelarri dakazkiana: Miraria. Eta Lourdes'en mirari asko giten da. Mirariak betebear aundia dauka Elizan. Apologe-

tika aldetik Eliza bera ere miraritik zintzilika dago: "Kristo illen artetik berpiztu ez bada,alperrikako da gure fedea" (S.Paulo).

Tradizioak onela saildu du miraria: edo izatezgoarengoitik (supra naturam),edo izatezgoaren kontra (contra naturam) edo izatezko legeen kanpotik (praeter naturam).

Gaurko Jakintzalariei,berriz,tripakomin aundia ematen die bigarren mirari-mota orrek,eta ez dute onartzen. Izatezgoaren kontrako miraria,alegia, Esan ere egiten dute auk: "Ez Lourdes'en eta ez beste iñun,ez da sekula ikusi soinki edo gorputzeko atal bat erabat osatzen: beso,anka, edo begi bat esate baterako". Oien ustez mirari guztiek,izatezko legeak bizkorragotu besterik ez lukete egingo. Baña zerbait irazan eta sortu?ezta iñola ere.

Lazaro'ren berpiztuera,ostera,ezin sartu diteke gaurko jakintzalarien mirari-mota oietan. Izatezko legepean al dago lau egunez usteltzen dagon gorputzari berriz anima batutzea?...

Baña okerrena auxe: katolikoezak ezeze,katolikotarrak ere ba-dirala bide berri ortatik abituak. Eta berebiziko nasmena sortzeko bidebidean gaude,ia bertan buruzbera ez bagaude ere. Orra,ba,gauzak alderdikeri eta aurriritzi gabe neurtzeko eztabaida otz,lasai eta objetibo baten bearrean gaude. Ain zuzen Lourdes'ko auxe da aukera bikaña jakintsuen iritzia bildu eta arrazoiari dagokion bezelako erabakiak emateko. Lourdes'ko mirarietan,berriz,toki txit apartekoa daukate sendalariek. Oti dala-ta,amabi sail aundi oien ondoan,beste tarteko sail au sortu da: sendalarien saila,mirariaren goraberak azpi azpitik aztertzeko. Sendalari-sail ontan mundu guztiko sendagillæk artuko dute parte. Batez ere Lourdes'ko sendaketa-mirariak estudiatzeko dira.

Orain dator korka.Erabakiak objetibo izan bear dute. Baña ortarako,miaketa edo oserbazioak ere berdin izan bear dute objetibo. Ostera,gure oargallu edo oserbatzeko tresnak oso inperfekto dira. Gure aurrekoentzat jakintza-balioa zeukaten erabaki asko eta skoel,ez diegu guk jakintza-indarrrik ematen. Bide berdiñez,ez du batere arritzekorik izango,urrengo jakintzalariek gure bakteriologizko eta

radiografisko analisiak gutxiesten badituzte. Ortik, bear bearrezko da mirarien alde aldakorrak eta aldaesiñak zeaztea. Sendagille-sail onek bear bezela jokatu ezkeru, eta filosofarien eta teologarien laguntzarekin, bere tokian jarri aal izango da miraris. Auxe itxaron dugu guztiok.

MARITARRA.

Internazional Maritar Biltzarra agorraren 14-17 bitartean izango da. Maritar Biltzarraren eraketa Mariologi-Akademiei ez baña nai dute guztiei eman saie; Katoliko Egintzatarrei batez ere. Mariztitarra jakintza egiteko baldin bazan, jakintza ori animan ezarri eta Mari-teologiak ematen dizkigun egin aundi bikain oiek bizitzen ikasteko da au. Mari-kultoaren elizkizun eta agerraldi aundietan zertuta egongo da. Aurtengo Maritar Biltzar au amargarrena da olako Internazionaletan. A. Balić en esatez "oraiñarteko Biltzar guztiak gainduko omen ditu onek: bai jaietaren sakonagatik, bai errieng parte artzeagatik, eta bai erlijio-agerraldien ikusgarriagatik. Eta au Lourdes'k toki apartekoa daukalako Elizan; eta batez ere, eunurteko baten maritar dotriña ta jaietaren errematea bezela agertzen zaigulako Biltzar au".

Berebiziko elizkizunak izango dira: Jaunartze generalezko mezak, Gotzai-elizkizunak, prozesioak, sermoiak eta itzaldiak etab... Jakintza egiteko ez baña debozica piztu eta sakontzeko dira guzti auk. Orregatik "konferentzietan alde batera utziko dituzte teologarien arteko eskola-estabaidak. Beren esanak sukarrez bizkorturik Elizaren Mari-dotriña banatu bear dute argi eta garbi: Ama Birjiña'renganako jaietarak Elizarentzako eta gizadi osoarentzako daukan ardua bete betean agertu."

Emen ere "Maria eta Eliza" izango da jardunburu. Beti, ordea, ez Mariztitarrean bezela egiak-eta billatzeko, jakintzari eragiteko, ez; Mari-teologi orren egiak zertu eta bizitzeko baizik. Iru Billera-mota izango omen dira; jardungaiak ere bereziak bakoitzarentzat. Labur esanda onelatsu izango dira jardungai oiek:

I. Gustientzako billera nagusietarako:

- 1) Elizaren edo Jainko-erreimuren garaipena Maria'

ren bidez. Zer esan nai du arako "cunctas haereses tu sola interemisti" arek?

2) Lourdes eta Elizaren edo Jainko-erreinuaren garaipena Maria'ren bidez. Lourdes'ko gertaeraren esanaia eta ardurra: Lourdes eta apologetika, Lourdes eta miraria, Lourdes eta onbideratzeak...

3) Maria gizonen Ama. Mariaren erruki orokorra.

4) Maria eta Eukaristia. Maria eta aldareko Opari santua, Lourdes eta Eukaristia.

5) Mariaren kulroa. Kristauak Maria'rekin dauzkaten betebeharrak. Elizaren edo Jainko-erreinuaren garaipena Maria'ren bidez lortzeko elpiderik egikorrenak maritar eskeintzak dira, bai bakoitz-eskeintzak, bai talde-eskeintzak.

II. Kleroaren billera nagusirako: Maria kleroaren Erregina.

1) Apaiz eta erlijiosoaren goideitze ta ezieran Maria'k daukan egitekoa.

2) Maria eta apaiz eta erlijiosoen dintasun-santutasunak.

III. Nazio eta izkera bakeitzen billera beresietarako:

Maria'ren agerrerak:

1) Lourdes'ko agerrerak Fatima'koarekin eta Elizak onarturiko beste Mari-agerreraekin daukan zerikusia.

2) Naturalismo ta dialektikazko materialismoaren zabaltea, eta Lourdes'ko eta Fatima'ko Mari-agerrerak. Arako mari-igarpen aien benetako esanaia: "Errusi onbideratuko da", eta: "Nere Biotz orbangabeak garaituko du deabrua".

Zeruko Aitarez jaurerri-miña euki bear dugu guztiek: "Betorkigu zure Erreina". Alegiñak egin bear ditugu ortarako; jaurerri orren mugak gero ta zabalagotzeko, eta gizaki guztiek "Zeruko Aita" bakarraren seme izan ditezten. Egiteko auzo dute Mixieak, Katoliko Egintzak, eta beste katoliko Elkartasun guztiak. Baña Jainkoak ezarri duan ekonomi ontan, ezin diteke ezer iritxi Maria'ren bidez ez bada. Ai-

taren etxean sartu nai dezanak Maria'ren atetik sartu bear izango du. Maria da Grazi guztien Banatzaldea.

Nai ta naiezko dugu, ba, Maria'ren erreinua mundu guztian zabaltzea. Ortarako ez dago ezer egokiagorik gure burua, familia, aberriak, eta mundu guztia ere Maria'ren Biotz zikin gabeari eskeintzea baño. Eskeintza ori egertzeko ezer ez bidezkoagorik bein-da-berriz otoitzaren, errosarioaren eta erromerien bidez batez ere, Ama Birjiñari ots egitea baño. Maritar Billerak ere oso onak dira zaleen biotz-indarrak beroagotzeko. Eta Maria'ren erreinua bazter guztietara eramateko biderik eroso ta egokienetakoa, maritar prentsa sendo baten ezartzea da.

Auek guztioek astinduko dituzte Lourdes'ko Maritar Internazional Biltzar ortan.

LOURDES ETA IAKINLARIOK.

Aunditxoak dugu Lourdes'ko gertaera su, Iakinlariok ezer esateke utzi genezan. Jakingarri asko eta mardulak ditu Lourdes'ek jakinmiñez gabiltzanontzat. Eta gure aldizkari onen mailari dagokionez, Lourdes'ko egia argi eta garbi jarri dezaiguten lan-sorta bat antolatzen ari gera.

Ezen ikusiko dugu zer balio daukan Lourdes orrek Teologiaren begizulotik ikusita. Lourdes'ko mirariak ere sakon eta zabal erabiliko ditu, sendatze miragarriei Elizak ematen dien indarra poliki poliki neurtuaz. Beste lan batek esango digu olako goiagerrera bakoiztarrak zernolako fedea eskatzen duten. Itz gutxitan esateko, lansorta orretzek emango dizkigu Lourdes'ko gertaera ezbestelako orren aundiurkiñak. Eta eman ere kritika-galbaias garbituta gero.

Lansorta berezi bat bezela agertuko da ori. Baña izango dira ortaz gaiñera, beste lan politikak ere urrengo YAKINETAN. Idatzi nai dezanarentzat tokia ba-dago.

Fernando Mendizabal
prantziskotarra.

MĀOMARRĀK ETA KOMUNISMOĀ

Guziok dugu Erdi-Sortaldean gertatzen ari danaren berri. Batean Israel, bestean Suez'ko ur-bidea dala, or dabilzkigu, txiki ta aundi, mokoka etengabean nazioak. Bertako txikiak egur-karreotan ta ain txiki eztiran beste batzuk su-pitzaille.

Europa'r gerratearen ondoren, Turkia'ren menderrria puskatu, ta Inglaterra-Frantzia'k artu zuten eskuetan Erdi-Sortaldeko zartaiaren kirtena. Ez luserorako, ordea. Nasio morroi oiek - Jordani, Siri, Libano, Ejipto, Irak, Iran... - , batak bestearen atzetik, guziak altza dizute burua, baita morrontza aguro asko astindu ere. Baña gogoak gogo, bearrak aundiago. Nola edo ala biali dituste etzetik, eta orain etxea norik txukundu ta zaindu estaukate. "Tispe-la nai ta bururik ez", orixe da oiei gertatu zaiena.

Graindik ere norbaiten bearra izan ba... Ta belea sarraskira bezelaxe, zeozeren usaira egin digute agertua betiko biak: U.S.A. ta U.R.S.S.'ren atzean ikurtatzen zaizkigan arranoak eta artzak.

Emaille itxuran biak: Eisenhower-dotriña dala-ta, 200 milloi dolar oiei txin-txin-soiñu gorra aterez James P. Richards Jauna; Errusi berriz, Ejipto ta Siri'kin eskuzabalarena. Ezpainetan "otzok" eskeiñia erabiltzean, beren barnetan "ekatzak." esaten biak.

Egi esan, parregarritzat joko genuke besterik ez-pageneki, bi oien ibilbidea: Sasoz gainezka dauden "gizon-puska" biak "eskola-mutikoeri" laguntza eske!

Asko esan nai du ordea emen eskola-mutiko auen laguntzak. Izugarri nunbait, Sortaldea ta Sartaldea alako alegiñetan dabiltzanean. Zein aldetara etzango ote zaizkigu Mahoma'r nazio auek? Jausiko ete Komunismoaren atzaparreran? "Similis similem quaerit" esan oi da, ta eztakit ba nik...Mahoma'rgoa Komunismoaren anai aiña ezpada ere, lengusu "propio" edo or nunbait ba-dugulakoa ere esan izan dute-ta. Antzak antz, zein bidetatik dabilzkigu nazio oietako erri-agintariak? Zer dio aginpide guzien iturri bear dun erriak?

Bai al du mahomargoak zerikusirik komunismoarekin? Nundik eta norik begirutzen dion ikusi bear, Jakiña da ipar-ameriketarrak darabilten slogana: "Islam'a komunismoaren kontrako eusgarri sendo dugu". Iritzi orren arrazoiak? Gertatzezko zer batzuk alde batera utzita, Mahoma'ren dotriñari dagozkion auexek: Islam'ak Jainkoagan sinisten du: "Ala dugu Jainko ta Mahoma bere iragarle". Marx'targoak berriz munda gusiaren aurrean aitortzen du bere jainkogabetasuna: "Marx-Lenin'en dotriña,edozein erlijioaren aurkako jakintza dugu". Komunismoak familia ukatzen du, erlijioek asmatutako instituzio bat besterik ezpaita bereztat. Islam'ak oster, gizartearen oiñarri bezela baiesten du biziro sendia. Mahomarren artean, aitagoi baten eskubide ta errogetzarekin, beste Abraan bat bezelaxe agertzen zaigu aita.

Kontuan artu bearreko arrazoiak auexek. Biñ artean berezitasun aundia jartzen digute, erre-erroko desberdintza jarri ere. Beste zenbait ikuspegitatik begiruta, ba-dute ordea alkarrekin zerikusi. Batek baiño geiagok baieztutako gauza auxe, mahomar nazioetan eta Errusi'n. Bai, baita Errusi'nbertan ere.

1917'ko matxinada ondoren, bereala ekin zioten komunistak erlijio-kontrako zabalakundeari: "Revolutsiya i Tzerkov" (Matxinada ta Eliza) eta "Naouka i Religiya" (Jakintza ta Erlijioa) zituzten ortarako bi aldizkariak.

1923 arte Islam'aren aurkako ekiñaldiak noizbe-inkakoak izan ziran bakarrik. Komunista alderdiak urte on-tan izandako XII'gn. batzarrean eraiki zuten 1941 arte er-lijio kontrako lanak zuzendu ditun "Jainkogabeko Militan-teen alkartasuna". Baltzu onek eragin zion suari. 1928'tik 1938'ra bitartean batez ere, esku latza erabili zun Erru - si'n bizi ziran - 30 bat milloi mohomarrekin: Koran-eskola itxi, Meskitak ere bai, konzentrazio-lekuetan sartu... Za - kurrarenak eta bost egin zizkieten.

1939'an gerrate-aundia asi zan, eta - somena ga-rrantzi aundiagoko beste arazo batzutan zeukatelako, naiz musulmanak berak agintarien esanetaratu zitzaizkigulako edo... bietatik agian zerbait - bigundu ziran orratik apurren bat jazartzailleak. Ordudanik erlijio-politika be-rrri bat sortu zan, baimentxoren batzuk ematen zitun politi-ka. 1954'an Kruxtxev 'ek emandako erabakiarekin asi zitzai-gun erlijio guzien aurka egiteko jokabide berria: jakintzaz-koa alegia; ez len bezela, odolezkoa.

Indarraren bidez lortu etzutena, bigunkeriz iritxi zuten, dirudinez. Guda-denboran burua makurtu ta komunisten esaneko egin bide ziran mahomar geienak. Orrela dio gai oni buruz lan sakon bat egin duan Vincent Monteil'ek. Beronek dionaz, euneko 1'80'ak bakarrik jarraitzen dute erlijio- -oiturekin. Gaiñetikoak berriz, axala bear-bada mahomar ba-ti dagokiona ta ori badaukate, asko. Ezta arritzekoa beraz, itxurazko islamdar oiek diotena esatea: Komunismoa ta Maho-margoa bat-bera ditugula alegia, bata bestearentzat egiña. "Islam'a gizadi osoaren erlijio danez, ezta iñola ere lan-gille-estadunaren etsai; etsai ez baiña bere oiñarririk na-gusienetako bat izan diteke ta ala bear du izan". Maillarik gabeko gizartea dakarkigutela biek, ala zion 1942'an Baku'n izandako islam-batzarrak; biak dirala orekor, nazioz gain-dizko... ta makilla-pean dagon zakur gizajoaren aiuma larri-tzat jo genitzaken onelako beste esate asko.

Bestela jo oi du kukuak Errusi'tik kanpora. Komu-nismo ta mahomargoaren artean ba-daudela puntu berdiñak, aitortzen dute ori; desberdin diranak ere bai ordea, ba - dauzkatela, laister gaiñeratuño dizute. Guda-Aundia baiño len Londres'en ateratako "Panislamism and bolshevism" libu-

ruan esate baterako, S.M.H.Kidwai'k eun bat orrialdetan ematen ditu bien arteko zerikusiak, eta ondoren beste aintbestetan, berezitasunak. Pakistan'go olerkari buru dugun Muhammad Iqbal'ek ere berebat deriskio: "Bere biotza, dio Karlos Marx'i buruz, sinistun batena dugu; sinisgabe batena ordea, bere burua. Gizartegoak (sozialismoak), gorputzean jartzen ditu soilik begiak: ta ementxe egon okerra".

Islangoa ta komunismoa erabat bereizten dituztenak ere ba-dira. El Kairo'ko Al-Azhar ikastetxe nagusia dugu ontan purrukatuen: bein-da-berritan ezetsi dute ulemak idea oietako liburu-mota: "Komunismoak, deuseztu egiten omen du gizartea... Ez omen dago Islamean komunismorik". "Deabru ber-berarena omen dugu komunismoa": onela zion Lahore'ko (Pakistan) "The Light" errebistak.

Nun egia? Utzi muturrak, ta erdi-bidea daramala ematen du egiak, arremanen bat ba-dutelakoa, alegia. Ta zertan euki arremana? Ezta erreza esaten. Berdintasunik nagusitxoen bezela, auzek izango lirake: eskukotasuna, euki ez euki, berdin zaie bieri. Guziori zaigu ezagun komunismoak alde oni buruz daraman jokaera: asieran bai, eskukotasuna gora ta bera; erria, erriaren aginpidea ba; nor-bakoitzaren eskubideak eskatzen diguten begirunea... Geroak erakutsi du "ale" oien tamaiñua. Eskukotasuna eman!... Zukutu ta bertan ito bai!

Eskukotasunik eza: orixe da Sortaldean beti nagusi ibilli zaiguna. Ta izan ere, nor bere eskuko izan!... Zertarako baiña? Bai al da gose-errian ogi-puxketaren gogorra gozatu ta bigundu dezaken gauzarik? Mahomargoaren tradizioa bera, eskukotasunaren kontrakoa dugu. Musulman pentsalari ta teologariak eskukotasuna ukatze aldera jotzen dute, bai metafisikan, bai pratikan. Bakoitzaren bere eskuko izatea alde batera utzita, "jama'ah" dalako orrekin batizatearen billa dabilta.

Islam'ak, komunismoak bezela, komunitario-gogaia ditu gizarteari buruz. Gizarte-kutsuz jantzita daukazu, bizitzan eta eriotzan, mahomar danaren jokabidea. Beraxe agiri zaigu egunero bost aldiz egin oi dute otoitzean; Meka'ra, beren Uri Santura egiten dituzten erromerietan, urteroko barau-aldian... Bost ajola zaio Islam'ari bere

menpekoen barrunbea; gizarte-erlijio danez, agirikoa besterik espaitu gogean artzen.

Bi oiesaz gainera, onako beste aukerak ere jarri gaitzazke bien arteko antz orren agergarri bezela: Jainko-naiaren agerle dalako musulman jauntxoak, edesti-gertatze-aren adierazle dugun marxtar super-gizonarekin daukan zer-ikusia; gizarte akats-gabe bat, moral-aldaketa auztu ta auzaleko zuzenera eraikiaz jaso ditekela ustea...

Jainkorik eleukaken Islam baten antzeko, burutik eginda lebilken Islam-aren pareko, ez al dugu orixe komunismoa?, galdetzen du Georges Le Brun Keris-ek Frantziako "Ecclesia"-n. Ortzin zumbait.

o

o

o

Asken urte auztan labe gori biurtu zaigu Erdi-sortaldeak. Suge ixillaren taiuan sartu zan Palestina-lur-aldeetan Israel kokorra, ta gauetik goizera, Sartaldeko altsuen laguntzarekin - auzte gogorrena! - zirti-zarta bizian guziak astindu ondoren, estadu eginda agertu zitzaigun. Etzeuden ortarako arabiarra!

Ordudanik, inguruko nazio guziak - Jordani, Siri, Ejipto, Saudi-ar Arabi, Irak, Iran ... - lenengoak besteak baino amorratuago, norberaren auzte-arazoarekin batera Israel-en kontra egiteko beste ori biakarreratu dute. Auzi oiek garbitzeko asmotan diaute sortua, gero ta ziaitriñagotzen joan dan "Arabi-ar Liga". Ekin eta jarrai, asi ta utzi, egin dituzte alegiñak. Baña alper alperrik. Or dirau Israel-ek, txiki ta gogor, idazteunetako sendotasun aparte-koarekin berberarekin. Eta okerrena: sartu ta bizi, Sartaldekoen laguntzarekin egiten ari dala. Sartalde-arren pekatua da Israel mahomarrentzat. Etziñalde-aren aurjokalaritzat daukate. Ta berez dator onen ondorio jakina: Sartalde usai dariokien edozeren gorrote ta ikusi-ezina.

Polittak aukera, Errusi-k bere sareak zabaltzeko. "Sortaldeak jaun eta jabe izateko, olerkari bear da izan" esan du batean batek. Eta estabil okerrean. Beti euki du Sortaldeak biotz-irudi-sentimena auzi, adimena berriz,

urri. Entzuten diranak, ulermen-bide luzea utsi ta zear-bidez biotzera jo bezin laister, egite biurtzen dira. Olerkari izan bear ordea ortarako! Ta bapo dakite nunbait olerkaritzan komunistak, iñor ez bezela baitiardue ortan. "Materi-zalekeria, kolonialgoa, menderrikeria... Orra zer dan arabiar guzientzat Sartaldea..." Agiriak? Begien aurrean dauzka mundu guziak: Israel, Suez, Oman,.. Aski dute olako bi-iru izen aitatzera. Laister dituzu guziak asarre beltzean bor-bor, norbait irentsi naian... Tamalez, alaxe gertatu zaizkigu asko, esan izan dan Errusi-ren "bide-lagun eta apentzearren komunistak".

Egi esan, era askotako elarteak dirala-ta, Erdi-Sortaldea ezker-alderako bideetan barna asi zaigu, bai politikariengan, bai arriagan. Bearbada politikariak ez ainbeste oraindik, Ejipto eta Siri'n ez-ezik. Bi auetan berriz bai. Bi nazio auek aurrera xamar joan zaizkigu, ta apika ez beren erruz.

Aspalditxotik dabilta burruka gorrian - guda naiz beroa, naiz otza izan- Israel eta inguruetako arabiar erriak. Auen artean, Ejipto ortzak geien erakutsi ta iskanbillarik aundienak ateratzen dituna. Gozoe Abdel Nasser dalako jauntxo ori! Ortzak - arotzak nunbait- eta zaratak ikaratzen ez ordea Israel. Eta ala artu zuten Ejipto'ar eta ejiptoar etziran Israel'en aurkalarri guziak sekulako jorraldia. Zortzi-bederatzi bat urteko kontua oraindik au.

Israeldarren metraila-sugarrez eta keez jositako zeru beltz ura burrunba izugarrian gainera zetorkion artan, etzion parregure aundirik eman Nasser'i lur-zoko aietan, ez izkillu ta ez ezer, erbiak bezela kixkurtuta egon bear izateak. Ejipto, izkillu ta gainetiko guda-tresna bearrean zegon ezer egingo bazan. Nundik edo andik lortu bear ziran.

Egin zuten 1949'an nolabaiteko izkillu-uzte ura. Ta asi zan Nasser bere amesak iritxi gogoz, alegiñak egiten. Izkilluak, guda-izkilluak nai zitun albait laisterren, arabiar guziek lotsakizun zuten nazio kaxkar ura bertan birrindu ta apurtzeko.

Deitu zun sartaldatarren ateetan. Ta auek, agin-

itzen ziotela, baiña berak ere zer batzutan itz ematen baldin bazien, bestela ezetz. Nasser'ek berriz garestitxo iritzi. Etzegen bera eskukotasuna iñoren eskuetan uzteko. Orduantxe gertatu zan "eskuzabalarena". Izkilluak? Baita Israel ta bera bezelako beste amar ja ta desegiteko aiña ere. Laister bete zuten eskabidea Txekoeslobaki ta Errusi'k.

Etorri zan gero Aswan'ge aldaparo-kentua . Dulles'ek-eta agindu bai lenengo, gero ordea or konpon uzten sutela. Besteak berriz, taka bertan eskeiña: (eskeiñitan gelditu da baiña): berak lagunduko ziola. Lex egin zun ondoren Suez'koak. Mundu guzia erdi-zoratuta ta geiago ibilli zitzigun. Inglaterra-Frantzi-Israel'ek* jaurti zituzten azkenik Ejipto'ren gain beren guda-mutil eta egazkin talde indartsuak. Eta Errusi'ren "Begira gero jarraitu!" izugarri arekin, gerra-otsak itzali ta trikizio-kee illuna zeruan galdu zaneko, an geneuzkan Nasser-da, Sobiet-ak ondo poliki bereganatuta. Gerostik, nai duana esango du Nasser'ek itzetan, baiña bere egiteak erakusten digutena orixe da: gorroto dula Sartaldeko gizon zuria. Bardintsu, Siri'kin jaso dana ere.

Gaiñetiko nazioak, finxeago dabilta, agintariak bederen. Jakiña, omurasko artu-emanetan diarduten bitartean, etzaie besterik komani ere. "Urre beltz" dalako orrek irabazi makalak ematen dizkio Arabi'ko Ibn Saud erregekoari-ta... Beste nazicetan - Libano, Irak, Iran eta Jordaniñ - nola gauzatu gero darabilzkiten ekonomi-berritze amesak, Ipar-ameriketarren dolarrei eskuetatik jaregiten badiete? Jordani'ko Hussein'ek orain bi urte, arabiarren begiko egin nairik, bota zitun andik, egia da, sartaldetarrak (englandarrak, zeatzago) arabiar lejiaren buru zan Glubb Pacha jeneralaren baitan. Baiña orainago - igazko apirillean - orra mun utzi erazi zion gobernua Siri-Ejipto'ko esker-aldekoekin tratu izkutuetan artuemanda azpi-janean zebillan - Nabulsi lenengo ministroari. Eisenhower-dotriñari ezpadatzikio ere, izango omen ditu beñipein ameriketar dolarrak-eta, beronek ere eztu gutxi esaten.

Or dauzkagu berriz Bagdad'ko elkargoarekin lotuta lau nazio oiek: Turki, Irak, Iran eta Pakistan.

* Serge ta Merry Bromberger izparringilariak (bai ger-

Sartaldearen aldeko ditugu laurok. Turki zer esanik ez, OTAN'ean bertan ere sartuta baitago. Pakistan'ek berriz, Indostan'en aurrez-aurre bere eskukotasunari eutsi nai badio, bearko zezeri eldu, ta ain zuzen Sartaldearen babespean arkitzen du segurantza. Irak'ek, Noury Pacha Saïd zarrak ba-dirauen artean, Sartaldearekiko adiskidetasun-bidea eramango duala dirudi, Bestalde, ba-du norbaiten bearra, Ejipto atzean utsi ta arabiar jendeen buruzagi izateko go-goak beteko baditu. Jokaera berdin-zamarra Zaratustra'ren erriarena ere. Libano'ri dagokionez berriz, argi ta garbi daukagu: Chamun lendakari jaunak baietzko oso-osoz onartu zun Eisenhower-dotriña.

Ala ta guztiz ere, ba-da mahomar nazio auetan bildur-iturri zaigun zezer, ots, erria. Naiz-ta gobernuak gure gogoko izan, eztugu aartu bear oraingo Erdi-Sortalde'ko bat baiño geiago erri-itsasoaren ugin bat besterik ezta-la; ta itxasoan aize zakarrak eraginda, olatu bigunaren atzetik, ekaitzik beltzena sor ditekela orruka. Arabiar erri auek ezagutu dute Sartaldeko gizonaren menpekotasuna. Ta etzaizkie beingoan osatuko biotzean daramazkiten irain-zauriak. Estute ia kristar-zibilizazio jatorraren berri ez aundirik, ez ttikirik izan. Ezagutu duten apurrak berriz, gogait-egin die, galdua etorri baita oiengana.

Damaigun orain begiralditxo bat erri oietako gizarte-auziari. Agiri al da gosea ta zarpazarra besterik? Inun izatekotan, ementxe daukagu jende xea mizeriak jota. Libano'n esaterako, urteko irabazia - orrela esan bagenezaioko- englandarren lautik batekoa($\frac{1}{4}$) dugu buruko; Ejipto 'n, bostetik bat ($\frac{1}{5}$) ta Arabi'n, amarretik bat ($\frac{1}{10}$). Irak, Iran eta Arabi'k ba-daukate aitz-olios, ugarri - mundu guziko irutatik bat or dugu - oso ugari euki ere. Erriari ordea, estakarkiote onurarik aberastasun oiek.

-tatutakoa beren bi begiz ikusi, ta bai agiri ixillen berri dutela, agiri denez) beren "Les secrets de l'expédition d'Egypte" liburuan diotenez, etzuten nazio auek iru-iruren arteko zerikusirik. Inlaterra ta Frantzi Suez'koagatik zi-joazen. Israel berriz, bere aldetik - Frantzi'kin konpon-
du bazan ere,- badaezpadako guda egiñaz.

ARAMCO amerikar aitzolio-lagundiaren tranponekin izango du berriz ere Ibn Saud'ek Kadillak luze dotoreak pillaka eros- teko aña diru, gauzak bere ortan jarraitzen badute bein- tzat. Arritzekoa ordea ori.

Errusi, bere ekonomi ta gizarte-gogaiak munduan barreiatzeko aukera billa dabil, eta ba-daki bat ederra e- mentxe daukana. Ari zaigu alegiñetan; Meka'ra doazen erro- merietan or izango dituzu ortarakoxe trebetutako bere man- datariak, ixillean lan da lan, Asia-erdiko mahomar erkale- tan komunismoak lortu dun kultur-ekonomi aurrerapen izuga- rria goraiatuz; egingo diete ots mahomar nazioeri Errusi' ko gauza arrigarriak - komeni zaizkienak erakutsiaz baña- ikusi ta ikastera etofalditxo bat egin dezaten. 1954'an bertan irurogei ta sei delegazio ziran Mosku'n eta Turkes- tan'en orrela joanda. Ortik sortu ditekena, eztago zertan esanik.

Gaitzerdi alare, arabiar oiek beren erlijioan tinko baleude. Ezta ori ere ordea. Ta Islam'aren zuzendari- ak herak ditugu bear-bada ontan errudun. Mahomar munduko idea-giroaren zuzentzaille bezela dugun Al-Azhar unibersi- dadea, geienean molde zaarrei atrikiegia azaldu oi da bere jokera ta erabakietan. Eztala gauza dirudi, sustraiak tra- dizioaren lur gizenetan euki ta egungo loreak emateko. Ez- ta mirestekoa ala, erlijioa gero ta gutxiago aintzakotzat artzea. Siniste epela du oraingo mahomar gaztediak, epela ez-eze otza ta illa ere bai. Unskeri esten dio beren asa- bak erakutsitakoari. Egoera ontan ez al derizkiogu berez datorren ondorioa, Aita Danielou'k orain bi urte Marruekos' a egin zun joanaldiaren albiste ematean dasaigunari: "Sor eta lor gelditu naiz udara ontan: Islam'aren aldean ori ten- te-indarra daukana komunismoak Marruekos'eko gaztediaren tsat?"

Irabaziko ete komunismoak mahomar jende au? Illun ageri dira odeiak beintzat-eta, bildur izatekoa orrelako zerbait. Geroak esan beza.

Zurutusa'r Joxeba K.

prantziskotarra.

ALKAR

IZKETA

AITAGUREAREN INGURUAN

IRIGOYEN JAUNARENTZAT.

Irigoyen Jaunak gaiski entenditu du nik esan nuana. Etzekian nunbait guk generabilkian auzia... Orixo izan da guzia.

Aitagurearen "nola zeruan ala lurrean" aldatzeko zergaiti asko ziran izan, guk aipatu garaian. Bañan zergaiti bat ere ba'zan, formula ura ez aldatzeko: erriaren oitura, "nola zeruan ala lurrean" esateko erriak zuan oitura, alegia; gizarte-gauza izan oi bait-da olako erri-oitura. Eta orregatik, aldatzeko zergaiti oiek gora-behera, erriaren oiturak eskatzen zuan ez aldatzea. Bañan bitarte ortan bai bait-zan beste erri-oitura hat ere: Napparroa guztian, eta Bayona'ko a'derdi guztian eta Gipuzkoaren zatitxo batean gañera, bai bait-zan "zeruan bezela lurrean ere"esateko oitura; oitura orregatik erabaki zan aldakuntza egitea. Oitura ori izan zan aldakuntza aren zergaiti ta arrazoi-bide bat.

Bañan onek ez bait-du esan nai arrazoi onen barruan beste arrazoirik etzegonik, "nola zeruan ala lurrean" -formularen kontra. Eta arrazoi gogorrek benetan. Nik ez nituala aipatu ezik nere lenagoko YAKIN'en. Bañan zekitenekin ari bait-nintzan, ez nuan aipatu bearrik ere. Irigoyen Jaunak etzekizkiela? Bañan A.Mendizabal'ek-eta, ba'zekizkiten.

Zer arrazoi-bide ta zergaiti ziran aiek? Auxe bat eta ez nolanaikoa: Latinezko Aitagurean - eta baita gerkezkoan ere - sicut ET nos dimittimus debitoribus nostris dionean, or dagola ET bat (orderaz TAMBIEN esan nai bait-du) "nola zeruan ala lurrean" esaten danean an sartzen ez

dana; eta "zeruan bezela lurtean ERE" esaten danean, ederkitxo sartzen dana: ERE. Orregatik uste izan da beti formula berriak ba'zuala arrazoi-bide eder bat formula zarraren kontra. Besteak beste, orixe: ERE orixe. Bere garrantzitzoa bai bait-da ERE orrek, edozeñek ulertu dezakean bezela. Ala ere arrazoi-bide ori gora behera, aldatu etzan aldatuko, Naparrua'ko ta Bayona'ko ta Gipuzkoa baxtar artako oitura-rik izan ez balitz. Oitura onengatik aldatu zan historice. Bañan berez, barru-barruko beste arrazoi bategatik.

Argi al dago orain?

:: : ::

Beste gauzatxo bat ere esan diteke ari onixe jarraiturik. Formula su ola aldatu ezik, beste pusketatxo berri bat erantsi ere erantsi zitzaiola, Irigoyen Jaunaren aitak errezatu oi zuan Aitagure eder arri. Ez al da oraindaño konturatu Irigoyen Jauna? Orra bada.

Irigoyen Jaunak ba'daki, erderazko Aitagurean (eta berdin baita latinezkoan ere) El pan nuestro de cada día dionean, an sartzen dal baita dáncosle HOY bat ere; eta gure formula zarrean "Eman iguzu gure eguneroko ogia" esatean etzuala lekurik arkitzen HOY orrek. Bañan, len aipatutako Bayona'ko ta Naparrua'ko ta Gipuzkoa-zatiko Aitagurean ondotxe sartzen bait-zan HOY ori... "Egun iguzu gure eguneroko ogia"... Berriz ere orregatik sartu zan formula zarrean, orain dagon puxketa txiki ori, GAUR ori; ola : "Emaiguzu GAUR gure eguneroko ogia".

Orra bada, gauzak nola diran, eta nola izan oi diran. Ez nolnai, alegia. Eta ez det Irigoyen Jaunarentzat beste esanbearrik.

A. MENDIZABAL'entzat.

Zuk errezago ulertuko dezu noski, ta zuri laburrago itz egingo dizut.

Eta lenengo, itzal pixka bat izan bear zaiola Jaungoikoaren legeko zortzigarren aginduari. Ez da esan bear: "Hic dixit, destruite templum Dei..."

Nik ez nuan esan gure Aitagurea ondo dagonik; ez dagola ain gaizki baizik. Ondo dakizu nolako oker-umeak eta zuzendu-bearrak arkitu nizkion neronek. Estagola ain gaizki, zuk diozun bezain gaizki, esan nuan nik. Als ere, bai errespetagarri; practice ez berez, bear bada; bañan bai erriarengatik; gizarte-gauza dalako, alegia.

Ta goazen aurrera.

"Barkaizkigutsu gure zorrak" etab. aldatzekotan (theorice, alegia), aldakuntza onela egin bear litzakela diozu: "Guk ere gure zordunei BARKATU EGITEN diegun bezela". Seguru al-zaude? seguru, EGITEN ori or bere lekuan dagola? Bada-ezpada, ikustatu ezazu, beste bein, Altube Jaunaren liburu bikaña. Susmo bai-det nik, zuk diozun bezela ez baño beste onela ez ote-lukean bear: "Guk ere gure zordunei BARKATU barkatzen diegun bezela". Ez al-derizkiozu?... Laugarren erantzuna eskatzen didazu, zure iru erantzunez gañera. Orra or nere laugarren erantzuna: Ez dala, "barkatu EGITEN", "BARKATU barkatzen" baizik. Elemento inquirido dalakoa emen ez bait-da zuk diozun bezela, "aditza bera", "aditzaren baietza" baizik. Eta, "aditzaren baietza", ots, cuantidad asertiva del verbo, elemento inquirido danean, ola uste bait-det Altube Jaunak esaten duan. Dana dala, ikustazu or zero-rrek (1), Eta goazen aurrera.

Gauza oiei buruz guztiok erabaki bat artu ezkerok, gizarte-gauza aldatu ez ote litekean-edo, diozu: guztiok "gure zordunei barkatzen DIZKIEGUN bezela" esatea erabakiko bagendu, alegia. Orduan, lengo forma social ura urratu ta desegiña geldituko litzakela, alegia... Bañan uste al dezu euskalzale guztiok erabaki ori artzea, gure erri guztiak artzea litzakela? Erria, euskalzaleez gañerako beste zerbait da, askotaz ere zabalagoa. Gure erabaki guztiak al-perrrikakoak lirake gai orretan; erriak bere bidetik jarraituko luke. Erabakiak gora-behera diot. Zabalkundea, apostoladua bakar-bakarrik da forma socialak aldatzeko indar duana. Baña poliki-poliki ta esarian-esarian. Erabakiz eta dekretok, ez. Forma social entzat ez da dekretorik. erabaki guztiak goora-behera, diogun berriz ere, gizarte-gauzak berdin jarraitzen dute... Ara: len ere inoiz esan det-eta suak, fraideok, konbentu-komplejoa dezute: uste dezute gi-

za-artean, konbentuetan bezela, gauzak erabakiz egiten dirala. Ez, A.Mendizabal, ez.

Beste gauzatxo bat. Gai oietan amets egitea da, gauza bat aldatu dalako, bita iru ta lau ere berdin aldatu ditezkeala uste izatea. Bat ahal bada, bi erdi-ahal da; ta iru, ahal-laurden; eta cla, gero ta ahal txikiago; eta aizkenik, batere ez, eziña. Ori ere gizarte-legea da.

Beste bat oraindik: bereizkuntzak, bereizkuntza diranez, arau orokarrak aña itzal merezi ez dutela uste izatea, ez da uste zuzena. Arau orokarra bezela bereizkuntzak ere "ala diran egite batzuek" dira; batzuek bezainbeste; eta itzal berdiña zor zaie. Arau orokarrari, baztar zabalagoa dualako, deritzaio orokarra; eta bereizkuntzari, baztar estuago dualako, "bereizkuntza". Bañan izatez (zabal-estuz, ez), izatez, biok "lege" dira; bat bezain beste; biok indar berdiñeko. Ez dago, beraz, ez bat ez bestea gutxiesterik. Goiko Jauna bezelaxe, lege da Jaungoiko, "bereizkuntza" diogun arren.

Gañerakoan, ez det beste ezer lenari erantsi bearrrik. Gogaitgarri litzake gañera. Eta neroni ere ala ez nadin, agur dizut onenbestez.

Lekuona sabarrak.

(1) Altube Jaunaren liburu bikaña berriz ikusteko esaten didazu. Nunbait, ez duzu zuk ikusteko betarik izan...!? Ikusi dut ba, beste berriz; eta "konbentu-komplejorik" gabe begiratu ere. Leendik ere bein baño geiagotan astarrikatua nintzan bertan gai berori, eta buruz nekian orrigarrena: 26 orrialdean dago. Auxe esaten da: "El euakera posee dos fórmulas apropiadas para expresar exactamente esa idea... ETORRI dator aita, eta ETORRI EGIE da aita" (Ikusi 27 or.) Gurera etorririk: "Berdin berdin dirala BARKATU EGITEN eta BARKATU BARKATZEN". Entzun? Berdin dirala zure laugarrena eta nere irugarren erantzuna. Lekuona Jauna, "seguru nago, seguru EGITEN ori bere lekuan dagola"z. Gañera Altube k berak esango dizu bere liburu bikañean, zein dan galdekizun edo elemento inquirido, clako esaeratan: "aditza bera"

" O R I X E " Jaunaren eskutitza.

Y A K I N ' E R A K O .

Arantzazu'ko teologo jaunei.

Jaunak: ez da goizegi.

Urtebete da lenengo YAKIN bialduz karta egin zenidatela, ta nik eziñez ixilik egon bear. Orain polikitxo asi naizen ontan, erantzun labur bat ematera noazue. Galdera geiegi egin duzute liburu batekin erantzuteko ere; beraz erantzun luzeagoa geroko utzi bear.

Nik gaur Arantzazu Euskal-Universidade baten a-siera bezela ikusten dut, eta ez kazakarra, bere Revista eder eta guzti. Noiz egin nezaken gure egun otarako olako anetsik?

YAKIN'en idazleek bi irizpide artu ditute, obeki esan, bi jardunbide, guzion erabateko irizpide bakarra arako Campion'en ua baita: "gure baratzako utsak geron landarez bete, ál dugula; ezin badugu, besterenera joan landare eske". Guzion erdian gaudela uste dugu, ta erabateko irizpide ortatik jardunbidera gatogean, or okertzen gera. Zergatik ori? Edo euskera ta erdera bear aña ez dakitzagulako, edo errazale ari nai dugulako. Bi jardunbide oriek, bi lege auen eredu dira: bata "alegiñik gutxienekoa" (bi gizonen izenak dauzkat buruan), eta "alegiñik aundienekoa", (Aita Urutia, esaterako). Aukeran ni onen alderago, onengandik geiago ikasten baitut beste biengandik baiño. Ikasi, bai, ikasi, sukaldeko zokoan ere. Euskal-idaleok elkarren ikasle gera oraindik ere.

ala "aditzaren baietza". Ona emen zure susmoa garbiturik.

Bidez eta egimiñez egiten diran eztabaidatan beti ikusi izaten da argiago; naiz ta eztabaidariek erabat etorri ez. Onela izan da beti jakintzan, eta ola izango ere. Agur Lekuona Jauna, Adimenak bat etorri ez arren, biotzak beintzat elkar izan ditzagula beti Kristo'ren pakean eta euskalzaletasunean.

Fernando Mendizabal'ék (prantz.)

YAKIN'ek, ots, Arantzazu'k, jardunbide bakarra artuko ote du? Ditekena da. Beti izango dira garbizale amorratuak etamordoillozale alperrak. Agertu dira garbizale amorratuak YAKIN'en ere.

Neri Arantzazu'tik geienik gustatzen zaidan irizpidea Aita Omaetxeberria'rena da, ta jardunbidea Aita Karmel Iturria'rena, bat bakarra aipatzeko. Auek gure gizaldiko (Azkue'ren gizaldi deituko nioke) gizonak dira. Gizaldi berria asmatu nai duten oriek, gure gaiñetik pasa bearko dute. Bestalde, gogor joko da oraindik garbikerira. Geroa lekuko. Zenbaitek euskerarentzat etorkizunerako dituten ametsak egi gerta belediz, Orixe au ere mordoillozaleen artean agertu bearko ote dun idurituak artu nau.

Gure Erriak bere buruaren eder-itxusi aundia du (amor propio, pundonor, Naparroan), eta ez die biderik emango existitzen da, balore positibua ta olakoeri, euskeraz obeki jarri ditezkeela. Balore, gaiñera, bestera erabili oi da euskeraz: "ba-duzu balorea, kopeta, ausardia, ori egiteko?"

Erdal-itz asko ezin eman ditugu gaur bat-batean, baiña beste asko, bai. Esaterako: "zer da k....., idatzi nai ere ez dudan itz nazkagarri ori? Humanismo ta civilizacion, beste bi aizpa oriekin, ori da nik gorrotorik aundientsuna diodan itza; aldez aldez kristautasun jatorrari ere lekua kendu nai izan baitio. Iru itz oriek izenide edo sinonimu dira, ta gaur ere erabili ditezke adiera beretsuan. Patsutan gizabidea, bestetan eskola, instruzion, (de instruccion pública, de cultura), besteetan, metafora bera gorde nai bada, landubidea edo giza-lantzea. Nik euskeraz "gizon landugabea" lenago irakurri nun, erderaz hombre inculto baiño. Nere gaztezaroen egin nitun iztegitxoetatik, asi Axular'engandik eta Iztueta'ganaiño, Mendiburu, Kardaberaz eta beste batzuk tartean zirala, an egongo da nonbait landugabea (J.B. Agirre, Eracusaldia).

Latiñez ere, surrenetik, etzegen ongi esana: agri cultura zan batez ere, eta hominis cultura esanarazten diote. Latin klasikuz ere ez diteke esan itz ori soil soilik, bere elkarrekikoa gabe. Kikeron'ek ez luke konprenituko.

Beste adibidetxo bat. Thesis. Onak ere, jatorrizko izkuntzan, griegoan ez digu oinarririk aski ematen, ongi itsultzeko. Thesis, nik lenbizi ikasi nunez, arsis en buruz-buruzko itza zan, eta koru-maisuaren orpoa lurrean ezartzea dakarkit burura. Tithemi, Isugarren adieran "egi bat ezartzea" zan. Edozein izkuntzatan obe litzake adierazte bakarrerako itz bakarra, ta gu muga ortan gaude, asieratik ondo ipintzeko. Beraz, thesis, egi azalkizuna, egi azalbearra edo olako zerbait, egi kendurik ere, Thesis baiño errezago euskaldunarentzat.

Zertako bi itz ? Ona askoren oztopoa. Igaz galdegin zioten gure idazle jator dan "Ibar"i Parroki aundi batean, nola esango luken Asumpziño. "Zerura jasoera", arek. Ez du balio, erantzun zioten, itz bakarra bear du. Jaunakiek etzeuden ez euskeraz ez latinez geiegi jantziak. Elizak ere, bere latin mordoilloaren artean klasiku antzera ipini du kirieleisonetan. "Regina in caelum assumpta". Izkuntzak ez dira berdiñak, eta guretik erderara askotan bi alako ta geiago bear dira. Ontan utsegiteñ dute asko, idazleek. Itzen sikarrekiko legea gorde ezkeru, asko errenten da euskerara itzultzea. Ontas ba-dut zerbait esana GERNIKA'n: la ley de las palabras correlativas. Guk klasikuen antzera gauzak zeroago esan bearra daukagu. Oraingo gure inguruko izkuntza eusk mordoillokeriz beteak daude, ta gutxi erakusten digute klasikuen aldean. Eta K..... amorragarri orren izenean, guzi guzia, on eta txar, euskerara biurtzea nai dute.

Urrutiagi noa. Guk ez omen dugu 50 urteetan eser egin K..... madari madari orrengatik. Neroni jaun batek kartaz esana, eta orduko irakurtzen ziran poema ta Misal'a. Baiñan ori esanda bere urrengo artikuluan neri artusidan gizahide edohumanismo. Aurrenetik gogorregi asi ziran gastetxo oriek gure kontra, Akademi Berri batekin. Lengo akademia'k egin zun lan ia bakarra, ortografia ezartzea (bestela dira Azkue'ren eta Altube'ren bakoitz-lana), txartzat eman zuten, eta ba-zirudin oso beste idea batzukin zetosala. Apurtxo bat asalatu giñan zaxrok, eta nik, bere bere, gogor xamar artu nitun. Barkatu, jaunak. Orain guga-na pixkaren bat biltzen asiak dirudite.

Guk sitzaki asko izan ditugu, baiñan eziñ eskatu digute beti. Irakurle-mota bakarra ez diteke asmatu

euskerarentzat. Erria, erria! Erri nekazariak ez du batere irakurtzen (eunetatik batek?), bestela Ipar-Amerikan, esaterako idazleek milloika aleak atera bearko litukete. Erri irakurleak bi dauzkagu gaur: matxinada aurrekoa ta ondorekoa. Nik erri nekazariarentzat poema ta Santa Kruz apaiza ditut egiñak. Beste liburuak erri irakurlearentzat, lengoarentzat; orain irugarren irakurle-mota etorri zaigu, ark aiña ez dakiña ta eskatzen ez duna. Alare, oraingo gaztediaren berotasuna ikusirik, esan liteke gure lengo erri ikasiaren einara igoko dala. Urrengo nere liburua guzientzat izango da, Jainkoak onez, baiñan ez uste izan nik atzera egingo dudarik. Geiago eskatzen diguteneri geiago eman be-ar diegu.

Gausa geiegi datozkit burura karta baterako, ta bukatsera noa. Jainkoak ongi bagaitu, luzeago itzegingo dugu.

Oraingoz, etsi esazute erantzun labur onekin.

Ormaetxea'r Nikola.

(ORIXE)

ZUMAIA'R batena.

..... Euskera pizkundearen zutarririk bikaiñenetakoa egiz, zuek argitara berri dezuten aldizkari ausarta. Irarlantegiko ekatsak itxusitzen dutelarik, tamalez, eta irakurtzea zailagotzen...

Ikasle, apaiz, da orotariko jakitunen artean be-ronen zsbalketa alik eta edatuena egiten saiatu bear orain, Euskera ia-galduaren burujasoketarako biderik egokienetakoa dugun ezkerero.

Cure aldi bateko "KARDABERAZ" gazteiztar len-ume-aren ondorengo mardula auxe. Bejondaiolaf Idazle berriak sortu, trebetu, citu, alkartu, ta bide batez Euskera landu, gaitu, arlogaitz bideetan barrena bultzatuz, ori lanaren bearra ta ederra! "Ave Fenix"en antzera, gure ele zarra il-ondakiñetatik berpiztera ote dijoakigun susmo ernagarri bat barruratu zaigu.

Gaurko egoera makurrean, Aitagurea edo Gure Aita esan, trikerkeri (Bizantinismo) utsa deritzait. Arako bestearen... "que si galgos, que si podencos"... ura zait batetan gogora. Guztiok euskeraz otoizkera zarrean baixe saiatuko bagina, gaitzerdi.

Beste iru euskal aldizkariak ba-dute laugarren nai, ta mamiz da jantziz aundikitar gainera. Sarbiderik alegikorrena damoiogun biotzez, euskal saill etze-gorriak urrituaz, igali-baratz ta lore landak ugaltzera datorkigun morrosko gazteari. Ongi etorri bada, ta Jainkoak dio bizi luse ta oparoa!

Eta... pakearen alde "Aitagure" bat.

" YAKIN ".-

Mardula sortu zaigu gure aldizkari berri au, Arantzazu'n egiña. Bigarren zenbakiaren "Ataria"n : "Elkartzen ari gera euskal-apaiz eta prailegaioek", diñote. "Alkartasuna!"-ren billa; onela, lan ohea burutzeko asmotan, alegia.

Praile-adar batzuetako gazteak eta apaizgaiak ere gogozko oldar sutsuan, gure euskal-zugatzen altxumatu ta loratzen ari zaizkigunak; arnari yoriak uzta eder datorreneko. Gora itxaropena!

Bigarren eta irugarren zenbakiak eskuetaratu zaizkigu. Bietan goieneko gaiak ikusten ditugu erraz erabiliak, beren lenengo sailletan batez ere: "Teoloji-sailla" ta "Filosofi-sailla". Beste lau saillekin buruturik geratzen da gure aldizkari bikain au: "Kultur-sailla", "Antze ta Elerti", "Saski-Naski" ta "Elkar-Izketa".

Gai sakon oietan sartzen diran lan mamitsuak dirala-ta, lendabiziko bi sailletan batez ere, berealaxe oartu bear gai bakoitzerako peitzen diran itz bereziak; berezi ta esan-nai bakoitzerako egokiak izan ditezenak.

Eta bear onen aurrean, betiko ausia : gai goitu oiek erabiltzako orren bearrak ditugun itz berriak, euskeraz ala erderazko erroetatik eratzea; zein bide egokiena? Ba al dugu euskera ortarako emankorra? Aipatzen ditugun lan oiek irakurrita, baiezkoan egon bear, euskal-itza askoren esan-nai berezia ofen ongi ta argi azterturik baita. Bertan esaten danez, oso egokia, eiki, filosofiaren iztegi berezia egitea.

Ontan gaude geu ere; oso egoki, bai, geron gardiz, orrelakoa egitea; ez, ala ere, gai bakr batentzat baka-rrik, gai guzietarako baizik, mallaz-malla ongi eratuta-ko egitarau baten araberez.

Asieran adierazi dugunez, gure itxaropena zabaldu zaigu atsegiñez gazte adoretzu auek euskeraren alde orren gartsuki lanean murgiltzen ikustean; biotz on eta sutsu oien maitasunaz, gure izkuntza zaar onek indar berri ta aundia artuko duela ziur gaude. Ar-bitzate orrengatik, lankide guzti oiek barne-barnetik igorri nai dizkiegun gure txalo gartsuenak.

E. D.

" E U Z K O G O G O A " (Uztaila-Dagonilla, 1957)

Zorionez, kezka ginduzken aldizkari eder au beti bezela apain eta mamitsu eldu zaigu. " Aldizkari au iasoten enebalako, kezka bixi bat nuen aspaldi: aienatu ete zan, bedarrez iantzi ete iakun ba berriz ere baratza?" Onela dio batek "Irakurlearen txokoan" eskutitz-bidez. Geu ere onelaxe artega geunden.

Idazlan egoki ta polittak ere ba-dira bertan. Olerki ukigarri asko ere bai. Zaitegi Jaunak Sopokel'en antzerki oso bat damaigu bertan euskerara obeto-ezin itzulia. "Tarakingo Emaztekiak" du idazpuru. Gure Zaitegi ospetsua zoriendu bearrean gera euskaldunok eladetar elerti-filosofiak euskeraratzen ari zaigulako. Bestelako idazlan politak ere ba-ditu. "Tellagorri" Pio Baroja'renetik Etxaniz'tar Nemesi'k euskeraratua. "Txillardegiren" "Taupadak" ere egoki datoz ta iakingarri. Etienne Salaberry'ren

antzerki bat etab....

Euskaldun guzian laguntza ta begirunea merezi duan aldizkaria dugu au. Zioak guziok dakizkitzute. Zorion ta eskerronik biozkorrena Zaitegi Jaunari oztopo guzien gainetik bere eginkizunei irmo darraikielako. Urte Berri zoriontsuena opa diogu berari eta bere aldizkari eder oni eta beraren idazleei!

" Y A K I N "

" N I N I ... "

Agertu zan konejutxo familien bigarren ipuia: " Nini, konejutxo argia ". Benetako egarria dago euskal familietan umetxoei euskal-irakurgaiak emateko. " Pipo " liburuxkaren salerak azaltzen du ederki. Arrapazka erosi da ori.

Presentazioa ere egoki egokia daukate. Txukin txukib irarrita; irudiak ere txanbeliñak, kolore bixi bixitan. Orrelako asko bagenitu, gure aurtxoei beren jolasak euskeraz irakasteko! Utsune aundia betetzen dute benetan Xabin Berasaluzek euskeratutako ipuñtxo polit auk. Belaxe agertuko da irugarrena ere.

Ekarri olako asko gure umetxoentzako!

P.M.

" E G A N "

Azkena atera zana eldu zitzaigun beti bezela iakingarri. Beti noiz elduko zai gauzkan aldizkaria dugu au ere. Azkenaren zai gaude aspalditik, ots, Gabonaldikoaren zai. Geiagotan ezin al lezakete atera aldizkari eder au? Atsegiñez jasoko genuke maizago.

Urte Berri zoriontsuena opa diogu aldizkari oni, bere zuzendari, idazle ta irakurleei. Ekin etaYarrai!
YAKIN

GUTUN IDEKIAK

"O R I X E" Jaunari.-

Euskaltzale goren:

Illobatxoak aitonarekin diarduten bezelaxe jardun nai genduke guk zurekin. Maitasun berberaz, eskerron ta ausardi berberaz. Ba-dakigu jakin zure omenez jaialdi lirain bat asma ta antola zula Euskaltzaindiak. Merezi ere ondo merezi zenu.

Leiza'ko artan gorputzez egoterik al izan ez guk, baiño nork edo zerk eragotzi gure gogoei bertaratzea? Entzungo al zitun Jainkoak zure alde jaso genizkion otoi biziak!

Pago zaar zaitugu, urtetsu ta zain bizitan. Gure basoetako pago sendoei darien lurrin gozo ta ezea dario zure baita gazte orri ere. Gu, berriz, zuzan txertaturiko kima-berri bigunak gaituzu. Zugandik datorkigun zuats ernegarriari esker bizi gera. Pagoaren zain-izerdia igar dedinean, zer gertaturen txertu mengel oei? Bai, beneragarri ori, urteak eta osasuna, osasun bete, barne-gaztetasuna opa dizkitzugu illobatxuok. Irmo ta sendo ikus nai zinduzkete Aitagoi zaitugun ori!

Zuk ialki igalien mami atsegiña dastatu ez duan euskaldunik ez da. Geiegikeri ote litzake zure arnariz aziak generala aitortzea? Non arki ta gozartu euskal-bazka atsegiñagorik? Ba-duke euskal-gogoak non susper ta bizkortu, besteen larretara jo gabe.

Non baiña inutu zera zeu? Nondik datorkizu euskal-etortasun ori? Nondik zure ele miresgarriei darien euskal-ats ori? Zein sorgiñek-edo arnas damaizu, zure ele ori ain xoragarri gerta dakigun?

Neroni bailerit dirakurt, baiña nik diardudanean sorgin-antzo iges dijoakit. Zure olerki-etorriak nere baitara biltzen nau. Neure-neure ditudan kera ta sentipenak iraularazten dizkidatzu. Zure oorietan barna euskaldunok geron etxe-barruan bezela sentitzen gera, etxegiro berberak biltzen gaitularik.

Etorkizunak balietsiko al du euskal-elertiari eman diozun bultzada ta arnasa. Gizapiderako baldar ta moldakaitz zirudian gure euskera zaarra, ia erabat landua dakusgu zure egiñal ta jokabide burutsuei esker. Gure euskerak bear zun buru argia, irudimen bizia, biotz ukigarria zugan arkitu ditu. Gure euskerak bere erpiña zurekin jo ez ote duan nago.

Noizpait gutzaz "Erri bat izan zan" esan al badedi ere, inork suntsitu ez dezaken euskal-arrasto bat iraririk utzi duzu. Geroan-geroan agian inortxok uler ez dezakeana. Or "Euskaldunak" ortan betikotu gaituzu. Bertan dakiteke ondoenik "Erri bat izandakoaren" berri. Euskaldunok izan-gerana, bizitakoa, sentitutakoa, maitetakoa ortxen dager apal-apal, geientsuen ezjakiñean. "Erri bat izan zan"... Orain arte iraundako erri onen barne-kondaira zuk bildu diguzu liburu miraritsu batean. Nork abesturen digu Erri onen illunabarra?...

"Edo ta ats emalogun, ontan iraun dezan"... Zugan dugu eredurik bikaiñena. Zu zaitugu gure asmo ta indarren ats-emalle. Atsegin zaizuke, noski, zure atzetik aal berriak ba-datozela jakitea. Maite dugun erri onen atsemalle nai genduke izan guk ere, zure ta gure atsari esker Erri onek betiraño "ontan iraun dezan"!

Agur!, eta Urte Berri on! Maite ta miresten zaitugun gazteok.

Bastarrika'tar Iñaki

-Arantzazu-

"T X I L L A R D E G I" Jaunari.-

Euskaltzale bizkor:

Ongi etorria euskal-alorretara! Ba-ditekek apika geu baiño ere aspalditxokoagoa izatea, baiño bolaratxo ontan zabaldu duk emen ire berri. Gogoz irakurriak dizkagu ire idazlantxoak eta irentsia ire "Leturia-ren Egunkari Ezkutua". Bejondaikela! Zorionez, gazte asmotsu baten zantzu nabarmena igarri dikagu ire lerroetan barna, buru argi baten erraiñuak. Ba-zikan gure euskerak ire gisako gazte egikor baten premi!

"Leturia-ren egunkari ezkutua"ri buruz zer esan? Iruzkim luzetxo bat-edo egiteko asmotan nengokan, baiño nere iritzia -edonor batena-labur-labur adieraztea otu zaidak. Ba-zekikat Aita Villasante'k iruzkin sakon bat egiña dikala "Egan" aldizkarian azaltzekoa; baita gure Gandiaga olerkariak olerkitxoren bat eskeiña. Egoki zerizkiokat. Ez duk nolanaikoa erditu dukan eleberri ori. "Idazkerari iara gelegi egin gabe, bere almenak gai-arian biltzen dituan idazle bat bazetorkiguk noizpait", zesaidakekan batek arestian. Etzaiok arrazoirik palta ere.

Entzuna nikan aspalditxotik idazle gazte batek "esistenzialista kutsuzko" eleberri bat argitara emanik zedukala. Irakurmin nengokan. Artu ta irakurri nikan. Iritzia eskatu zidatekan amaitu orduko. Zer eritzi jakin ez-ta geratu nindukan. Beste oei alako goraipamenak entzunda oker nengokelakoan geratu nindukan. Dana dala egiari zor gatzazkiok eta itz-bitan adieraziko dikat nere irizpidea. Egia esan, naste-borraste bat-edo otu zitzaidakekan. Aria ondo eramana. Baiño arrunta xamarra... nere gardiz. Astuntxoegi ere ez ote duk? Maiz orrialdeak saillean pasatzeko gogoak ere ematen zidakekan. Irakurtzale porrokatu nauk izatez, batez ere elerti-filosofi gaietan. Ez dikat, bada, uste oitura-ezatik ditekeanik...

Gaiñera, nere ustez beintzat, gai oek ekarritzkoak baiño areago izan bear ditek etorritzkoak. Ekarria ez duk erreza, ongi ekartzen beintzat; etortasunaduk zailenik eta bearrenik, eta onetxen

palta zekuskat nik ire idazti ontan. Etortasun-eza onek, indarka edo asma-egiñaletan bezela egiña zegokala zirudik. Alako zerbait iruditzen zitzaidakekan aurreneko atalean batez ere, "Udalen" delakoan, alegia. Onetzaz gaiñera, maitasuna, ezkontza, libertatea, aukerapena, ta bitan-edo azaltzen dukan Jainko orren irudi margul ori... Moral aldetik bakarrik ez, "Etika natural" aldetik ere etzekikat nola epaitu leizken... Dostoievski baten eleberrietan ireak baiño intziri etsituagoak arkitzen dituk orrialde bakoitzean, baiño egoki ta bere puntuan otutzen zaiok edonori. Naiz-ta bapatean Jainko ta gizaki guzien aurka biurtu, beti egoki. Etortasun, egitasun onen palta edo egokitasuna somatzen dikat ire ortan...

Nortasun egin baten pentsaera umotua baiño, esistanzialista joerako nobelari asko irakurritako baten saioak iruditu zaizkidak ire bururapenak. Ez dikat onekin liburu au ire seme ez denik idaroki nai, filoso-elergille oen kutsapena igan nabarmen somatzen dala baizik, "eragilleena" baitipat.

Enikek onekin ire asmo ta almenik deuseztu nai. Elbarritu baiño bizkortu. Nor arrituren duk ba, asi-berri batek bere aurreneko jardupena erdipurditan sortzea? Ekiok irno bide oetatik. Bazegok gure errian bertan ikutugabeko naiko eleberrigai ederrik asko. Norik bilduke ta eleberrituko zizkiguk? Margil adi gure erriaren barne-arazotan. Ez dituk nolanaikoak. Buru-argitasuna, biotzunkitasuna, maitasun-garra, kultur-iakintza sakona, zer geiago erri baten problematika ulertzeko? Gure euskera err-errian sartuko baduk ere, bearrezko zaiguk bide oek ere urratzea noizpait... Onetzaz besterik ez oraingoz.

Beste arlotxo bat ere ba-nikan irekin jardutekoa.

Barkatu zak nere ausardia. Enatorrik erasotzeko asmoz, adiskide antzean neure iritzia azaltzekotan baiño.

Irakurria dit ik emen bildutako euskerazko batzarraldi artan bidali ukan gutun idekia. Baita arestian Aita Villasante'ri idatzitakoa ere. Ire "Taupadak" ere bai. Mirestekoa duk benetan ire asmotasun sutsu ori. Aolkutxo bat idarokitzea zillegi al zaidak?...

Egia esan, alperrikako zerizkidak eta ez ain ongarri eurentzat ere, gure aurrekoek gei-egi arroturik duten euskera-joera kontu oietan naastea. Etenkigarririk baiño kalte geiago sortzen ditek gai oek; onetxek ere urruntzen dizkik gure aurrekoak elkarrengandik. Arrazoi aski badik gure Zaitegi jaunak Uztaila-Daguenila'ko "Eusko-Gogoa" aldizkariko atarian onako au ziagekanean: "Beste errietan gerta danez, gazteok begirunez ta itzalez io oi dute garako gizonengana argi-eske ta laguntza-eske. Gurean zoritxarrez, ez da orrelakorik gertatu: maiz gazteok asaldatu dira garako gizonen aurka: ortik gure alkar buru eziña. Zenbait gaztek uste dute berak agertu arte, ez dala euskeraz idatzi. Esate baterako 1.900-1937 arteko Azkue, Eguskitza, Lizardi, Olabide, Orixe ta abar bazterrean utzi nai lituzkete. Gazteok egokiera aundirik eztute izan, nonbait, idazle bikain oien lanak bear den egonarriz auznartzeko. Euskerarik eztute lorrindu idazleok, ez orixe. Nik enun uste idazleok ain biurri izan litezkeanik, alako izugarririk egin litzaketeanik... Euskera orriloan eta gara betean utzi dutela esan badizute, orriloan eta gara betean dateke. Dana dala, gazteok garako idazleon lanak aztertu bearra lituzkete, egia danentz ikusteko".

Garako idazle ospetsu oen artean, apaltasunak izkutarazi duan Zaitegi bera ere aipatzekoa duk, noski.

Jendea leporaño dagola uste dikat amaigabeko berriketa oekin. Antziñako zaarak aztertu bear dizkagula? Ondo zegok. Baiño gizaldi onen asieratik euskera bide okerretik abiarazi dutela? Utikan! Joan gizaldikoak, eta Axular bera ere ikusi nai nitek egungo gaietan barna! Itzalez ta begirunez ta mirespenez begira bear dizkagu gizaldi ontako idazle-sailla, eta oek batez ere. Oek, garako idazleak, urratu zizkigutek iakintza ta gizapide-landa guziak, ta onen bearra zikan baitipat gure euskerak. Lan gogor eta astunena oen bizkar zamatu duk doi-doi.

Euskera-arazoa joera batek edo bestek askatuko dulakoan al ago apika? Arkitu al duk joera ori? Arraio pola!, barreda sak lau aizetara! Etziguk, nere ustez, korapilletxo au joera batek edo bestek askatuko, asko ta ugari idazteak baiño.

Joera-zaleak be-zeudek euskal-idazleen artean, baiño egia esan, guziek bide berdintsutik zijoaztek. Batak ezin duna besteak asmatzen baitik. Oar zak euskal aldizkarietan ere, ainbesteko desberdintasunik somatzen al duk? "Orixe" jaunak senez diagonez, euskal-idazleok oraingoz bata besteen ikasle gaituk. Eta bestela ain gaizki bagoaz, argitara zabaldu zak beste joera-edo bear luken bide "ezkutu" ori.

Ezti esan nai onekin euskerak batere a-razorik estaukanik, oztopo-alderdi oek geiegi anpatu bear ez ditugula baiño. Euskaltzaleok, euskaldunok orobat, urri gaituk oso, eta pamili txikien akats bereziak zeuzkagu. Bata besteenean naasi bear derrior. Zer genesaiokek nekazari bat industri-teknikoen lanbidetan naastuko baukek? Ez al da berdin idazletxo tentel bat, gizon erdilandu bat filoloji-gaietan naastea? Bai, euskera etxekoa izan-da...

Amaitzera noakik, adiskide. Bestela neroni naastuko nauk ez dagokidan arloan. Onde esanak onartu, ta oker daudenak barkatu. Erantzun nai izan ezker zabalik dauzkak YAKIN onen ateak.

Bastarrika'tar Iñaki

E U S K A L T Z A I N D I A R I . -

Ausarkeri bada ere ez dugu zenbaki au itxi nai, aspalditxetik darabilgun eskaritxo edo idaroki bat azaldu gabe. Gazte guzien partez doa.

Zergatik ez du gure Euskaltzaindiak urteroko "txapelketa" bat antelatzen? Eleberri-sariketa bat, alegia. "Urkijo-Saria" edo besten bat, mundu guzikoa "Nobel-Saria" dan bezela, edota Espaini'koa "Premio Nadal", eta beste ainbeste diran bezela?

Askoren almenak esnatu ta bizkortuko lituzke. Gaiñera, urteroko nobela saritu orrek bere etsa aterako luke aldi luze gabe, ta aisa salduko litzake. Euskal idazle gazteok ere, beste erri guzietakeak bezela, geren estimuloak bear ditugu euskal-lanari ekiteko. Diru-kontua? Nun dira euskaltzale aberatsak? Askoren arten batzokitxo bat zergatik esatu ez? Ziur gaude gure euskeraren zain ditugun gizonak, gazteon eskaria kontutan artuko dutela. Milla esker!

Y A K I N

A R K I B I D E A

"ORIXE" Jaunari 3

TEOLOGI - FILOSOFI - SAILLA

Aita Santuaren itza.- Balerdi, beneditarra..... 6

Apaiz-gaien aldeko otoitza.- Muxika, beneditarra... 14

Krisostomo deuna apaiz.- I. Labaka, apaizgai..... 15

Liturgi-otoitza.- J. L. Aperribai, prantziskotarra... 19

Legeari buruz.- Muxika, sakramentinoa..... 23

Maria'ren birjintasuna.- Unzurrunzaga, prantzisko-
tarra..... 29

Eliza, Jainko-indar gure argaltasunean.- P. Mendiza-
bal..... 33

Sinistunaren ingurua.- J. Gaztañaga, apaiz..... 37

KULTURA - JAKINTZA - ANTZE

Albert Camus, Nobel-Saria.- I. Bastarrika, prantzis-
kotarra..... 51

Papiri'ri buruz its bi.- Azurmendi, apaizgai..... 61

Katolikoa ta sinema.- Guarrotxena, prantziskotarra. 63

Lourdes'ko Mari-Biltzarra.- P. Mendizabal, prantzis-
kotarra..... 68

Mahomatarrak eta Komunismoa.- J. L. Zurutza, pran-
tziskotarra..... 76

ELKAR - IZKETA

Aitagurearen inguruan.- Lekuona..... 86

"ORIXE"ren eskutitza..... 90

GUTUN IDEKIAK.- "ORIXE" Jaunari..... 97

"TXILLARDEGI"ri..... 99

Euskaltzaindiari..... 102